

puntua

+

Juane Arientzako kanpai-joleen eskolak 20 urte

Jon Kortazarri elkarrizketa Errusiako Iraultzaz



Mikel Arriaran, Oier Beitia, Brian de Inda, Hodei Beitia eta Julio Hernandez.

Arkada Social taldeak 20 urte

Bi hamarkadetako pasarteak eta kantuak batuko ditu laister kaleratuko duten bildumak / 13

AITOR BENGOA 'POLI'

Errusiako Iraultza aztergai Oñatin

Errusiako Sobietar Errepublika Sozialista ezarri zutela 100 urte betetzen direla-eta hitzaldiak antolatu dituzte "gizarte ereduaz" hausnartzeko / 27

CNA Taldeak Fagor marka erabiltzeko eskubidea gal dezake, "hitzarmena ez betetzearren" / 5

SINADURAK



R.P.S. 175/15 I.L.G.

gama altuko
 2 mō betaurreko progresibo

197€

www.multiópticasgipuzkoa.com f t e

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
 IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Eskaintza baliagarria 2017/12/31 arte. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan

MERKATARI




**BERTAN
EROSI,
BERTAN
SALDU,
BERTAN
BIZI!!!**

**'ON LINE'
BIDEZ GURE
DENDETARA
HELTZEA
POSIBLE
EGITEN DUEN
DOAKO
APLIKAZIOA**



**DESKARGATU
'APP'-A DOAN**



KOMUNIKAZIO ZUZENA

Erreserbak, zalantzak, eta abar bideratzeko, txat zuzena dendariarekin.



HURBILEKOAK BILATU

Zure inguruan dauden denda eta produktuak bilatu.



ESKAINTZAK JASO

Askotariko denden eskaintza bereziak jasotzeko.



EROSKETAK BALORATU

Erosketak baloratu eta beste balorazioak ikusi.



TIKETAK GORDE

Erosketa guztien tiketak erregistratu beti, eskuragarri izateko.

Gure dendak daude gugandik hurbilen. Bertako profesionalek, gure ezagunek, ezagutzen dituzte ondoen gure nahiak eta beharrak. Ez dago munduan gure herriko edo auzoko komertzioak baino gertukoagorik. *On line* bidez gure dendetara heltzea posible egiten duen aplikazioa da *Merkatarri*! Zure eskaintza komertziala global eta eskuragarri bihurtuko duen aplikazioa da *Merkatarri*.

ZURE DENDAN GALDETU!

'Merkatarri' aplikazioa deskargatu doan:



<http://debagoienakomerkatari.eus/>
info@debagoienakomerkatari.eus

Jatorri ezberdina, mahai bera, 'Bizilagunak'-en bidez

Bertako familiak eta kanpotik etorritakoak mahaiaren bueltan –bazkaltzen– jarri gura ditu 'Bizilagunak' egitasmoak; azaroaren 19rako antolatu dute ekintza. Jada zabaldu dute parte hartu gura dutenendako izen-ematea

Iker Oñate DEBAGOIENA

Ekintza iragarri dute *Bizilagunak* egitasmoaren bultzatzaileek: hemengo familiek eta atzerritik etorritakoek elkarrekin bazkalduko dute azaroaren 19an. "Askotan, beste herrialde batzuetako jendea ezagutzeko interesa badugu, baina ez gara ausartzen urrats hori egitera, edo ez dakigu nola egin. Horretan laguntzeko sortu da egitasmoa", argitu du Nora Ugarteburuk, Debagoieneko SOS Arrazakeriako kideak. Martitzenean aurkeztu zuten ekintza Arrasaten eta, eragileko kideez aparte, egitasmoaren kolaboratzaileak ere egon ziren aurkezpen ekitaldian.

Aurtengoa seigarren edizioa du egitasmoak. Hala ere, gaur arte ez du arrakasta handirik izan ibarrean. "Bazkaritxo batzuk egin izan dira, baina aurten gehiago izatea nahi genuke. Proiektuari bultzada eman beharra diogu, ezinbestean", azaldu du Ugarteburuk.



Bizilagunak egitasmoaren bultzatzaileak ekintzaren aurkezpen egunean. GOIATZ ARANA

Ekintzaren garrantzia

Arrasateko Udalak babesa adierazi dio egitasmoari. Gizarte zinegotzi Amaia Azpiauren esanetan, "ekintza aberasgarria" da: "Beti hitz egiten dugu elkarbizitza edo elkar-ezagutza modukoez. Hitz horietan sakontzeko garaia da. Ekintza xumea izan arren, kanpotik etorritako jendea ezagutzeko eta izan di-

tzakegun beldurrak kentzeko aberasgarria". Ekintza "xume baina eraginkorra" dela dio.

Kanpotik etorritako pertsonen ere begi onez ikusten dute egitasmoa. Djamilia Zereiby, Arrasaten bizi den musulmanak, esate baterako, duela urtebete esku hartu zuen proiektuan, eta "oso esperientzia positiboa" izan zela dio; IMME emakume mu-

sulmanen integratzaileko elkarreko kide ere bada Zereiby. "Beste pertsona eta kultura batzuk ezagutzeko aukera eskaini zidan egitasmoak. Bada, askotariko gaiez jardun genuen, eta izan nintzakeen beldurrak kentzeko balio izan zidan horrek", dio.

Mahaiaren bueltan sortzen den giroa eta horrek esperientziari egiten dion ekarpena azpimarratu ditu Zereiby: "Jakien inguruan giro erosoa sortzen da; bakoitzaren onena ateratzen laguntzen du horrek. Besteez gaineko elkartasun sentimendua pizten laguntzen du".

Izen ematea zabalik

Egitasmoan esku hartu gura dutenek azaroaren 10era bitartean eman dezakete izena, 658 74 97 55 telefono zenbakira dei eginez edo *debagoiena.bizilagunak@sosracismo.eu* posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz. Egitasmoaren bultzatzaileek azpimarratu dute Debagoieneko edozein herritarrek parte har dezakeela ekintzan.

Izen ematea bukatzean hasiko da dinamizatzaileen jarduna. Hemengo eta kanpotik etorritako familiak elkar-lotu ostean, dinamizatzaile bana egokituko zaio horietako bakoitzari, hilaren 19ko ekintza prestatzen hasteko. Familiez aparte, dinamizatzailea bera ere egongo da bazkarian. Ohikoenean, 14:00etan hasiko da ekintza.

'Errigora' saskia, euskalgintzari laguntzeko

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari eman gura diote bultzada egitasmoaren bitartez

I.O. DEBAGOIENA

Abiatu dute *Errigora* egitasmoa Nafarroa hegoaldeko euskaltzaileek; euren zonan euskalgintza indartzea dute helburu nagusi. Hango produktuz osatutako otarreak jarri dituzte salgai, eta azaroaren 14ra bitartean egongo da eskuratzeko aukera, *www.errigora.eus* webgunean. *Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka* bataiatu dute kanpaina berria; eta bat egiteko dei egin dute ibarreko euskara eragileek. 50 eurotan eskura daitezke saskiak, eta bildutako diruaren %25 bideratuko dute euskalgintzara.

Besteak beste, D ereduaren sarkonda, Nafarroa hegoaldean AEK indartu eta hango ikastolen –Lodosakoa, Tuterakoa eta Vianakoa– biziraupenerako oinarri ekonomiko sendoa eraiki gura dute bultzatzaileek. Iaz 14.000 saski saldu ziren, euskalgintzari 175.000 euroko ekarpena egin da.



Mariaren Lagundia Ikastola

ESTIMULAZIO GOIZTIARREKO JARDUNALDIAK

Núria Sánchez Povedano

Azaroarena 10, ostirala
16:00-20:00 h

Azaroaren 11, larunbata
9:00h - 14:00 h
15:30 h - 18:30 h

Mariaren Lagundia Ikastola

Espaloia Kalea, 1
20570 - Bergara
Telf. 943 76 25 40

www.mlagundia.net

Fagor marka ezin izango du erabili CNA Group-ek

CNAk Fagor marka erabiltzeko duen eskubidea galduko du azaroaren 7an, martitzena. "Hitzarmenean jasotakoak ez dituzte bete" eta "Edesa Industrialen egoera min handia egiten ari zaio Fagor markari", adierazi dute Fagorreko iturriek

Miren Arregi ARRASATE

CNAk Fagor marka erabiltzeko duen eskubidea galduko du datorren martitzenean, azaroak 7, baldin eta Catak ez baditu 2014ko hitzarmenean –markaren lagapen hitzarmenean– jasotakoak betetzen. Fagor Kooperatiba Elkarteak CNari Fagor marka erabili ahal izateko lagapena egin zion orduan. Orain, eta Kataluniako taldeak hitzarmen hartan jasotakoak bete ez dituela ikusirik, marka erabili ahal izateko eskubidea kenduko diote: "Egoera muturrekoa da", diote Fagorreko iturriek. "Edesa Industrialen egoera min handia egiten ari zaio Fagor markari". Izan ere, Fagor "oso ondo doazen zazpi kooperatibak" osatzen dute eta Edesa Industrialen egoerak "kaltea" besterik ez dio ekarri. "Kalte hori neurtezina da, eta Fagorren oso haserre eta desesperatuta gaude gaiarekin", diote.

Hitzarmena betetzea

CNAk marka erabiltzen jarraitzeko zein aukera dauden galdetuta, honela erantzun dute: "Oso erraza da. Hitzarmena bete dezatela". Bi dira hitzarmen horren oinarriak: lehena, bai-laran 350 lanpostu sortzea; bigarrena, Fagor marka merka-



Edesa Industrialen Garagartzako lantegia. GOIENA

tuko maila altuenetan mantentzea. "Argi dago ez dutela bietako bat ere bete. Eta zail ikusten dugu dauden egoeran eta martitzenera bitartean bete ahal izatea. Edesa Industrial hartzekodunen lehiaketan egonda, ia ezinezkoa da".

Iturri horiek baieztatu dutenez, joan den astean eman zitzaion CNari ultimatumaren berri: "Burofax bidez egin zitzaien jakinarazpena". Cataren aldetik hitzarmena beteko duten asmorik ez dutela erakutsi gehitu dute.

Hartzekodunen lehiaketan

Joan den egubakoitza ezker hartzekodunen lehiaketan da Edesa Industrial. Enpresak ohar bidez adierazi duenez, une honetan hainbat inbertsorerekin negoziazioak lotzen ari dira, eta konfiantza agertu dute enpresaren etorkizuna behin betiko konponduko duten eskaintzak aurkeztuko dituztela. Fagor Kooperatiba Elkarteak, berriz, ez du konfiantzarik CNaren bideragarritasun plan horretan: "Inork ez du Cataren bideragarritasun planik ikusi".

Negoziatzen jarraituko dute 41 lanpostu ez suntsitzeko

Arcelor Mittalek aurkeztutako lanpostuak suntsitzeko espedientea atzera bota gura du enpresa batzordeak

M.A BERGARA

41 lanpostu suntsitzeko lan-erregulazio espedientea aurkeztu zuen Arcelor Mittal Bergarak urriaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean. Joan den astean, LAB sindikatuak enpresaren asmoak salatu eta horien aurrean "konponbide globalak" eskatu zituen. Enpresa komitearen eta Arcelorrek zuzendaritzaren arteko negoziazio epea zabalik da eta atzo, eguna, egin zuten lehen batzarra. Langileen ordezkariak lanpostuak suntsitzeko espedientea bertan behera uzteko eskatu zioten zuzendaritzari: "Gu saiatuko gara espediente hori atzera botatzen; izan ere, ez gaude ados enpresak erabili duen ereduarekin. 41 langile horiek aurre-erretiratu gura dituzte behin kaleratu ondoren eta guk esaten duguna da gertu

gaudela aurre-erretiroez berba egiteko, baina ez lan-erregulazio espedientearekin", dio enpresa batzordeko Jose Ramon Kortabarriak. 41 langile kaleratuta, 108 langilerekin geldituko litzateke Arcelor Bergara, "baina produkzio mailari eutsiko lioke", adierazi dute. "Bidalketa saila azpikontratazio bidez egin gura dute. Horrela, euren irabazten dute", dio Kortabarriak.

Atzoko bileran akordiorik ez dute lortu eta hurrengo hitzorduak hilaren 13an eta 17an izango dira.

Istripua Arcelor Mittalen

Bestetik, LAB sindikatuak gogor salatu du "urriaren 31n beste lan istripu batek ondorio larriak" utzi izana Arcelor Bergarako langile bati. Sindikatuak "prekarietatea" eta "pertsonek falta" egin ditu istripuaren erantzule.

Erorikoen kopurua gutxitzeko tailerra Arrasaten, hilaren 7an

Azaroaren 7an, Arrasateko erretiratuen etxean, Etxaluzen, erorikoen kopurua gutxitzeko tailerra egingo da, 16:00etatik 18:00etara. 64 urtetik gorakoei eta euren senide eta zaintzaileei zuzenduta dago. Izen-emate epea zabalik dago eta bi modu daude horretarako: 943 03 52 50 zenbakira deituta edo Arrasateko Osasun Etxean izena emanda.

Autobusa Arrasaten, biharko Bilboko manifestaziora joateko

155. artikuluaaren kontra bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatuta ditu Arrasateko Gure Esku Dagoak. 15:30ean irtengo da Gari-baitik eta txartelak salgai daude Monte tabernan. *Demokrazia eta erabakitze eskubidea* lelopean egingo da manifestazioa bihar Bilbon. 17:00etan aterako da, Casillatik.

AZAROAK 2 - 12
2017 JARDUNALDIAK

ZTB Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara
ztbergara.eus



ERAKUSKETAK

HITZALDIA

WOLFRAM ENCOUNTERRA

BARNETEGI TEKNOLOGIKOA

ROBOTIKA TAILERRAK

MAHAI-INGURUA

Eneko Azkarate ARRASATE

Gurpil zoroan murgildurik dago Kataluniako independentzia prozesua. Ziurra dirudi abenduaren 21ean hauteskundeak izango direla. Gaiaz dihardute hiru legelari eta gaurkotasun aztertzailek: Elena Laka abokatuak, Ainhoa Larrañaga MUKO irakasleak eta Juanjo Alvarez zuzenbide irakasle katedradunak.

Elena Lakaren ustez, Kataluniako Parlamentuak independentzia aldarrikatu izana logikoa da, "iritsitako tokiraino iritsita"; izan ere, zalantza du "bideragarria ote zen albora pauso bat" ematea, ez ote zen interpretatuko Espainiako Gobernuaren aurrean "amore ematea" moduan. Ainhoa Larrañaga, berriz, kritikoa da Kataluniako Gobernuaren azken egunotako jokaerarekin: "Egubakoitzean sinetsita nengoen Kataluniak independentzia aldarrikatu zuela eta Kataluniako Gobernuak argi zuela aldarrikapena estatu propio baterako abiapuntua zela. Baina, ondoren, aldarrikapen hutsean geratu dela iruditu zait". Ildo beretik, Juanjo Alvarezek estrategia argirik eduki ez izana egotzi dio Carles Puigdemonti. Prozesua bertan behera uztea baztertu eta "aurrera egin zuen, independentzia aldarrikatu zen... Baina Rajoyk hauteskundeak deitu eta 24 ordu, hauteskundeetara aurkeztuko direla esatea ez da koherentea".

Lehendakariaren ahaleginak

Iñigo Urkullu lehendakariaren jokabidea "epel samarra" iruditu zaio Lakari. Alvarezek, ostera, nabarmendu du negoziatziorako eta bitartekari lanak egiteko haren borondatea. Carles Puigdemonten eta Mariano Rajoyren arteko eta Pedro Sanche-

Kataluniako prozesuaren gaineko hiru begirada

Independentzia aldarrikapena, Espainiako gobernuaren esku hartzea eta fiskal nagusiaren zigor eskaerak, Puigdemonten 'erbesteratzea' eta abenduaren 21eko hauteskunde autonomikoak aztertu dituzte hiru legelarik



GOIENA

"LEHENDAKARIAK SUKALDE LANIK EGIN BADU, EZ DU EMAITZARIK IZAN"

ELENA LAKA, ABOKATUA

zen, Puigdemonten eta Rajoyren arteko "hartu-eman bakarrak Urkulluk ahalbidetutakoak" izan dira, "hala eskatu diotelako". Elena Lakaren ustez, berriz, lehendakariak "sukalde lanik egin badu, ez du emaitzarik izan". Eta aldarrikatzen duen aldebi-kotasuna, "ez da posible Espainiako Gobernuarekin". Ainhoa Larrañagaren iritziz, EAJren-tzako egoera "deserosoa" izan da, Kataluniako prozesuak "Eus-



GOIENA

"EZ DAGO ERREBOLTA DELITURIK, EZTA SEZESIO DELITURIK ERE, ASTAKERIA DA"

JUANJO ALVAREZ, KATEDRADUNA

kal Herria ere interpelatzeko" du eta. Baina azkenean gertatu dena ikusita, EAJren argumentuak "indartu" egin dira, Larrañagak uste duenez: aldebi-kotasuna, adostasuna... "Urkullu koherentea izan da. EAJri ez zaio kome-ni Estatuarekin apurtzerik, nahiz eta foro batzuetan independentziaren alde" agertu.

Kataluniako presidentek eta Gobernuako kontseilari batzuk Belgikara joan izanaren gainean,



GOIENA

"PUIGDEMONTEK BELGIKARA OSPA EGIN IZANA EZ ZAIT ZUZENA IRUDITU"

AINHOA LARRAÑAGA, IRAKASLEA

Elena Lakak iritzi dio katalanendako "aukera bat" dela haien "aldarriak eta egoera Europan zabaltzeko". Ainhoa Larrañagari, berriz, ez zaio zuzena iruditu independentzia aldarrikatu ostean Belgikara "ospa egitea". Haren ustez, "ez da serioa, prozesuak ondorioak izan ditu-eta pertsona batzuegan: kartzela zigorra, isunak...". Juanjo Alvarezek ustez, "inpaktu mediatico, sozial eta politiko handia"

du Belgikakoak. "Modu burlatian deskalifikatu nahi izan duen espainiar prentsa bere tokian utzi du Puigdemontek".

Juridikoki "eskandalua"

Espainiako fiskal nagusiak egin duen zigor eskaera baloratzerakoan, Juanjo Alvarez oso kritikoa da. Haren ustez, "ezin dira nahastu" errebolta eta sezesioa. "Errebolta Konstituzioaren kontrako delituan dago; sezesioa, ordena publikoaren kontrako delituetan". Alvarezek ustez, errebolta deliturik ez dago, ezta sezesio deliturik ere. Juridikoki "eskandalua" da. "Independentzia aldarrikatzea izan daiteke desobedientzia delitua, Konstituziotik datorren lege edo agindu bat urratzearen, eta sei hilabeteko delitua da. Baina ez da errebolta delitua, altxamendu militarrik edo biolentorik ez delako egon". Elena Lakaren ustez, dena den, "espero zitekeen" horrelako zigor eskaera bat, Espainiako fiskal nagusia Espainiako Gobernuak proposatu eta erregeak izendatutako kargu bat delako, eta haren funtzioa "legetasunaren alde egitea" delako.

Hauteskundeak eta bi blokeak

Abenduaren 21eko hauteskundeak dagokienez, Ainhoa Larrañagaren ustez, "bloke konstituzionalista indartu" egin da, eta, ostera, "argumentu indartsuak" beharko dira "independentziaren aldekoak aktibatuzko". Alvarezek esanetan, parte hartzearen egon daiteke gakoak. "Aurrekoetan, %75eko parte-hartzearekin, esango nuke independentistak izan zirela gehien mugitu zirenak. Oraingoan, parte hartzea handitzen bada, uste dut beste aldekoak izango direla gehienak".

Hizkuntza berritzeko gidaritza ikastaldiari amaiera eman diote

Astelehenean banatu zituzten Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoaren diplomak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Garabide elkarteak antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoaren diploma banaketa egin zuten martitzenean, Galar-zako dorretxean. Hain zuzen

ere, *Hamaika amets eta beste bat gehiago* lelopean, hizkuntza gutxituetako agintariei zuzendutako formazio programan ikusi eta ikasitakoak adierazi zituzten, besteak beste, ekitaldi hunkigarrian.

Garabideko Jon Sarasuak, Jauraritzako Euskararen Promoziorako zuzendari Estibaliz Alkorta eta ikastaroan aritu diren hizkuntza gutxituetako bi agintariek hartu zuten hitza. Oihana eta Haizea Arana eskoriatzarren bertsoak entzuteko aukera izan zen, eta hizkuntza gutxituetako agintariek hizkuntza komunitate bakoitzaren etorkizunerako ametsak idatzi zituzten. Xabier Leteren *Kontrapas* guztien artean abestuz amaitu zen ekitaldia.



Ikastaroan parte hartu dutenak eta diploma banatzaileak batera. IMANOL BELOKI



ZABALIK

RAFA MUNGIA

Lagun ezkutua

Goizean goiz autobusera igo eta lantokira hurbiltzen da, eguneroko errutina jarraituz, armosua besapean daramala.

Beldurrezko filmetako protagonisten eta heavy musika talde entzutetsuenen kamisetak ditu gustuko, beti beltzez, galtza bakeroak eta zapatilak jantzita, negua edo uda dela.

Lankideak banan-banan agurtzen ditu bulegoko atetik igarotakoan.

Bati, aurreko eguneko aurpegi tristearen inguruan galdetzen dio.

Eta besteari, ea ondo joan den sendagilearekin zeukan hitzordua.

Eta nire lekura heldu orduko, futbolararen inguruko solasaldia abiatzen dugu, hau ere errutina sakratu bilakatu dena.

Elkar agurtu eta bere lehen galdera egiten dit egunero, gehienok betegarri bezala erabiltzen dugun "zer moduz zaude?" ateratzen da bere ahotik, nire begietara begiratuz.

BERARENTZAT EZ DA NAHIKOA "ONDO" EDO "GAIZKI" ERANTZUTEA, GEHIENOK EGIN OHI DUGUN BEZALA

Denboraren poderioz ohartu naiz berarentzat ez dela nahikoa "ondo" edo "gaizki" erantzutea, gehienok egin ohi dugun bezala.

Berak gehiago jakin nahi du; batez ere, ondoezaren arrazoiak

azaltzera behartzen zaitu, barneak husteko gogoia izan edo ez.

Bi urte dira Downen sindromea duen Gontzal lankidea ezagutzen dudala eta esan dezaket berak baino gehiago ikasi dudala nik tarte honetan.

Kosta zitzaigun hasieran harremana estutzea, berak ez du edonor bere lagunaren taldean sartzen, pribilegio edo ohore hori irabazi beharra dago pausoz pauso.

Nolanahi ere, dena ez da gozoa izan gure artean; haserretzerakoan muturreraino joatea izan ohi da bere estrategia, baina, ondoren etorri diren adostasunen ondotik, benetako adiskidetasuna zer den erakutsi dit.

Downen sindromea duten pertsonak gizarteratzeko ahalegina ez da inoiz nahikoa izango; beraiek baino gehiago, gu ateratzen gara irabazten.

Sar ezazue *Gontzal* bat zuen bizitzan eta gertatzen ari den guztia beste begi batzuekin ikusiko duzue.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ipurtarina

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/ZIBD3
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Hiruzpalau jaiegun jarraian tokatu orduko bizikleta, autoa, furgoneta, hegazkina hartu eta norabait, noranahi, joan beharra izaten du ipurtarinak (alde egiteko moduko soldatatoxa ere bai baitu).

Han dago, ordenagailuari pega-pega eginda, abenduko zubirako maukaren bat noiz topatuko.

Zirenik eta destinorik originalenak hautatzen zituen lehen:

#NiHanEgonNintzen (EtaZuEz). Ordea, urteekin,

kriterioa fintzen joan da eta plan koherentetxoagoak egiten saiatzen da orain. Ez dauka erraz.

Pirinioetara gurago du ez joan, behin izango herritik aldentzeko aukera eta ezagunez inguratuta egoteko?

Kataluniara ere ez, zin egin baitzion bere buruari (noiz eta Greziatik itzuli berritan) ez zela morbo hutsagatik inora joango.

Lisboa, Amsterdam, Berlin... deskartatuta, zer gutxiago aurtengo udan #turistgohome dozenaka aldiz txiokatu ondoren?

Maroko gomendatu diote, Bilbotik 100 euro eskasean joan-etorria.

Baina zelan joango da Marokora, bertako gobernuak atzerriko ekintzaile eta politikariak Aaiunetik kanporatzen jarraitzen duenean?

Eta behingoagatik herrian geratuz gero?

Itomena eragiten dio pentsatze hutsak, garai batean larunbat arratsez etxean geratzeak sorrarazten zion lakoa; hantxe egoten zen gauerdia arte, 1999ko urtezaharretan lez, apokalipsiaren zain.

Baina ez; nahiz berari hala iruditu, hekatonberik ez ipurtarinak pausatxo bat hartzen duen bakoitzean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.

www.goiena.eus

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Administrazioa Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.
HARPIDETZA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es

BERBAGAI

"Hildakoen %25 bakarrik ekartzen dituzte hilerrira"

LUISI DOMINGUEZ BERGARAKO EHORZLEA

Eneko Azkarate BERGARA

Ohikoa baino lan gehiagoko egunak izan dira azken asteetakoak Luisi Dominguez (Bergara, 1960) Bergarako ehorzlearendako. 19 urterekin hasi zen Udaleko lantaldean, baina lehenagotik, txikitan, hasia zen aitarekin batera kanposantuko lanetan.

Lan askoko eguna izan da Domu Santu Eguna?

Ez, egun ederra atera da eta lasai joan da. Gainera, jendea gehiago dabilenez, ezin zaitezke lanean ibili. Hori bai, lana ematen dute hostoek. Eta aurten ere, haizea atera denean horrek eman dit lana, bereziki. Aurreko egunak izan dira lan gehiagokoak.

Bergarako hilerriaz gain, Angiozar, Elorregi, Osintxu eta Elosukoaz ere arduratzen naiz.

Zer da zailena ofizio horretan?

Gorpuak lurreratzea ez da bereziki gogorra, gauza arrunta da. Jakina, umeekin eta ezberdina da, gogorragoa da. Dena den, adinean aurrera



Luisi Dominguez Bergarako hilerrian Domu Santu Egunean. ENEKO AZKARATE

egin ahala, geroago eta sentiberagoa naiz hildakoen gertukoaren sufrimenduarekiko. **Gaur egun lehen baino gorpu gutxiago eroaten da hilerrira?**

Bai, gaur egun hildakoen %25 bakarrik ekartzen dituzte

kanposantura. Geroago eta gorpu gehiago erretzen da. Eta, horren ondorioz, hilberri gutxiago dago kanposantuan.

Jende heldua joango da kanposantura, ala?

Ez pentsa. Adin guztietako jendea etortzen da, adinekoak gehiago izan arren. Eta badago egunero etortzen denik ere, goizez eta arratsaldez, gainera.

Zertara doa jendea hilerrira?

Hildakoak gogoratzen, erreztatzen... baina baita kanposantua ikustera ere. Bergarako herriaren erdi-erdian dago eta askorentzako parke bat bezala da. Arrasaten, lekuz aldatu zutenetik, urrunegi geratu da. **Zenbat gorpurendako tokia dago Bergarako hilerrian?**

650 hilobi, 300 nitxo eta beste 220 panteoi daude. Gaur egun, lekua soberan dago. Legeak dio, gutxienez, hamar urte egin arte ezin daitezkeela gorpuak atera. Sasoi baten, 9 urte eta erdira ateratakoak gara gorpuak hilobititik, tokia egitearren. Gaur egun, 21 urtez egoten dira hilobietan eta nitxoetan, berriz, 27 urte. **Egoera onean dago Bergarako hilerrira?**

Bai, txukun dago, baina kaperak konpontzeko premia dauka. Bertan dauden 19 panteoien familiak eta Udala, bien artean, arduratu beharko liriteke konponketaz, baina ez zaio horri heltzen. Pena da, ze jendea kanpotik etortzen da eta guztiek diote penagarri dagoela.

HAU BE BADOGU!

Maialen Lujanbio garailu Irunen



Bertsolari Txapelketa Nagusia beste behin izan da *trending topic*, Maialen Lujanbiok irabazitako saioaren ostean:

@naizena_Maddi: "Maialen Lujanbio. Ez zait miresmena barruan kabitzen #BTN17".

@eñaut78: "Artaleku arte leku bihurtu du gaur Maialen Lujanbiok #BTN17".

@aizpuruetxarte: "Dena ondo zihoan Lujanbiok kantatu duen arte #BTN17".

Galdeketa domekan, 13 udalerritan



Gure Esku Dago ekimenak bultzatuta, 13 udalerritan jarriko dituzte hautetsontziak domekan. Getxo –orain arteko herririk handiena, 80.000 biztanlerekin–, Andoain, Areatza, Atxondo, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Mundaka, Ibarrangelu, Leioa eta Otxandio izango dira herriak. **#A5galdeketa** traola, horrela, *trending topic* izan da sare sozialetan astean zehar.

#Puigdemont hizpide mundu mailan

Kataluniako presidentek Belgikara egin duen bidaiaren ostean, sare sozialetan bere gain jarri dute fokua erabiltzaileek. Gurean ere, **#Puigdemont**, **#155ariEZ**, **#indeKAT** edota **#Katalunia** izan dira traola erabilienak. Aipatzekoa da ere, txiolari euskaldunek, katalanez idatzitako edota bertxiotutako txio kopurua, euskal txioak aztertzen dituen Umap-ek azaldu duen moduan.

ITURRI ONETIK

Anita Parker, Gosekoen talde berria

Azaroaren 16an aurkeztuko du Anita Parker Arrasateko talde berriak izen bereko diskoa. Aurkezpena Bilboko Itsas Museo ondoko Carolan izango da eta taldeak bi kantu eskainiko ditu zuzenean. Anita Parker-en atzean daude Gose taldeko Iñaki Bengoa eta Jon Zubiaga *Osoron*, eta horiekin batera Olatz Andueza eta Ane Martinez. Diskoa Mauka diskoetxeak kaleratuko du, eta taldearen lehenengo kontzertuak izango dira Durangoko Azokan, Ahotsenean eta Hatortxu Rock-en.

GORA ETA BEHERA



Bus urbanoaren informazioa ez ikusteko moduan

Arrasateko herritar batek bidali du argazkia eta eskatu nahi dio Udalari "edo dagokionari" konpon dezala arazoa; izan ere, dio panela dagoen egoeran "alferrik" dagoela. Kontua da apenas irakur daitezkeela Musakolako bus geltokian herri-busarendako jarritako paneleko informazioa: autobus ordutegiak eta. "Zerbitzu publikoa bultzatzeko behar lukete panela konpondu", dio.



Mila esker!**YOLANDA NAFARRATE**

EUGENIO ITURBEREN ETXEKOEN
IZENEAN
ARRASATE

Hil berria den Eugenio Iturberi azken momentura arte emandako zaintzagatik eta goxotasunagatik, esker ona adierazi nahi diegu Debagoieneko etxez etxeko ospitaleko talde guztiari eta Arrasateko eta Gasteizko Txagorritxu ospitaleetako lantaldeei.

Kontzertu ekonomikoa**ENAUT ZUBIZARRETA MENDIETA**

ARETXABALETA

Kontatzen zuen Lion Feuchtwangerrek nola Ulisesen abenturetako baten Circeren sorginkeria zela medio zerri bihurtutako itsasgizonen uko egiten ziotela izaki forma berreskuratzeko aukerari. Aterpearen segurtasuna

zeukaten, nahiz eta hau kakaz beteriko ukuilua izan. Janaria erregulartasunez jasotzen zuten, urria eta sobrak baldin baziren ere...

1878an izandako inposizio batetik askatzerik ere ez dute nahi hemen, Euskal Herrian, beste hainbat zerrik, kontzertuaren aterpea aitzakia dela medio. Stockholmgo sindromea ere dei geniezaioke, beharbada, baina ez naiz ziur nor den bahitu eta nor bahitzaile EAEko zulo honetan.

Oñatiko EAJren gerria eta aurpegia**NEREA ZUBIA BLAZQUEZ**

OÑATIKO EH BILDUKO KIDEA ETA
ZINEGOTZIA
OÑATI

Ohituta gaude honezkerok, bai aurreko agintaldian eta baita oraingoan ere, EAJk sistematikoki EH Bilduko Udaltaldeak, Udaltaldeak, Udaltaldeak, Gobernuak, proposaturiko

proiektuetan kontrako jarrera ikustearekin.

Hondakin bilketa sistemaren kontra, San Martingo plan berriaren kontra, Eltzia proiektuaren kontra... eta agintaldi honetara etorrira, berdintsu jarraitu dute: aparkaleku sistema berriaren kontra, Atzeko kalea oinezkoentzat jartzearen kontra, kale garbiketa zerbitzua Udaltalde berreskuratzeari kontra, eta, nola ez, 2017ko Udaltalde Aurrekontuetan ere beraien bozka: kontra.

Hau horrela izanik ere politikan gerria izatea ohikoa den heinean, talde politikoko bakoitzak bere mezua helarazten du momentu bakoitzean, bere irizpideen baitan, momentuko egoerak eskatzen duen neurrian. Hori ulergarria da, zilegi da. Gerria izatea, alegia.

Beste kontu bat da aurpegia izatea. Aurpegia behar da norberak egin edo proposatu

ez dituen horiek norberaren zakuan sartzeko.

Berriki jakin dugu sare sozialetatik, Oñatiko EAJk adierazita, 2017ko Aurrekontuan martxan jarritako sozioekonomiako *Co-work* gunea, frontoiko argiak, Ur Uhinak parkea... beraiei esker jarri direla martxan. Beraiek kontra bozkatutako aurrekontuari esker, alegia.

Nik dakidala, EH Bilduk bere agintaldiko Gobernu programan argi azaldu zuen sormen eta ekintzailetasunerako gunea abian jarriko zuela. Frontoiko argiak? Arazerixan prozesuan herriko haur eta nerabeei proposatu zituzten Udaltaldeari, nik dakidala. Eta ur txorrotak? Bai, ur txorrotak aipatu zituzten EAJk, baina non, nola, zein modutan... inolako proposamenik gabe. Udaltaldeak, Paisaia Plan baten baitan, galdutako parke bat balioan jarri eta proiektu oso bat

aurkeztu zuen. EAJk begi onez ikusi ez zuena; "Zentralitatea" falta zitzaiolako edo. Arrakasta izan duela ikusi dutenean, badirudi "zentralitatea" aldatu zaiela. San Lorentzoko konpost-gunea zegoen lekutik kentzeko proposamena beraiei eskerrak etorri da, bai; jarri zen hurrengo egunean eskatu zenuten jada kentzeko.

Ulertu nahi dugu desesperazio puntu bat baduela jarrera honek. Oñatiko EH Bilduk bere agintaldiko programa izango du bere udal jardunaren oinarri nagusi, eta, betiko moduan, ekarpenetarako zabalik ditu ateak, kolore guztietako herritarrenak eta baita EAJ taldearenak ere. Gobernuaren egonagatik ere oposizioko taldearen laguntza beharrezkoa dela argi dugu EH Bildun, herria denon artean egingo dugulako. Baina modu arduratsuan, mesedez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta notortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Olatara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

**ABOKATUAK****BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /**NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK**BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Irudian ageri den Alfonsu X Jakintsua plaza, oinezkoentzat izatea proposatzen du Ekoboulevard proiektuak. XABI GOROSTIDI

Grupo San Juan birplanteatzera

Ekoboulevard proiektuak bidegorri sarea ezarri nahi du Etxaluze eta Zigorrola artean, eta aldaketa sakona ekarriko luke Grupo San Juanen: aparkalekuak egoiliarrentzat izango liriateke eta Alfonsu X Jakintsua plazan zirkulazioa kenduko luke

Xabi Gorostidi ARRASATE

2018ko aurrekontu proiektuan 40.000 daude aurreikusita *Ekoboulevard* egitasmoa diseinatze-ko; oinezkoei eta bizikletadunei lehentasuna emateko asmoz diseinatu nahi den proiekturako, alegia. Argi utzi behar da egitasmo bat dela, oraindik puntuz puntu zehazteke eta definitzeke dagoela, eta, ziurrenik, ez dela legealdi honetan martxan jarriko. "Aurrez egindako *Etxaluze-Musakola* bidegorri proiektuaren barruan txertatzen da, eta datozen hamar urteetarako Mugikortasun Planaren barruan dago sartuta", azaldu du Ibon Arrupek, Hirigintza zinegotziak.

Aldaketak Grupo San Juanen

Bidegorria eta erreka ditu ardatz proiektuak, baina aldaketa nabariak ekarriko lituzke Grupo San Juan aldean. Alfonsu X

Jakintsua plazan zirkulazioa ezabatzea planteatzen da, eta hango aparkalekuak kendu.

Horrez gain, Grupo San Juanen beste bi aparkalekuak, Iparragirre plazakoak eta Jose Maria Egurengoak, auzoko egoiliarrentzat izatea aurreikusten da. "Aparkalekuekin planteatzen den aldaketa Mugikortasun Planean aurreikusten den TAO sistemaren barnean dago sartuta. Auzoko kideek aparkatzeko zailtasunak dituzte aspalditik. Hori konpontzea eta oinezkoentzako espazioak irabaztea da lortu nahi dena".

GRUPO SAN JUANGO APARKALEKUAK EGOILIARRENTZAT IZATEA PLANTEATZEN DU PROIEKTUAK

Bidegorri sarea

Proiektu horren bidez San Andres eta Zigorrola auzoak lotuko dituen bidegorri sarea ezarriko lituzateke, herria Oñatirekin, Bergararekin eta Aretxabaletarekin lotuko lukeena.

"Etxaluzetik Garibairainoko zatia Kontzezino kaleko errepide albotik egingo luke bidegorriak, ziurrenik, Kontzezino espaloia eta errepidearen artean", azaldu du Ibon Arrupek. "Garibain, bidegorria Iturbide egoitzaren aldean dagoen autobus geltokitik joango lituzateke. Maalarainoko zatia, aldiz, egun autobus eta taxientzat mugatuta dagoen tokitik egingo luke, zati hori oinezkoentzako eta bizikletentzako mugatuz".

Maalatik Zigorrolaraino Gipuzkoa etorbideetik jarraituko luke bidegorriak, kale horretan dagoen Udal Biltegitaraino.



Erreka alboan dagoen San Bixente Ferrer kalearen attea. X. G.

Erreka alboan jendearendako lekuak

Maalako birbilguneetik Zaldibarrerantz doan erreka zatian ere izango du eragina Ekoboulevard-ek. San Bixente Ferrer eta Mapfre ondoko errepideak oinezkoentzat izatea planteatzen du, erreka alboko paretara kenduta, jendea egoteko espazioak egokituta.

Biteriren estatuaren aldaketa

Pedro Biteri izan da Arrasatek izan duen ongile ospetsuenetakoa, eta haren omenezko estatua bat dago Grupo San Juanen, Alfonsu X Jakintsua plaza erdian.

Arrasate Zientzia Elkartekoen iritziz, Biteriren omenezko estatua ez dago leku aproposan, eta haren izena duen Biteri kalean kokatzeko eskaera egin dute, Zaldibarrera heltzen dagoen belardian, hain zuzen.

"Egun dagoen tokian ez da apenas ikusten. Leku irekiagoan jartzea nahiko genuke, jende guztiak ikusteko moduan. Arrasateko ongile handiena izan zen, hark finantzatu zituen Zaldibarko frontoia, Biteri Eskolak, Merkatu Plaza eta Garibai etxea bera, eta leku duinagoa merezi duela uste dugu".



Oinezko bat Garibaiko zebrabidea gurutzatzen, eta atzean autobusa. X.G.

Garibaiko zatia oinezkoentzat

Gaur egun garraio publikoei mugatuta dagoen zatia oinezkoentzat eta bizikletentzat izatea planteatzen da. Horrez gain, Garibaiko zirkulazioa noranzko bakarrekoa izango lituzateke. Autobusak Kontzezinoetik sartu eta Biterira joango liriateke, noranzko bakarrean.

Ospitale ondoko putzua, konponbidetik gertuago

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Visesa enpresa publikoak dauka, 2007a ezkerro, han etxebizitzak egiteko ardura. Momentu honetan, 216 etxebizitza egiteko aukera berraztertzen ari da, horietako gehienak alokairura bideratuta

Xabi Gorostidi ARRASATE

10 urte beteko dira, laster, Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Zerrajerako D partzelan etxebizitzak egiteko akordioa sinatu zutenetik. Baina babes ofizialeko etxebizitzak ez dira egin, eta partzela putzu erraldoi egoeran dago, intsektu eta higie arazoekin.

Etxebizitza Sailak eta Udala Gobernuak lan bilerak egin dituzte azkenaldian, eta akordioa gertu daukate esparru hartan babes ofizialeko 216 etxebizitza egin ahal izateko.

Etxebizitza Sailak azaldu duenez, egun indarrean dagoen Etxebizitza Legeak behartuta, egingo diren 216 etxebizitza horien gehienak alokairura bideratuko dira. "Visesa, une honetan, sustapena bideragarria ote den aztertzen ari da. Hiru egoitzako blokeetako lehena sustatzeko aukera planteatzen ari da, sustapen bikoitza ezarrita: batetik, babes ofizialeko etxebizi-



Ospitale ondoko D partzelaren egoera gaur egun. XABI GOROSTIDI

tza salmentan; bestetik, babes ofizialeko etxebizitza alokairuan".

EH Bilduri erantzuna

Irailean, Arrasateko EH Bilduk partzela horren egoerari buruzko azalpenak eskatu zizkion

Etxebizitza sailburuari eta haren erantzun ofizialaren bitartez jakin dute egoera desblokeatzeko gertu dagoela.

"Jaurlaritzak dio oraingo legegaldian desblokeatu dutela putzuaren partzelako gaia. Uda-

leko oposizioan ez dakigu ezer ofizialki horri buruz, eta susmoa dugu agintean den kolore politikoaren arabera jokatzeko duela Jaurlaritzak. Hori onartezina da EH Bildurentzat".

Udaleko Hirigintza Sailak adierazi du lan-bilerak egin dituztela azkenaldian Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin. "Bilera emankorrak izan dira, baina oraindik ez dugu akordio ofizialik lortu".

Hamar urteko blokeo egoera

2007ko abenduaren 21ean konpromiso akordioa sinatu zuten Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eta Arrasateko Udalak Zerrajera 2 eremuan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko.

5.274.594,63 euroren truke adostu zuten udal jabegokoak ziren D eta F partzelak Jaurlaritzari ematea; F partzelan alokairurako 108 etxebizitza egiteko eta D partzelan, egun putzua dagoen partzelan, saltzeko 216 etxebizitza egiteko, azalera-eskubidean.

Baina D partzela ez aurrera ez atzera egon da urte hauetan zehar, bi arrazoi nagusirengatik: etxebizitzetan egin beharreko lurpeko aparkaleku kopuruagatik eta azken bi udal gobernuek etxebizitza horiek alokairura bideratzeko egindako eskariengatik.

"Aurreko bi legegintzaldietan zehar Udalak ez dio Etxebizitza Sailari sustapen hori hitzartutako baldintzetan egiteko auke-

rarik eman. Bestela, honezkero eginda legoke", azaldu du Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak.

Arrasateko EH Bilduk erantzun du esanez alokairuan egiteko eskatu izan arren, Jaurlaritzak eskubidea izan duela etxebizitza horiek hitzartutako baldintzetan eraikitzeko. "Eusko Jaurlaritzak gainetik kentzen du erantzukizuna gaiari buruz eta ANVren eta Bilduren legegaldietako udalbatzei errua egozterakoan. 2007ko abendua ezkerro hitzarmen bat dago indarrean Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren artean partzela horri buruz. Lurzoru eskubidean, etxebizitzak erregimen ezberdinean egin daitezke, salmentarako edo alokairurako, baina Jaurlaritzak ez du eskubide hori gauzatu".

Alokairu eskaria handiago da

Jaurlaritzaren erantzun ofizialean, Arrasaten etxebizitza lortzeko Etxebiden jasotako eskariak zehazten dira. 587 lagun dira guztira, 439 Arrasaten erroldatutakoak eta 148 Arrasatetik kanpokoak. Horietatik 488k alokairu erregimenean egin dute eskaera; eskatzaileen %83,13k, alegia.

ARRASATEN ETXEA ESKATU DUTENEN %83,13K ALOKAIRU ERREGIMENEAN EGIN DUTE ESKAERA

"Promozioak bidaltzeko aukera oso erabilgarria da nire kasuan"

ESTIBALIZ ETXABURU PROMISE DENDA

Lentzeria du Arano eta Garcia Maisu-Maistrak 8an

X.G. ARRASATE

Merkatari-ren trenera igo berri da Etxaburu, eta begi onez ikusi ditu aplikazioak eskaintzen dizkion abantailak.

Nolakoak izan dira Merkatari-rekin izan dituzun lehen esperientziak? Esperientzia jaioberria dela esan daiteke. Duela gutxi hasi gara erabiltzen, eta oraindik bezero kopuru txiki bat animatu da hura probatzera. Egin dutenek oso balorazio positiboak egin dituzte, eta hori da garrantzitsua. Baina, esan bezala, oraindik

goizegi da balorazio sakona egin ahal izateko.

Erraz moldatu dira bezeroak aplikazioarekin?

Bai. Ez da zaila erabiltzeko. Nire kasuan, bezero askok 50 urte baino gehiago dituzte, eta teknologia kontuetan estu dabilta, orokorrean. Baina Internetez erosteko ohitura duten horientzat, oso erraza da erabiltzeko. **Merkatari-k hainbat funtzio eskaintzen ditu: txata, promozioak bidaltzeko aukera, bilaketak... guztien artean, zein da, zure iritziz, erabilgarriena?**



Promise dendako Estibaliz. XABI GOROSTIDI

Nire iritziz, promozioak bidaltzearena. Erosteko eta saltzeko moduak aldatzen ari diren honetan, oso garrantzitsua da gure promozioak erraz helaraztea. Dendatik igaro gabe ere, gure produktuen berri izate hori.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Zibilak

Arrasaten zibilak behar dira. Ezaguna dut Martuteneko okina. Urtero, Pilarika egunaren inguruan, sekulako dirutza sartzen du bere patrikan. Bera da malapartatutako Intxaurrondo kuartererako jaiegun horretan 2.000 opil baino gehiago egosten dituen.

Aurten, eguna bazetorren, lanean hasita zegoen, eta, zibilek deitzen ez zutelako, berak telefono hartu eta komandantziara deitu zuen; hara, bere haserre, bertatik esan ziotenean aurtengo festa kenduta zegoela "la tropa está en Cataluña" telefonoz beste aldetik esan ziotenean.

Ez, ez nabil esaten Arrasaten txapel okerren beharrik dagoela, ez. Behar duguna zera da: hileta zibilak. Gaia ondo ezagutzen dut. Orain arteko hiletak edo elizkizunak *militarrak* edo batere ezekoak izaten dira. Eta badator garaia, ailegatzeko ari da, non eta hileta zibilak beharrezkoak izango diren: ondo landuak, goxoak, bakoitzaren kontzientziaren errespetuan, erosoak...

Bizilagun batzuek (*civis*) gaia mahai gainean ipini nahi dute. Merez du.

"Politika ez da esker onekoa politikariekkin"

PACO GARCIA ARRASATEKO PSE-EE-KO IDAZKARI OHIA

Zazpi legealdiren ondoren, 2015ean zinegotzi izateri utzi, eta Arrasateko PSE-EEko idazkari orokor gisa aritu da domekara arte, politika alde batera uztea erabaki ostean

Xabi Gorostidi ARRASATE

30 urte politikako arduetan murgilduta pasa ostean, bere ibilbidea amaitutzat ematea erabaki du Paco Garciak.

Zerk bultzatu zintuen duela 30 urte politikaren munduan sartzea?

Zinegotzi izan aurretik Alderdi Sozialistako kide nintzen, eta bizitza osoan politika usaindu izan dut nire familia eta lagunartean. Baina maila publiko horretara saltoa egiteko arrazoia Enrique Casasen heriotza izan zen. Era horretako gertakariak ez gertatzeko zerbait egin behar nuela sumatu nuen.

Nola gogoratzen dituzu zinegotzi karguan hastapenak?

Garai horiek, akaso, ez ziren gogorrenak izan, baina zinegotzi sozialista gisa jazarpena hasieratik bizi izan nuen. Bazezgoen bakea nahi zuen jendea, eta bakerik nahi ez zuena. Momentu gogorak pasa ditut, baina harro nago botoa eman didaten herritarrek ordezkatu izanagatik.

Zure momenturik latzena eta gozoena 30 urte hauetan?

Bada, zaila da latzena aukeratzea momentu txar horien guztien artean. Gertutasunagatik, Isaias Carrascoren eta Froilan Elexperen eraiketak, baina beste guztiak ere oso lazarriak izan dira. Eta momenturik gozoenak, nire ustez, Arrasateko herritarren ordezkaritza izatearekin lotuta daudenak. Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan aritutakoa naiz, baina gehien ase nauna, eta gehien irakatsi didana herri mailako politikagintza izan da.

Zein izan da herri mailako politika hori egitetik atera duzun ikasgaiak baliotsuena?

Gauza asko ikasten dira. Esate baterako, politikari izateko zintotasuna behar dela. Eta beste ikasgai bat, politika ez dela esker onekoa politikariekkin. Herritarren alde gauzak egin arren,



Paco Garcia, Arrasateko parke batean eserita. XABI GOROSTIDI

"OSCAR ERREALISTA ETA PRAGMATIKOA DA, ETA NI BAINO HOBETO PRESTATUTA DAGOELA USTE DUT"

30 urteko ibilbidea

Arrasateko Udalean

- 1987-1991 legealdia.
- 1991-1995 legealdia.
- 1995-1999 legealdia.
- 1999-2003 legealdia.
- 2003-2007 legealdia.
- 2007-2011 legealdia.
- 2011-2015 legealdia.

Foru Aldundian

- 2003-2009 urteetan

Eusko Jaurlaritzan

- 2009-2012 urteetan

1987-2017.

- Komite nazionalako kide.
- Gipuzkoako batzorde exekutiboko kide.

esker oneko hitzak nahiko urriak izaten direla, alegia.

Aktualitate kontuei begiratuta, nola ikusten duzu Arrasaten PSE-EEk eta EAJk osatzen duten Gobernuak?

Nire ustez, Arrasateren bakezale baten aldeko gauzak egin dituzte, Gobernuak osatzeak dakartzan zailtasunak kontuan izanda. Askotan aipatu dudana pedagogia politikoa ahalbidetu dute, gaur egun oso garrantzitsua dena udalbatzako alderdi guztien artean adostasunetara heltzeko.

Zure azken kargua Arrasateko PSE-EEko idazkari orokorrena izan da, eta zure seme Oscarrek hartuko du testigua. Zertan ezberdintzen zarete politikari gisa?

Gauza askotan. Hura ere oso gazte sartu zen Alderdi Sozialistan, eta esperientzia dauka Eskoriatzan egindako zinegotzi ibilbidearekin. Errealista da, pragmatikoa da, eta ni baino hobeto trebatuta dagoela uste dut. Eta bertute bat du: ez diola aitari kasurik egiten, bere irizpideari baizik.

Politika alde batera utzi arren, norbaitek aholkua eskatuz gero, zer?

Eskatuz gero, beti egongo naiz nire esperientzia eta iritzia partekatze prest, hori ziur.

Bi urtetan 80.000 euro erabili ditu Udalak pintaketak kentzeko

Herritarrek BAZen jarritako kexen artean, jabeekideen erkidegoenak eta dendarienak ere azaldu dira

X.G. ARRASATE

Hori izan da azken bi urteetan Arrasaten egin diren pintaketak kentzeak izan duen kostua, eta azken hilabeteen egindakoak kentzeko 5.000 euro bideratu berri dira.

"Herritarren eta alderdi politiko guztien elkarlana" eskatu du Udal Gobernuak, "guztion artean Arrasate atseginago eta garbiago baten alde egiteko".

Pintaketek, garbitasunaren aurka egiteaz gain, herriko ondarea kaltetzen dutela adierazi dute. "Herriko elkarteek eta eragileek, adibidez Arrasate Zientzia Elkarteak, lan eta esfortzu handia egiten dute gure herriko erakargarritasun eta balio horiek ezagutzera emateko eta indartzeko, eta asteburuz asteburu egiten diren pintaketek esfortzu hori guztiori zapuzten dute".



Pintaketa bat Arbolapetan. X. GOROSTIDI

BAZen jasotako kexen harira, zera azaldu du Udal Gobernuak. "Salto kualitatibo bat egon da, eskaerak herritarrez gain, jabeekideen erkidegoek eta dendariak ere egin dituztelako. Pintaketak ezabatzeaz gain, arazoa errotik konpontzea eskatzen dute".

Seigarren 'Iragana astintzen' zikloa aurkeztu du AZEK

Kulturaren egingo dituzte denak, 19:00etan hasita.

Lehenean, azaroaren 8koan, XVII. mendean Garagartzan izandako tailer artistiko bat izango dute hizpide. Ondorengo hiru saioetako gaiak askotarikoak izango dira: Gipuzkoa Eskola Genealogikoa, I. Karlistaldia Euskal Herrian eta Arrasateko Sola jauregia.

Erorketak saihesten ikasteko tailerra azaroaren 7an

Euskal Autonomia Erkidegoan, 64 urtetik gorakoaren artean erorketak dira lesio gehien eragiten dituzten ezbeharrak.

Hori ikusita, Udaleko Gizarte eta Kirol zerbitzuek tailerra antolatu dute, elkarlanean, erorketak saihesteko helburuarekin. Hitzordua Etxaluze erretiratu etxean izango da azaroaren 7an, 16:00etatik 18:00etara.

EH Bilduren oharra Arrasate Musikaleko finantziarioari buruz

Arrasate Musikalen finantziarioan Eusko Jaurlaritzaren ekarpena handitzeko eskaera egin du EH Bilduk.

Momentu honetan, Arrasateko Udalak ikasleen kuotaren %35 jartzen du, Jaurlaritzak %21 eta gainontzeko % 44a ikasleek edo haien gurasoek.

"Jaurlaritzak Arrasate Musikalen %21 soilik finantzatzea ez

zaigu bidezkoa iruditzen. Musika sarbidea unibertsala izan beharko litzateke arrasatearrentzat eta dirua ez litzateke oztopo izan behar".

Europar, herrietako musika eskolen finantzaketa eremuan udalek herena jartzen dute, gobernuak herena eta ikasleek herena. 2006ko urriaren 11n Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordeak aho batez ez-legezkoa zen proposamena onartu zuen, finantzaketa eredu hori lortzeko asmoz.



Eguaztenean egin zuten Ointxe!-ko talde argazkia, Iturripen. BITTOR MUNARRIZ

Taldeak aurkeztu ostean, bigarren garaipena

2017-2018 denboraldian ariko diren talde guztien aurkezpena egin du aste honetan Ointxe!-k, Iturripen; aurkezpenaren ostean jokaturiko partiduan, aurtengo bigarren garaipena eskuratu MUK, Gimnastica Sport-Cafe taldearen aurka (73-70)

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eguaztenean egin zuten Ointxe! Saskibaloi Kirol Elkarteak aurtengo denboraldiaren aurkezpen ofiziala, eta kategoria ezberdinetan arituko diren jokalarien eta taldeen argazkia atera zuten.

300 jokalaritari inguru ditu Ointxe!-k denboraldi berri honetarako, 27 taldetan banatuta: 120 jokalaritari daude Saski Eskolan -horietatik, erdiak neska-; Euskal Ligan hiru talde; Gipuzkoa mailan, errendimenduko sei talde infantiletan, kadeteetan eta juniorretan eta senior mailan hiru talde: EBAn, maila probintzialean eta hirugarren maila probintzialean. Guztira, 40 entrenatzaile arituko dira.

Bigarren garaipena

Taldearen aurkezpena egin ostean, partidu garrantzitsua jokatu zuten Iturripen, Gimnastica Sport-Cafe aurkari zuzenaren aurka, eta, asko sufritu ostean, garaipena etxean gelditu zen (73-70).

"Lehen laurdenean oso ondo jokatu dugu eta ia 20 puntuko aldea lortu dugu. Hala ere, euren estrategia aldatu eta zonako defentsa erabiliz, zalantza asko eragin dizkigute. Hala ere, irabaztea lortu dugu, eta hori da garrantzitsua, aurkari zuzena da eta", azaldu du Josu Larreategik, MUKo entrenatzaileak.

Defentsako lanaren garrantzia azpimarratu du Larreategik. "Askos intentsitate handiagoa

nabaritu diet gaur jokalariei defentsan, eta hori izan da gaikoetako bat", dio.

Domekan, Pielagosoren aurka

Hurrengo partidua etxetik kanpo jokatu dute arrasatearrek, Pas Pielagos taldearen aurka, domekan, 18:00etan. "Eskarmendu handiko taldea da. Etxean jokatzen dutenean oso indartsuak dira, eta oso zaila da haiei irabaztea. Gainera, dinamika onean daude, sailkapenaren goiko aldean. Hala ere, azken garaipen honek indarra eman digu. Horrenbestez, gure jokoa egitera joango gara eta ea partidu ona egiten dugun", nabarmendu du taldeko entrenatzaileak.

Getxo Artea taldea hartuko du etxean Kanpanzar ARTk

Pasa den astean jipoi jaso zuten arrasatearrek Escor Gaztedi taldearen aurka, Gasteizen. Hasieratik gizon bat gutxiagorekin aritu ziren eta atsedenaldira 8-3 joan baziren ere, azkeneko 44-3 galdu zuten. Asteburu honetan, Getxo Artea izango dute aurkari Igor Isasiren mutilek. Domekan izango da partidua, 12:30ean, Mojategin.

Lehen garaipena lortzen saiatuko da Mondrate bihar

Baja ugari izaten ari da Mondrate denboraldi hasiera honetan, eta horren ondorioz, lehen lau partiduak galdu ditu.

Asteburu honetan lehen garaipena lortzen saiatuko dira arrasatearrek, Mallabia Seguros Antaldi taldearen aurka, pixkanaka gorantz egiten hasteko helburuarekin. Bihar jokatuko dute, 17:30ean, Musakolan.



Behean aipaturiko lau jokalariek. OINTXE

Hamabi jokalarik, selekzioekin

Euskadiko Txapelketan, Ointxe!-ko hamabi jokalarik aritu dira Gipuzkoako eta Arabako selekzioekin. Kadete mailako Gipuzkoako neska txapelketan, Ointxe!-ko lau jokalarirekin: Irene Murua, Haizea Apellaniz, Naia Badiola eta Isabel Mbomio.



Saski Eskolako neska-mutikoak. OINTXE

Mondragon Lingua babesle

2017-2018 denboraldian ere Mondragon Lingua izango da Saski Eskolaren babesle nagusia. "Harrobiarekin egiten dugun lana azpimarratu du Mondragon Lingua, eta benetan eskertu nahi diogu emandako laguntza", azaldu du Oihane Agirre presidentek.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate

"Abesti zaharrak eta sei berri dauzka diskoak"

HODEI BEITIA ARKADA SOCIALEKO ABESLARIA

1997an ekin zion bideari talde arrasatearrak, eta hogeitaz hamar urte hauetan pilatutako abestiak eta esperientziak batuko dituen lan berria plazaratzeko gertu daukate

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bizitzako edozein erlaziotan bezala, musika taldeetan momentu onak eta txarrak daude. Hori kontuan izanik 20 urte betetzea marka esanguratsua da, eta hori ondo dakite Arkada Socialeko kideek.

Des-kontrolen entseguak ikustetik sortu zen Arkada Social. Zer aldatu da ordutik hona?

Egia esan, taldeko kideak ez dira asko mantendu, adibidez. Aldaketa asko egon dira hogeitaz hamar urte hauetan, baina, nire ustez, normala da, musika taldeetan asko gertatzen delako. Aldaketak, gainera, hoberako izan direla esango nuke. Norbaitek taldea utzi izan duenean zailtasunein aurre egin behar izan diegu, baina aurrera egitea lortu dugu. Hasieran daukazun ilusio hori ere aldatzen doa. Orain, ilusiorik ez zaigu falta, baina beste ilusio mota bat da, hasierakoarekin alderatzen baduzu.

Aldatu diren gauzak aipatu dituzu, baina tarte honetan zer da mantendu dena?

Gure pentsatzeko modua. Pentsaera eta gure gauzak espresatzeko beharra ez da aldatu.

Lan berria daukazue esku artean: 20 urte eromena besarkatzen. Zer aurkituko dute bertan zaleek?

Hasierako ideia gure aurreko bost diskoetatik abesti batzuk aukeratzea eta bilduma bat egitea zen, disko bakoitzetik hiru abesti hartuta. Baina, horrez gain, abesti berriak ere sartu nahi genituen, abesti bilduma bat edozeinek egin baitezake etxean. Hiru abesti berri egiteko asmoarekin hasi ginen, baina, azkenean, sei izan dira. Horien artean dago *Represión policial* abestia, orain dela 18 urte egin baina sekula grabatu ez duguna.

Ibilbide musikaren errebaso aingozuzue, baina lan berriak izango du urte hauetako bizipenezako tarte ere?



Hodei Beitia, Arkada Socialeko abeslaria. IMANOL SORIANO

"TALDEKIDE ALDAKETA ASKO IZAN DITUGU, BAINA, ZAILAK IZAN ARREN, ONERAKO IZAN DIRA"

Diskoek beti izaten dute liburuxka bat barruan, abestien letrekin edo argazkiekin. Kasu honetan, liburuxka diskoari itsatsita joango da, barruan urte urte pilatu ditugun argazkiak, bizipenak eta anekdotak batuko dituena. Denetarik izango du.

Atera zenuten DVDaren antzera? Bai. Taldeak hamar urte egin zituenean DVDa ateratzeko aukera suertatu zitzaigun, eta sekulakoa izan zen. Oraingoan, liburu formatuan dator, baina beste hamar urte hauetako esperientziak batuta.

Badakizue urte hauetan zenbat kontzertu eman dituzuen?

Bada, ez. Hainbeste dira eta... Zaila da kontatzea, ez dugulako maiztasun finko bat izan kontzertuei dagokienez. 2003 eta 2006 artean gelditu egon ginen, eta 2010era arte ez genuen horrenbeste kontzertu ematen.

Handik aurrera, urteko kontzertu kopurua hazten joan zen, eta *Hil orduko bizi* diskoarekin 40 kontzertu eman genituen urte bakarrean. Bitxia da hamasei urte igaro direla Euskal Herri-tik kanpo jotzeko aukera izan dugunera arte. Estatuan zehar, Frantzia eta Alemanian jotzeko aukera izan dugu azkenaldian, eta oso esperientzia onak izan dira guretzako.

20 urte. Zenbat gehiago?

Auskalo. Azken diskoaren estresarekin... nigatik, gaur bertan utziko nuke. Kar-kar.

Ingelesa eta literatura aldi berean uztartzeko jardunaldia

'Literary Gatherings' saioak antolatu ditu Bibliotekak, hiru libururi buruz ingelesez hausnartu ahal izateko

X.G. ARRASATE

Bibliotekaren Eguneko emanaldiak amaitu berritan, proposamen berri batekin dator Udal Biblioteka. Shakespeareren hizkuntza ardatz hartuta, *Literary Gatherings* izeneko jardunaldiak antolatu dituzte, liburu zaletasuna eta ingelesa aldi berean uztartzeko.

Hiru saio izango dira, guztira, 18:30ean hasi eta 20:00etan amaituko dira. Horietako lehena azaroaren 28an egingo da, eta bertan, azken Nobel saria eskuratu duen Kazuo Ishiguro idaz-

learen *Never let me go* liburuaren inguruan jardungo dute. Bigarrena urtarrilaren 30ean izango da, eta Ray Bradburyren *Fahrenheit 451* lana izango dute aztergai. Azkena martxoaren 20rako dago antolatuta, eta Margaret Atwood-en *The Handmaid's Tale* lana aztertuko dute.

Olwen Mears gidari

Hiru saioak gidatzeko ardura Olwen Mears kazetariak izango du. Londresen jaio arren, Euskal Herrian bizi da, eta EITBrentzat egiten du lan.

Itsaso Larrauri arrasatearren lehen eleberria salgai da

Abadiñon jaio eta Arrasaten bizi den Itsaso Larraurik lehen eleberria idatzi berri du. *Verte más que respirar* du izena, eta gaur egingo du aurkezpen ekitaldia Abadiño Txaporta kultura etxean, istorioa girotuta dagoen herrian, hain zuzen.

Chiado editorial portugaldarrarekin kaleratu du, idazle hasiberrien aldeko apustua egin baita argitaletxeak. Liburua eskuratu nahi dutenek argitaletzeko webgunera jo dezakete *on line* erosteko. Baina Arrasateko Elkar liburu dendan ere egin daiteke eskaera. Herriko beste lekuren batean saltzeko ahaleginetan dabil, baina oraindik ez du zehazterik izan.

Rapa eta feminismoa hurrengo Koolturen La Furiaren eskutik

Nerea *La Furia* (Cascante, 1983) rap musikaria izango da Kooltura Ostegunetako oholtzara igoko den hurrengo artista.

Bere azken lana besapean delako etorriko da bueltan Arrasatera, aurretik ere izan baita Arrasateko gaztetxean, Kooltura Ekimenak gonbidatuta.

Vendaval du izena irailen egin duen bigarren lanak, Arrasateko Shot! estudioetan grabatutakoa. "Kooltura Ostegunak zikloan jo nuenean, Arrasateko jendeak txunditu egin ninduen eta ordutik hona Arrasaterekin daukadan harremana pertsonala dela esan daiteke", esan du aste honetako *Puntua*-n egin dioten elkarrizketan.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke



Urkulu urtegia eta inguruak, urrian. MIRARI ALTUBE

Urak eramandakoak bistaratzeko ibilaldia

Loramendi elkartearen toponimia taldeak antolatuta, Urkulu urtegiaren inguruko txokoak ezagutzera joango dira azaroaren 11n; aurretik, hilaren 9an, ibilbideko argazkiak erakutsiko dituzte, eta leku-izenen azalpenak eman udaletxe zaharrean

Mirari Altube ARETXABALETA

Urak eramandako bideak izenarekin, mendi ibilaldia antolatu du Loramendi elkarteak azaroaren 11rako. Iragarri dute Otalorako aparkalekuan elkartu (09:00) eta lau ordu inguruko ibilaldia izango dela urtegiaren bueltan, urak estalita egon izan ohi diren txokoak ikusita.

Hori baino lehen, datorren egunean, azaroak 9, ibilbidea bera aurkeztuko diete herritarrei, eta hainbat argibide eman. Argazkiak eta ortoargazkiak erakutsiko dituzte orduan, eta inguru hartako leku-izenen azalpenekin osatu. Udaletxe zaharrean izango da aurkezpen ekitaldi hori, 19:00etan.

Argazki zaharrak

"Toponimia kontuetan gabiltzanok Loramendi elkartearen Aretxabaletako toki askotako izenak jasotzen gabiltza, eta dagoeneko urtegiako urak ezkutaturako paraje askorenak ere jasota ditugu", azaldu du Julen Abasolok, toponimia taldeko kideetako batek. Horren berri, baina, zelan eman

eta zelan erakutsi izan dute kezka, eta, urtegiako ur maila oso behean dagoela ikusirik, horixe aprobetxatu gura dute: "Hainbat paraje eta etxe hondar agerian daude, hori aprobetxatuta, ur azpian gelditu ziren bide horietatik ibiliko gara hango kontuak kontatuz".

Urtegia eraikitzean, 1978an, desagertu zen hori guztia azaleratzea da helburua. "Gaur *Islie* esaten dioguna, benetan, *Arrua* edo *Torraldegain* edo *Olalde* aldeak ziren. Eta non zeuden Urkuluko errota, *Errotazahar* edo *Goikoerrota*? Eta *Siondo*, *Moxuena* edo *Florekue*? Azken bi horiek guk geuk ere oraintsu ikasi ditugu". Horretarako, garai hartako argazki zahar batzuk erakutsiko dituzte, baita Geoeuskadi *-geo.euskadi.eus-* webgunea erabili ere.

Sei kilometroko ibilaldia

Azaroaren 11n, zapatua, urak gordeta izan ohi dituen bide horietan ibiliko dira. Lau orduko ibilbidea iragarri dute, baina ez bidea luzea delako: "Sei kilometro bakarrik izango dira, eta oso aldapa gutxirekin. Horretarako ez da hainbeste denbora behar, baina lau ordu jarri ditugu, kontu asko ditugulako kontatzeko", argitu du Abasolok, eta gaineratu: "Paraje horietatik alde egin zuen jendea gogoan izango dugu, eta pasarte asko kontatzea da asmoa. Kontu horiek jarriko dute saltsa".

Ibilaldiaren hasiera eta bukaera Otalorako aparkalekuan izango da, baina beste geldialditxo bat ere iragarri dute: Goroeta auzoko eliz-ondoa. "Eskolako kontuak izango ditugu han kontatzeko. Gainera, oker ez banago, laster desagertu egingo da eskola hori; hortaz, azken agurra izan daiteke. Horrekin batera, bertako taberna, bizartegia eta beste hainbat kontu izango ditugu berbetarako gai".

Gidari lanetan toponimia taldeko kideek jardungo dute, Abasolok berak eta Gorka Madinabeitiak, besteak beste, baina inguru haietako auzotarren laguntzarekin: "Geurekin izango ditugu garai haiek bizi izan zituztenak, bertakoak; ea euren ahotik entzuten ditugun kontu gehienak, guk dakiguna haiei entzundakoa da eta".

Dokumentala egiteko asmoa

Toponimia taldeko kideen asmoa da kontakizun horiek guztiak dokumental batean jasotzea. Izan ere, jakin badakite jaso ezean ahaztu eta ondorioz galdu egingo direla bai toponimia, bai hango bizimoduaren gaineko istorio horiek guztiak.

SEI KILOMETROKO IBILBIDEA EGINGO DUTE, KONTAKIZUNAK AUZOTARREN AHOTIK JASOTA

JOAN ZAIGU

Hunkituta agurtu dute herritarrek Hector Prieto Rosado

EH Bilduko zinegotzia, Alternatibako kidea, UDAko zalea eta ekintzailea urriaren 26an hil zen

M.A. ARETXABALETA

Mojen komentua izandako eraikeinean elkartu ziren astelehenean Hector Prieto Rosadoren senideak eta lagunak hura agurtzeko, eta haren bueltan herritar mordoa izan zen; aretoa lepo beteta eta kanpoan beste horrenbeste lagun. Udalbatzako kideek, Alternatibakoek, EH Bildukoek, UDAkoek, argazki artxibokoek, bocciaren elkarrekin jokaturako lagunak, kuadrillakoek... guztiak esan zituen agur, hunkituta.

Haren lanerako gogoia eta borrokarako indarra nabarmendu zituzten guztiak; besteak beste, kirolarekiko eta bereziki UDArekiko zuen zaletasuna, Aretxabaletari zion maitasuna eta historia kontuetan zuen jakintza.

Urriaren 26an hil zen Prieto, 34 urterekin, muskuluetako endekapenezko gaitz baten ondorioz. Gorputza moteltzen joan zitzaion, baina burua beti zuen bizkor, eta lanerako izugarriko gogoia. Bi blog zituen. Bata, historia kontuak



Prietori egindako agurra astelehenean. M.A.

jasotzen zituena *-historian lizentziaduna zen-*: *Rinconcito de los Sueños*. Eta bestea, UDAko futbol kontuen gainekoa: *Pasión Celeste*. 2015ean udal hauteskondee-

tara aurkeztu zen EH Bilduren zerrendan, baita zinegotzi kargua hartu ere, herriaren alde lan egiteko gogotsu; eta horretan jardun du bi urte pasatxoan.

Ingeniari teknikoei eta peoiei egin die dei Udalak

Bi peoi kontratatzeke dei egin du Udalak egunotan. Baldintzak dira, besteak beste, lanik ez izatea, Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea eta Aretxabaletan erroldatuta. Izena Lanbiden eman behar dute interesatuek.

Bestetik, ingeniari teknikoen lan poltsa osatu gura du Udalak, eta horretarako eskatu dute Ingeniaritza Teknikoa edo antzeko titulazioa izatea, eta, euskarari dagokionez, hirugarren hizkuntza eskakizuna. Izena udaletxean eman behar da. Izena emateko epea azaroaren 10ean bukatuko da bi kasuetan, eta oinarriak Udalaren webgunean daude *-Aretxabaleta.eus-*.



Gurasoak neska-mutikoeekin jolasean. CONTACTKIDS

Umeek eta gurasoek elkarrekin gozatuz

Kontaktu fisikoaren, mugimenduaren eta jokoaren bitartez komunikazioan sakontzea helburu duen egitasmoa bigarrenegingo egingo dute, oraingoan, Kukumiku eta Jaiki elkartearen laguntzarekin; azaroaren 8an izango da lehenengo saioa

Mirari Altube ARETXABALETA

Contakids metodologian oinarritutako ikastaroa antolatuko dute, bigarrenegingo, gurasoendako eta umeendako; 2 eta 5 urte arteko neska-mutikoak dituztenendako da, hain zuzen ere. Kukumiku elkartearen eta Jaikiren laguntzarekin abiaraziko dute, azaroaren 8an, eguaztena (18:00-19:00); sei saio izango dira.

Inprobisazioa oinarri

Ume koxkorak dituzten gurasoei astean "kalitatezko ordubete" eskaini gura diete antolatzaileek. Mugimenduaren bitartez harremana estutzea eta, era berean, norberarekiko eta elkarrekiko konfiantza sendotzea direla helburuak dio Zigor Lasagabasterrek, ekimenaren sustatzaileak: "0 eta 6 urte artean, betiko geratzen diren gauza asko sortzen dira. Hau oinarri hartuta, zergatik ez oparitu kalitatezko umeak gure umei? Gainera, gurasoek aukera izango dute umearekin inongo distraziorik gabe egote-

ko, elkarrenganako lotura hori lantzeko eta sendotzeko".

Inprobisazioa oinarri duen *kontakt* dantza du ardatz metodologiak, eta zehaztutako ariketak oinarri hartuta umearekin jolas egingo dute: "Bikote arteko kontaktu fisikoak pisu handia du, baita lurrian izaten diren ariketa-jolasek ere. Hori guztia musikarekin lagunduko dugu eta gurasoek umearekin goxoxo egoteko aukera ere izango dute". Lasagabasterrek berak gidatuko ditu saioak.

Talde berriak, ariketa berriak

Iazko denboraldiak emandakoarekin pozik agertu da Lasagabaster: "Pozik ibili ginen. Hamabost bat bikote pasatu ziren

AURREZ ZEHAZTUTAKO ARIKETAK OINARRI HARTUTA JOLAS EGINGO DU BIKOTEAK

saioretatik, eta bizitako umeak konpartitzea plazer handia izan zen". Aurten, taldea hazi egin da; izan ere, Jaiki elkarte kideek ere hartuko dute parte.

Hori horrela, denboraldi berriarekin talde berria osatuko dute, eta hortik nobedadeak etor daitezkeela dio: "Berritasunak taldearen arabera etorriko dira. Iazkoek jarraituz gero, poliki-poliki sartuko ditugu ariketa berriak. Bikote berriak etortzen badira, osterara, oinarritik hasiko gara eta joango gara taldearen erritmoa errespetatuz proposamen berriak sartzen. Oso garrantzitsua da taldea bere osotasunean entzutea eta errespetatzea, nork bere erritmoa du eta".

Kuartel zaharrean elkartuko dira saioetarako, eta izena emateko epea zabalik dute; hona bideak: farrebarre@gmail.com, 688 84 37 01 eta kukumikuelkarte@gmail.com. Prezioa 60 euro da -gurasoa eta umea, sei saioak-.

Hitzaldia, karta joko txapelketak eta gehiago Basotxoren eskutik

Zahartze aktiboaren gainean egingo dute berba egunean eta musean eta tutean jardungo dute egubakoitzean

M.A. ARETXABALETA

Lanean ekin zioten udazkenari Basotxo erretiratuen elkarteko kideek eta hala jarraituko dutela iragarri dute: "Lana eta umorea izan ditugu azken ekitaldian Kultura Astean eta Lodosako irteeran, esaterako. Eta orain, beste eskaintza batzuekin gatz", adierazi dute zuzendaritza batzordeko kideek.

Egunean, hilaren 9an, Rosi Rosado psikologoak zahartze aktiboaren gainean egingo die berba: *Zahartze aktiboaren erroak gehiago eta hobeto bizitzeko*.

Basotxoko aretoan izango da, 18:00etan. Egubakoitzean, ostera, tute (11:00) eta mus (18:00) txapelketak jokatu dituzte eta irabazleak eskualdeko txapelketarako sailkatuko dira; izena emateko azken eguna gaur da.

Azaroaren 17an, gaztaina-jana izango dute elkartearen bertan (18:00). Eta hilaren 18an, *La casa de Bernarda Alba* antzezlanak ikustera joango dira Bilboko Euskalduna jauregira. Izena emateko Basotxoko bulegotik pasatu behar da; azken eguna hilaren 10a da.



ETXERAT

Zuhaitz Errasti aske

Joan den egubakoitzean geratu zen aske Zuhaitz Errasti preso aretxabaleterra -argazkian, senideekin eta lagunekin-, eta, ordu txikitari iritsi arren etxera, ongietorri beroa egin zioten herrikideek. 2009an atxilotu zuten, Frantzian, eta 2012an zortzi urteko kondena ezarri zioten. Joan den martitzenean, Frantziako polizia Espainiakoen esku utzi zuen.

'Handia' filma dute helduek egunotan eta 'Emoji' umeek

Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako *Handia* filma dabilta ematen Arkupen (Euskal Herria, 2017, 114 minutu); hona hemen hurrengo emanaldiak: gaur (22:00), zapatuan (19:30 eta 22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, osterara, *Emoji* marrazki bizidunen filma (AEB, 2017, 86 minutu) izango dute gaur eta bihar (17:00).

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan. IMANOL BELOKI

2018ko aurrekontua, aurtengoa baino txikiagoa

2018ko aurrekontua 5.325.094 eurokoa izango da. Inbertsioetarako 100.000 euro inguru erabiliko dituzte, eta argiteria da inbertsio nagusia; Manuel Muñozeko berrantolaketa lanak laster hasiko dituzte, erabiltzaileen eskaerak beteta

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarreta Goiena telebistako *Harira* saioan izan da asteen, eta herriko hainbat gai izan ditu hizpide saioko aurkezle Eneko Azkaraterekin. Besteak beste, 2018ko aurrekontuak, egingo dituzten inbertsio nagusiak...

Eskoriatzako Udalaren 2018ko aurrekontua 5.325.094 eurokoa

izango da, aurtengoa baino %1 txikiagoa. Aurten, 5.359.298 eurokoa izan da, eta aurrekontuaren beherakada hainbat arrazoiengatik dela adierazi zuen alkateak: "Errealistak izan behar dugu; ezin dugu daukaguna baino askoz gehiago gastatu. Guretzat bada helburu bat, inbertsioetarako kopuru polit bat uztearena, eta aurreikusten di-

tugun ohiko sarrerak direnak, murriztu egingo zaizkigunak, batez ere, Edesa Industrialen egoera dela eta... Eskoriatzako langile kopurua murriztu egingo dute, eta zuhurrak izan nahi dugu. Bestalde, funtzionarioak hainbat urtez egon dira igoerarik gabe, eta, Estatuko aurrekontuen arabera, aurtengoa %1 izan da, ez zegoena aurreikusita, eta da-

torren urterako %1,5 izango dela aurreikusten da, egiten badira...". Hala, aurrekontua, urtea amaitu baino lehenago, onartu nahi dutela adierazi zuen alkateak, eta ekarpenak jasotzen aritu direla: elizate guztietan izan dira auzo-bilerak egiten, herrian bi bilera egin dituzte, eta, EH Bildu eta Elizateekin egonda, Irabazirekin egotea falta zaie.

Argiteria, inbertsio nagusia

Inbertsioetarako 100.000 euro inguru erabiliko dituztela adierazi zuen Zubizarretak, nahiz eta partidetan aldaketak egon daitezkeen. Aurten hasi diren argiteriaren proiektua bukatzea izango da inbertsio nagusia. "Espainiako Estatuko IDAeko laguntza bati esker heldu diogu aldaketari, baina ez da nahikoa izan. Beraz, bukatzeko, diru zati bat behar dugu. Bestalde, Huhezi unibertsitate ertzean, lehengo San Viator eraikin zaharretik Dorletara bidean, ez dago espaloirik, eta jarri beharra dago. Lete auzoan ez dago argirik, eta jarri egin beharko dugu".

Kiroldegiaren berrantolaketa

Lau asteko proiektua egingo da Manuel Muñoz kiroldegia berrantolatzeko. "Datorren astean edo bi aste barru hasiko ditugu lanak, eta erabiltzaileen artean egindako inkestan ateratako hainbat eskaera beteko ditugu: gimnasioa handitu, makineria gehiago sartzeko aukera emanez, eta abar".

Etorkizunera begira, kiroldegia handitzeko asmoa ere badutela adierazi zuen Zubizarretak, eta Diputazioarekin eta Jaurlaritzarekin negoziatzen ari direla. Baina horretarako diru gehiago beharko luketela adierazi zuen.

Aingeru Guardatik Kuartuenara

Urriaren 26an hasi zituzten Aingeru Guarda eta Kuartuena arteko bidegorriko lanak, eta, hasiera batean, bederatzi aste iraungo dute. Mazmelako bidegurutzea zeharkatzen du bidegorriak, eta oinezkoentzat zebra-bide altxatua jarriko dute bertan. "Auzotarrak kezkatuta daude, eta baloratu egin beharko da, trantsizioko egoera bat pasa beharko dute autoen eta oinezkoen artean. Hala ere, orain proposatutako irtenbidea ez da behin betikoa izango".

Huhezirekin hitzarmen barik

Santa Anako 79 autorendako aparkalekua itxita, 40 aparkaleku berri egin dituztela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak. Huheziko hitzarmena, bestalde, bertan behera geratu dela gaineratu zuen: "Oraingoz, beste asmo batzuk ditu Unibertsitateak, diru laguntza batzuk lortu dituela eta... Agian, eraikin berri bat egingo dute, eta ezusteko bat izan da. Gure asmoa da denok adostasunera heltzea; Bildu eta Irabazik, esaterako, ez dute horren beharrik ikusten. Beste era bateko mugikortasun plan bat egitea nahiago dute, non lehentasuna oinezkoena izango litzatekeen... Hori dena aztertu egin beharko dugu".

Autobus linea berriak ere izan zituzten hizpide, eta, izan diren kexen ondorioz, gaia Diputazioarekin aztertu beharko dutela adierazi zuen alkateak.

HUHEZIREKIN HITZARMENA BERTAN BEHERA GERATUTA, EZ DA APARKALEKURIK EGINGO DORLETAN

Arimaz Kamera orkestraren kontzertua zapatuan

San Pedro elizan, 20:00etan, Euskal Herriko musika herrikoia hari-orkestrarako egokituta entzuteko aukera

I.B ESKORIATZA

Arimaz Kamera Tolosako orkestrak Euskal Herriko musika herrikoia hari-orkestrarako egokitua eskainiko du zapatuan, 20:00etan, Eskoriatzako San Pedro elizan. Tolosako Eduardo

Mocoroa Udal Musika Eskolako irakasle eta ikasle ohiek sortu zuten, 1999an, eremu akademikoaz gain musika jarduerarekin jarraitzeko asmoz, eta 2006az geroztik, Kepa Martinez de Albeniz da zuzendaria.

Vivaldiren bi tronpetako kontzertua, Telemannen *Tronpa kontzertua*, Marceloren *Oboe kontzertua*, Pergolesiren flautarena, Haydnen *30. eta 49. Sinfoniak*, Elgarren *Serenade...* halako obra konplexuak eskaini izan dituzte beraien ibilbidean zehar, baina biharko kontzertuan hainbat doinu euskaldun eskainiko dizkiete bertaraten direnei: *Pello Joxepe*, *Donostiako hiru damatxo*, *Haurtxo txikia*, *Akerra ikusi dugu* eta *Goiko mendian*, besteak beste.



Arimaz Kamera orkestra. ARIMAZ KAMERA

"Topikoak apurtzeko dokumentala da"

DAVIDE CABALEIRO DOKUMENTALISTA

'Zurrumurrurik ez!' egitasmoaren barruan proiektatuko den 'Sitio distinto' dokumentala azaroaren 16an ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian

Imanol Beloki ESKORITAZA

Zurrumurrurik ez! herritarren artean bizikidetzeta hobetu nahi duen egitasmoa da, eta Eskoriatzako Udalak bat egin du ekimenarekin. Horretarako, egitarau zabala prestatu du: bi tailer, bi dokumentalen proiektzioa eta hitzaldi bat. Zaldibar antzokian azaroaren 16an izango da dokumentaletako bat, *Sitio distinto* izeneko, eta topikoak baztertzeko egindako lana dela adierazi du Davide Cabaleiro dokumentalistak.

Zer kontatzen du Sitio distinto dokumentalak?

Alde batetik, Galiziatik Euskal Herrirako migrazioa kontatzen du. 120 urtetako historia. Zelanbait kokatzeko, zergatik, nola eta nora etorri ziren galiziarrek. Behin kokatuta, sustraiak bilatzen hasten da, belaunaldi ezberdinetakoen testigantza... jasoz eta bi herrien arteko lotura uztartuz; batez ere, lotura kulturalak.

Zein helbururekin egin duzu lan hau?

Argi eta garbi, bi aldeetatik datozen topikoak apurtzeko. Ni, duela zazpi urte etorri nintzen Euskal Herrira Galiziatik, eta topiko asko entzuten nituen... Gainera, bi herriak elkartzeko beharra ikusi nuen.



Davide Cabaleiro. ARGAZKIA: 'KLIK KLIK'

Euskal Herrira etorritako galziarrak identifikatuta sentitu dira?

Euskal Autonomia Erkidegoan 50.000 galziar inguru biziko dira, eta, oraingoz, ikusi dutenen harrera ona jaso dugu. Eskoriatzako laugarren emanaldia izango da –azaroaren 16an– eta bi egun lehenago Zinebiko emanaldia izango dugu, azaroaren 13an.

Borobiltzeko, azken mezurik?

Topikoaren mezuaz borobiltzen dudala uste dut dokumentala zertaz doan. Historia bat hobeto ezagutzeko, eta aurrean dugun lanbro hori baztertuz, egoera ondo ikusteko eta azpitik dauden zubiak erakusteko lana da.

'Zurrumurrurik ez!' egitasmoa

Tailerak

- Azaroaren 8an eta 15ean, Ibarraundi museoan, 18:00etan.

Dokumentalak

- *Sitio distinto* Azaroaren 16an, Zaldibar antzokian, 19:00etan.
- *The Basque Hotel* Azaroaren 23an, Zaldibar antzokian, 19:00etan.

Hitzaldia

- Abenduaren 14an, *Gizarte politika Gipuzkoan*. Hizlaria: Maite Peña, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua.

Arrakastatsua izan da 'Ti tau!'

Aurten indartsu bueltatu da *Ti tau!* umorezko film laburren rallya. Izan ere, iaz ez zen egin, eta aurten, seigarren edizioan, sei taldek hartu dute parte. Berrikuntza moduan, filmen proiektzioetan, Xabi Igoak eta Martin Berrizbeitiak bertsoak bota dituzte, labor batetik besterako tartean. Sari nagusia Oñatiko Trainspotening taldearendako izan da.



1.B

LEINTZ GATZAGA | 17



Erretiratu kuadrilla Leintz Gatzagako Gatz Museoa. GATZ MUSEOA

Herriko gatzaz gehiago ikasten ibili dira hainbat erretiratu

Hainbat tokitan gatzaz nola egiten den ikusi ostean, herrikoa ezagutzera joan ziren 26 erretiratu

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pasa den egubakoitzean, hilaren 27an, Leintz Gatzagako erretiratu kuadrilla ederra batu zen egun bikaina pasatzeko. Oraingoan, kanpora egiten dituzten irteerak alde batera utzi, eta herriko bihotza den gatzaz gehiago ikasteko elkartu ziren.

Goizean, salda hartzeko batu ziren, elkartean, egunerako batu ziren 26 erretiratu gatzagarrak, eta, bide batez, bi bideo eskaini zizkieten, hainbat tokitan gatzaz nola produzitzen den ikusteko. Honela adierazi du Juanito Bengoak, mendi saileko zinegotziak: "Remolinosko (Zaragoza)– gatz meatzean nola egiten duten lan erakusten zuen bideo bat ikusi genuen lehenbizi. Ondoren, Fuerteventurako itsaso bazterretan gatzaz nola ateratzen duten ikusi genuen, eta gero, gure herrikoa nola produzitzen den ezagutzera joan ginen Gatz Mu-

seora, kanpokoaren eta gurearen arteko kontrastea ikusteko. Egunerako batu ginen artean, askok ez zeukaten ikusita Gatz Museoa, eta esperientzia ederra izan zela adierazi zuten. Bisita amaitzeko, talde argazkia atera genuen Gatz Museoa kanpoaldean...".

Bisitaren ostean, bazkari ederra

Gatz Museoa bisitatu ostean, herrira bueltatu, eta berriro ere joan ziren elkartera. Bertan, Eusebio Villar gatzagarrak presatutako bazkariak gozatu ahal izan zuten.

"Eusebio Villar ere erretiratu dago, baina hura egon zen prest bazkaria prestatzeko. Hain zuzen ere, urdaiazpikoa, kroketak eta onddo-nahaskia izan genituen pikatzeko; gero, mingaina saltsan jan genuen; eta, amaitzeko, Leintz Gatzagan oso ezaguna den Eusebioren flana".

Lan eskaintza, Gatz Museoko peoi lanposturako

Gatz ekoizpenerako eta Udalak beharrezko ikusten dituen bestelako jardueretarako lan eskaintza zabaldu dute.

%70eko lan-jardunerako eta sei hilabeteko iraupena duen lana egiteko pertsona bat behar dute, eta izena emateko azken eguna gaur da, azaroaren 3a; Lanbideren bitartez eman behar da izena.

Gatz Museorako lanpostua lortzeko ezinbesteko baldintza batzuk bete behar dira: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskaintzaile moduan izena emanda dauden langabeak izatea, Leintz Gatzagan erroldatuta egotea, emakumea izatea, euskaraz mintzatzeko gaitasuna izatea eta Lanbide enplegua sustatzeko deitutako laguntza deialdiko baldintzak betetzea, hain zuzen ere. Baldintza horiez gainera, autoa izatea ere baloratuko dute.

Ura eta saneamendua, ordenantza bakarrean

2018ko ordenantza fiskalak onartu ditu udalbatzak, behin-behinean. Sistema aldaketa bat egongo da, ura eta saneamendua ordenantza berean batuko dituen; Udalak etxe guztietara bidaliko du sistema berriaren gaineko informazio guztia

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Urriko osoko bilkuran onartu dituzte 2018ko ordenantza fiskalak, behin-behinean, eta urtariletik aurrera sistema aldaketa bat egongo da ordenantzetan. Hori dela eta, ura eta saneamendua ordenantza berean egongo dira –momentu honetan, ura bere aldetik dago eta saneamendua, berriz, zaborrarekin eta kirol instalazioekin batera–. Sistema berriarekin, beste bi aldaketa ere egongo dira: bate-tik, hiru hilean behin kobratuko dira bai ura eta bai saneamendua. Bestetik, hamabi euroko kuota finko bat kobratuko da, eta gainontzekoa kontsumoaren arabera izango da.

Horrez gain, urari dagokionez, familia ugariei tarifa merkeagoa ezarriko zaie, baita nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi profesionalei ere.

Saneamenduan, berriz, aldaketa hori ez zaie aplikatuko fosa pribatuei. Horiei orain arte moduan kobratuko zaie: hiru euro hiru hilean behin –orain, lau euro kobratzen zaie bi hileko–.

Sistema aldaketa hori EH Bilduren udal taldeak proposatu du, argudiatuz indarrean dagoen ordenantza "zaharkituta" geratu dela eta ez diola "gaur egungo errealitateari erantzuten". Beste argudio bat izan da uraren zikloa errespetatzearena. "Legeek eta ingurumen politikek gero eta gehiago egiten diote erreferentzia uraren zikloari eta ziklo osoa kontuan hartu behar izateari. Gainera, zentzua du ordenantza berean jasotzeak". EAJ, berriz, sistema aldaketaren aurka agertu da.

Zaborraren bilketak, %20 gora

Beste puntu garrantzitsu bat zaborraren bilketa zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasan egongo da. Izan ere, %20ko igoera aplikatuko da hor. Alkatearen esanetan, bi arrazoi daude igo-



Urriko osoko bilkura. ENEKO AZURMENDI

BEHIN ONARTUTA, HILABETE BATEKO EPEA EGONGO DA HELEGITEAK JARTZEKO

ra hori aplikatzeko: "Batetik, 2008tik tasa bera mantentzen delako. Eta bestetik, Jundizko zabortegian %20ko igoera egitea onartu duelako Gasteizko Udalak". Hori kontuan hartuta, tasaren igoera "gomendagarria" dela ondorioztatu du Aramaio-ko Udalak.

Horrez gain, bost talde ezberdinetan banatuko dira tasak. Etxebizitzaren tasa oinarritzat hartuta eta %20ko igoera aplikatuta, honako hauek dira tasak: etxebizitzak (61,30 euro); lokal profesionalak –ile-apaindegiak, botikak, bankuak...– (91,95 euro); merkataritza, landetxe, tailer mekanikoak eta nekazari ustiategiak (122,60 euro); elkarte gastronomikoak, tabernak, jatetxeak eta hotelak (153, 25 euro) eta industria eta hezkuntza zentroak (214,52 euro). Tasa horiek udal-erri osoan aplikatuko dira,

Oletan izan ezik –Oletan eurek kudeatzen dute zaborra–.

Gainontzeko ordenantzak

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren, aldaketa gehienak hobarrietan egongo dira. Hauek dira hobari nagusiak: nekazaritza ustiaketa profesionalentzako %90ekoa –urteetan eskatu izan dena–; energia eraginkortasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek %50ekoa; etxeetako erreteila eta fatxadaren konponketak egiteko lanek %50ekoa eta 50 urte beteta duten etxebizitzek EITren baldintzetara egokitzeko egin beharreko eraikuntza, instalazio eta lanek %50ekoa.

Landa-bideetan eta auzo-bideetan ibilgailu astunen erabileraren eta landa-bideen zabaltearen gaineko ordenantza erregulatzaileen agertzen diren zenbatakoei KPIren igoera ezarriko zaie –%1,8–.

Azkenik, jarduera ekonomikoaren gaineko zergari dagokionez, 1.000.000 euro baino gehiagoko bolumena duten enpresei %50eko hobaria kendu egingo zaie 2018an.



ALEX MENDIKUTE

Fotografia irteera, arrakastaz

"Espero baino jende gehiago" hurbildu zen lehenengo fotografia irteerara eguztenez, irteeren gidari Alex Mendikuteraren arabera. Eguraldia lagun, kamera modu manulean erabiltzeko oinarriak azaldu zizkien Mendikutek gerturatutakoei, eta guztiak "oso gustura" aritu ziren, hiru orduko ibilaldian. Bihar beste irteera bat egingo dute, 09:30ean plazatik abiatuta.

San Martin Pilota Txapelketa azken txanpan da dagoeneko

Asteburu honetan hamasei final-aurreko jokatu dituzte, eta Aramaio-ko lau bikote ariko dira.

Gaur hasiko dira partiduak, 18:00etan. Kimuen B mailan, Aner de la Torre eta Julen Fernandez aramaioarrak Garrido-Adur bikotearen aurka ariko dira eta Mikel Axpe eta Julen Olaizola, berriz, Diaz de Gereñu-Altube bikotearen aurka, kade-teen A mailan. Bihar, 17:00etan, Danel Herrarte eta Xabi Errasti aramaioarrek Arruiz-Barbero bikotearen aurka jokatu dute, infantilen B mailan. Etzi, 10:00etan, Markel Arriolabengoak eta Mikel Sanzek Ugalde-Letonaren aurka jokatu dute, kadeteen B mailan.

Hiruko saskibaloia torneoa jokatu dute domekan kiroldegian

Maidar Unda olinpiadak badoaz aurrera, eta hurrengo hitzordua saskibaloia zaleentzat izango da. Izan ere, domekan hiruko saskibaloia torneoa egingo dute kiroldegian, 10:30ean. Bi talde egongo dira: Lehen Hezkuntza-ko hirugarren eta laugarren mailakoak, batetik, eta bosgarren mailakoak, bestetik. Izen-ematea 10:00etan izango da.

Espainiako selekzioarekin jokatu du Ione Oyanguren

Izotz gaineko hockeyko Lau Nazioen Torneoaren –18 urtez azpikoena– jokatu du Ione Oyanguren aramaioarrak Granadan, azaroaren 10etik 12ra bitartean, Espainiako selekzioarekin.

Espainiako taldeaz gain, Hungaria, Polonia eta Britainia Handia izango dira torneoaren osatutako duten lau taldeak.

Azaroaren 6an, astelehenean, abiatu da Oyanguren Granadarentzat, eta astebete igaroko dute han, torneoaren prestatzen.

Atzo, eguna, Hemen *Debagoiena* saioan egindako elkarrizketan eman zituen torneoaren eta bere ibilbidearen gaineko xehetasun gehiago –*Goiena.eus* webgunean ikusgai–.

ZUZENKETA

Landa-bide publikoen inbentarioaren lehen fasea onartzekoak ziren pasa den eguneko osoko bilkuran, baina, azkenean, azaroko osoko bilkurarako atzeratu zuten, alkatearen esanetan, "dokumentazio faltagatik eta presa handirik ez duen kontua delako".

Prozesu horren ondoren, beste fase batzuetan ahalik eta udal-bide gehien jasotzen eta erregistratzen jarraituko du Udalak.

"Euskararen osasunaren termometroa da hiketa"

JUAN MARTIN ELEXPURU HITANO IKASTAROA GIDATUKO DU ELGETAN
Baserri giroko herrietan gehiago egiten da, eta gizonezkoek gehiago emakumeek baino. Hitanoaren egoera ez da ona, baina Elexpuruk dio jendeak ikasi nahi duela

Larraitz Zeberio ELGETA

Sei laguneko gutxieneko taldea osatzen bada, azaroaren 21ean emango diote hasiera hika ikastaroari, Elgetan. Udaletxean zabalik dute izen-ematea.

Zein da hitanoaren egoera?


Euskara oso bizi dagoen lekuetan gehiago egiten da –Bizkaiko kostaldea da salbuespena; aspaldi samar galdu zen, auskalo zergatik–. Elgetan nik uste dut 50 bat urtetik gorako gehienek egiten dutela, eta handik beherakoen artean batzuek bai eta beste batzuek ez. Eta egiten dutenen artean ere, batzuek ondo eta beste batzuek ez hain ondo.

Noiz eta zergatik egin du behera?

Azken 50-60 urteetan, gehienbat. Ordura arte ia mundu guztiak egiten zuen. Entzunez modu naturalean ikasten ziren bi erregistroak –zuka eta hika–, baina frankismo gordinak euskara bera ere galtzeko zorian jarri zuen, eta, jakina, hiketa lehenengo. Zenbait abade eta guraso atzerakoik ere izan du eragina, hika egitea bastotzat eta errespetu faltatzat jo izan du telako.

Prestigio kontua izan da? Zenbait lekutan osasuntsuago dago.

Sasoi batean hikak ez zuen prestigio handirik elite euskal-



Juan Martin Elexpuru. A. TXINTXURRETA

tzaleen artean. Gaur egun, teoriarik bai baina praktikan ezer gutxi egiten da hitanoaren alde. Azeitian, Azkoitian, Oñatin, Antzuolan... indartsuago dago, bai, nahiz eta belaunaldi gazteetan oso sartuta dagoen *hiperhiketa*: *jaokela*, *juatela* eta horrelako forma ez zuzenak. Oro har, esan daiteke hiketa euskararen osasunaren termometro ona dela.

Ematen dira baldintzak gaur eguneko egoerari buelta ematen hasteko?

Jendeak nahi du hika egin, hurbiltasun, berotasun, konplizita-

te puntu bat ematen duelako –hori da hitanoaren grazia–, baina guraso askok ez dakite, eskolan ez da erakusten, telebistan ez da entzuten... Zelan ikasi? Neurriak? Eskola, telebista... eta herri-euskara ere erakutsi, hau da, dialektoa gehiago erabili eskolan zein hedabideetan. Goian, adibidez [Barre]: izan ere, euskalkiko hitanoaz dihardugu; eta zelan ikasi eta zabaldu hiketa, zuketa eta herriko berberta jakin ezean? Badakit basamortuan sermoia egitea dela hau, baina...

Hika ikastaroaren nondik norakoak

Elgetako Udalak antolatuta, Juan Martin Elexpuruk bina orduko lau eskola emango ditu. Saiok hilaren 21ean, 23n, 28an eta 30ean izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea bost euro da eta azaroaren 7ra arte dago zabalik. "Hitanoa zer den, noiz eta norekin erabiltzen den eta horrelakoak aitatuko ditugu lehenengo, eta gero, aditz erabilienak ikasi eta era

guztietako ariketak egingo ditugu", aurreratu du Elexpuruk.

Euskara zinegotzi Janire Lazkanok hitanoa ikasi zein hobetu nahi duten herritar guztiak gonbidatu ditu ikastaroan parte hartzera. Gehiago ere esan du: "Laguntza teoriko bat emango digu Elexpuruk, baina hori praktikara eraman behar da, eta badugu asmoa berbalagun saio txiki

batzuk sortzeko". Begi onez ikusten du erronka hori Elexpuruk. "Bost edo sei laguneko taldea elkartzen bada ikastaroaren ondoren, Hikalagun talde bat sor daiteke. Erabiliz ikasten da hika, dena bezala". Hitanoak ezagutu ditu garai hobeak Elgetan, baina oraindik ere badaude hika oso ondo egiten duten herritarrak. Gaiaren inguruko erreportajea emango dute gaur Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan.

Elgetako pintxo lehiaketa bi egunetan jokatu da aurten

Lau tabernak hartuko dute parte eta hurrengo hiru domeketan euro batean eskainiko dituzte pintxoak

L.Z. ELGETA

Azaroarekin batera badatoz Pintxo Domekak. Etzi, emango diote hasiera eta Haizeak, Bolatoki tabernak, Maialde landetxeak eta El Rincon de Lolak hartuko dute parte. Berrikuntzen artean, bi egunetan erabakiko da, aurten, sariketa. Hala, domeka batean bina pintxo aurkeztu beharrean bana aurkeztuko dute tabernariak lehen domekan eta beste hainbeste hurrengoan. Ostalariek egindako proposamena da, eta txapela hilaren 12an banatuko du aurten Udalak.

Hirugarren domekan, puntuazio onena lortutako pintxo eskainiko du tabernari bakoitzak, eta publikoak emango du bere iritzia. Txartelak izango dira taberna guztietan, baina aurkeztu berria den Hirix plataformaren bidez zein *selfie* lehiaketa berriaren bidez ere izango da botoa emateko aukera. 30 euroko hiru sari iragarri ditu Udalak.

Domeka honetan Jainaga eta Narbaiza trikitilariak girotuko dute Pintxo Domeka. Pintxoek, urtero moduan, euro bateko prezioa izango dute.



L.Z.

Mamuak eta arimak uxatuta

Arimen Gaueko antzerki ibiltariak hainbat lagun elkartu ditu aurten ere. Akelarre batekin hasi eta amaitu zuten ikuskizuna, eta ondoren, Maritxuren zapia eta Mikelen txapela erre zituzten elgetarrek plazan. Modu horretan lortu dute mamuak eta arimak urtebeterako atseden hartzera joatea. Tarte horretan ez dute Elgetan bazterrak nahasten jarraituko.

PILOTA TXAPELKETA

3. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

1. Alberto Telleria-Angel Ibarluzea / Jose Mari Zubiaurre-Gorka Bolinaga
2. Iban Retolaza-Pello Larrea / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elkoro
3. Eneko Maguregi-Etor Garate / Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza
4. Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Diego Cantabrana-Txomin De Vega

OHARRAK

Gaztaina-erreak

Gaur egingo dute gaztaina-erre jana Herri Eskolan, 14:45ean. Erretiratuek, berriz, 18:00etan egingo dute, Ozkarbi elkartean.

Azaroak 25

Aurtengo ekintzak prestatzen hasteko batzar irekia deitu du Udalak astelehenerako, 18:00etan, udaletxean.

Eztabaida luzea eta beroa zergei eta tasei begira

2018rako ordenantza fiskalen Gobernuaren proposamenaren aurka bozkatu eta osoko zuzenketa eta emendakin partzialak aurkeztu zituzten EH Bilduk zein Irabazik lau ordu eta erdiko bilkuran; zergen eta tasen igoera orokorra KPIren igoeraren bestekoa izango da

Jokin Bereziartua BERGARA

2018rako udal zerga eta tasen igoera orokorra KPIren arabera izango da. Hala onartu zuen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, Udal Gobernuaren (EAJ-PSE-EE) aldeko eta EH Bilduren zein Irabaziren kontrako botoekin. "Saiatu gara zuhurtasunez jokatzeko Udalaren sarrerak ez konprometitzeko, baina Gobernu taldearen asmoa izan da, aldi berean, planteatu diren igoerak KPIren neurrian bakarrik igotzea", esan zuen Ogasun zinegotzi Ander Alberdik.

KPIren arabera igoko dira ondasun higiezinaren gaineko zerga -IBI moduan ezaguna-; ekonomia jardueren gaineko zerga; trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa; hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga -hobari berriekin-; merkaturak; kanposantuko zerbitzua; estolderia. Gainerako honako tasa hauek



Osoko bilkuraren une bat; Goiena telebistan ikusi ahalko da osorik, gaur (23:30). J.B.

ere KPIren arabera igoko dira: erabilera anitzeko etxebizitza, babes etxea, kiroldegia eta igerilekuak, frontoiak eta udal jabari publikoa okupatzeagatik ordaintzen diren tasak, turismo bulegoko tarifak eta haur dina-

mizazio zerbitzua. Hobariaren artean, Gobernuak bi nabarmenatu ditu obren gaineko zergetan: batetik, alde zaharreko lokal komertzialetako obrek %35eko hobaria izango dute eta, bestetik, oztopo arkitektonikoak ezaba-

tzeko obrei %75eko hobaria aplikatuko zaie. Beste hobari bat ere azpimarratu zuen alkatetik: "Erdigunean hainbat komertzio oso jarduera laburra izaten dute eta ikusten genuen zerbait egin behar genuela horiei laguntzeko; bada, obren gaineko zergan hobaria dute, baita irekierako baimenean ere".

Oso luzea eta oso beroa

Osoko bilkura oso luzea izan zen, lau ordu eta erdi iraun zuen. 2018rako ordenantza fiskalak ziren eztabaidagai nagusiak, bergarrei zuzenean eragiten dieten udal zergak eta tasak. Hala ere, gaiaren garrantzia ez da nahiko arrazoi bilkura horren luze joateko. Agerian geratu zen, beste behin, Gobernuaren eta oposizioaren arteko giroa gaiztotuta dagoela; gainera, prozedura arazoaren gaineko eztabaidek ere minutu asko hartu zituzten.

Udal Gobernuaren proposamena izen zan bozkatzeko azkena. Ordenantza horien aurka bozkatu zuten EH Bilduk eta Irabazik, eta bi taldeek Gobernuaren proposamenari osoko zuzenketa eta emendakin partzialak aurkeztu zituzten. Irabazik zortzi emendakin eta EH Bilduk bost. Emendakin horietatik, batek ere ez zuten aurrera egin, EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zutelako. Gobernuak salatu zuen "negoziazio prozesuan" adostasunak lortzeko borondatea erakutsi arren oposizioaren aldetik

ez duela keinurik jaso eta gaineratu zuen iazko planteamendua oinarri hartuta jo zuela EH Bildurengana eta Irabazirengana. EH Bilduk ez du uste negoziatorik egon denik: "Ideia truke bat egon da; badakigu gehiengo osoa dutela, baina, gure ustez, bidean jaso diren ekarpenekin bazegoen proposamen hobe onartzeko aukera eta hori zen gure osoko zuzenketa eraren helburua. Hala ere, argi geratu da emendakin hori irakurri ere ez dutela egin", deritzo Agurte Berrusok.

Irabaziko Aiert Lizarraldekin uste du "aukera historikoa" zegoela "beste behin" akordio batera iristeko: "Ez dakit zer gertatzen den, baina oraingoan ere ez da posible izan. Ez zaigu batere gustatzen Gobernu honek eztabaidak kudeatzeko duen modua. Beti azken orduan ibiltzen gara negoziazio moduko bilera horietan".

Goiena telebistan, osorik

Osoko bilkura osorik ikusteko aukera egongo da Goiena telebistan aste bukaeran zehar: gaur -23:30ean-, bihar -15:30ean eta 21:30ean- eta etzi -17:30ean-.

GIRO GAIZTOTUA ETA PROZEDURAREN GAINKO EZTABAIDAK NAGUSI LAU ORDU ETA ERDIKO BILKURAN


Euskara sustatzeko hiru saio antolatu ditugu azaroan zehar

'Ezagutu, murgildu eta ekin' ziklo barruan, Urrutikoetxea eta Elexpuru arituko dira hizlari lanetan, besteak beste

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkartea / BERGARA

Azaro osoan zehar *Ezagutu, murgildu eta ekin* zikloa antolatu dugu, euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Hurrengo hiru eguaztenetarako antolatu ditugu saioak; Irizar jauregian izango dira, 19:00etan. Azaroaren 8an, Urtzi Urrutikoetxea idazle eta kazetariak *Zertaz ari gara hizkuntza normalizazioaz ari garenean?* hitzaldia eskainiko du. Azaroaren 15ean, Juan Martin Elexpuruk *Euskararen aztarnak Sardinian* liburua aurkeztuko



Elexpururen saioa, hilaren 15ean. GOIENA

du. Eta, hitzaldi zikloa ixteko, azaroaren 22an, Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta, *Euskaraz gara ala ez gara. Euskal Herri euskaldunari atek irekitzeko proposamena* deritzon hitzaldia egongo da. Beste herri batzuetan ere eskaini dira saio hauek eta arrakasta handia izan dute; beraz, bertaratzeko gonbidapena egiten dizuegu.

'Idazlagunak': azken egunak

Bestalde, *Idazlagunak* ekimenaren *Lotu eta jolastu* azken kanpaina azaroaren 6ra arte egongo da martxan. Bi modutara har daiteke parte: kanpainaren barruan dauden 44 dendetan erostekak eginda edo herriko zenbait tokitan dauden paper txoetako jolasa osatuta. Azaroaren 7an banatuko dituzte sariak; argibide gehiago: 605 71 24 69.

'Bergaran 0 ohe huts' jaia: ospakizuna eta aldarrikapena eskutik

Euskal preso bergararrik ez dagoela ospatzeko eta gainerako en txeratzeko aldarrikatzeko "jai berezia" antolatu dute hainbat bergararrek biharko. 12:30ean, Pol-Pol tabernako balkoitik bertsoak entzuteko aukera egongo da eta ondoren triki-poteoa abiatuko dute Arrano tabernatik. Gero, herri bazkaria egingo dute -txartelak Arrano eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, 20 eurotan-, kantaldi eta guzti, eta 19:00etan hasiko da "aldarrikapenaren erdigunea" izango den ekitaldi politikoa. Gauean, 22:00etan hasita, gaztetxean jarraituko du festak: Arkada Social, Ufuestuek eta Tximeleta taldeek kontzertua eskainiko dute.

OHARRAK

1964an jaiotakoak

Azaroaren 25ean Sirimiri jatetxean afalduko dute. Izena eman behar da Zerkaudi dendan -bidegorri ondoan-, azaroaren 17a baino lehen. 20 euro aurreratuko behar dira.

1980an jaiotakoak

Hilaren 25ean Erreki jatetxean bazkalduko dute; 20a baino lehen 20 euro sartu behar dira: 30350009150091151609 (Laboral Kutxa).

'Oparitu zuhaitz bat'

Azaroaren 9an, beste saio bat Irizarren (19:00): *Txertoak, osasuna ala negozioa?*, Fiare banku etikoa eta kooperatiba energetikoak berbagai.



Iazko jardunaldietan izandako hitzaldi bat. GOIENA

Berrikuntza berbagai ZTB jardunaldiei ekiteko

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien hirugarren edizioaz gozatzeko aukera izango da azaroaren 12ra bitartean. Atzo egin zuten lehen ekintza, Jakiundeko Jesus Mari Ugalderen berbaldiarekin. Era guztietako hitzorduak antolatu dituzte

Iker Oñate BERGARA

Atzo eman zieten hasiera Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiei (ZTB), Jakiundeko egindako berbaldiarekin: berrikuntzaz jardun zuen Jesus Mari Ugaldek, Aroztegi aretoan. "Jakiunderen egoitza nagusia Bergaran dagoenez, jardunaldien irekiera hitzaldia euren esku uztea keinu polita izan zitekeela iruditu zitzaigun", azaldu du Marije Unamunok, Enplegu eta Garapen teknikariak.

Bada, Ugaldek begirada kritikoz aztertu zuen berrikuntzaren gaia. "Hausnartzeko baliabideak eskaintzea da nire helburua. Oro har, zer da berrikuntza? Edo, gizakia zutik jarri

zen unean ez al zen berrikuntzarik izan? Finean, hausnarketarako bidea zabaltzen dute halako galderek", argitu du. Gaineratu duenez, bestalde, "berrikuntza ez da soilik industriari lotutako kontzeptua. Horrez gain, naturan ere bada halakorik; eboluzioan, besteak beste".

Modu horretan, azaroaren 12ra bitartean izango da egitarauko hitzorduez gozatzeko aukera; hitzaldiez aparte, mahai-inguruak, mintegiak eta bideojoko lehiaketa antolatu dituzte. Aipaturikoek, herriko gune ezberdinak -Laboratoriuma, Aroztegi aretoa, Aranzadi ikastola eta Zabala jatetxea, adibi-

dez- izango dituzte jardun leku. Bide horretan, herritarrengana arik eta gehien hurbildu gura izan dute antolatzaileek.

Bi erakusketa

Bestalde, jardunaldietan ikusgai egongo diren bi erakusketa inauguratu zituzten atzo; egitasmoaren amaiera egunera bitartean egongo dira zabalik. Bada, Aroztegi aretoan jarri dute lehen erakusketa; zehatz esanda, herriko Arizondo argazkilaritza taldearen lanak -argazkilaritza zientifikoaren bueltan eginikoak- eta herritarrek eskalan eraikitako lokomotor bat biltzen ditu erakusketak. Aipatu beharrekoa da lokomo-

torra martxan jarriko dutela azaroaren 11n. Horrez gainera, Laboratoriumen ere bada erakusketarako txokorik. Zehatz esanda, bertan, Miguel Altuna Institutuan sortutako piezak ikusarazi gura izan dituzte antolatzaileek.

Azoka, energiaren bueltan

Bestalde, jardunaldien bultzatzaileek azoka antolatu dute biharko -zapatua-; ekintzak energiaren alorra du erdigunean. "Energiari lotutako instalazioak eta teknologia berriak gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko du azokak", azaldu du Rosa Errazkinek, Laboratorium museo teknikariak. Gauzak horrela, gertuagotik ezagutu ahal izango dira zenbait sistema: eguzki energia termikoa, biomasa galdara eta ibilgailu elektrikoa, hain zuzen.

Energia garbiaren bueltan diharduten irakasleen azalpenak jasotzeko aukera izango dute bertaratutakoek. "Azken finean, ez da salerosketarako gunea izango, informaziorako lekua baizik", argitu du Errazkinek. Besteak beste, Usurbilgo lanbide eskolako teknikariek jardungo dute azalpenak ematen.

Teknologia eta emakumea

Urtero legez, egitasmoaren antolatzaileek hainbat helburu dituzte finkatuta; besteak beste, emakumeek teknologiaren bueltan duten presentzia azpimarratzea. "Gero eta emakume gutxiagok ematen omen dute izena teknologiaren alorreko ikasgaletan. Bada, horri buelta ematen saiatzeko alea jarri gura dugu", dio Errazkinek. Horren bidean, *Non dago emakumea ingurune digitalean* mahai-ingurua antolatu dute azaroaren 8rako.

Estimulazio goiztiarraz, Mariaren Lagundian

Nuria Sanchez psikologoak gidatuko ditu jardunaldiak, azaroaren 10 eta 11 bitartean

I.O. BERGARA

Estimulazio goiztiararen bueltako jardunaldiak egingo dituzte Mariaren Lagundia ikastolan, bigarren aldiz. Hain zuzen, azaroaren 10erako eta 11rako antolatu dute, eta Nuria Sanchez psikologoak izango du saioak gidatzeko ardura. Modu horretan, ikastolan burutzen diharduten estimulazio goiztiarreko eta adimen anitzen egitasmoan sakondu gura dute antolatzaileek. Jardunaldi horietan esku hartu gura dutenek aurrez eman beharko dute izena, azaroaren 8a baino lehen (eguztzena). Plaza mugatuak dira.

"Gizakion burmuinaren inguruan dakiguna hezkuntzaren alorrean aplikatzea da helburu nagusia. Bide horretan, ikasleen inteligentzia legoke erdigunean", azaldu du Sanchezek estimulazio goiztiarraz. Gauzak horrela, argitu du estimulazioak "berebiziko garrantzia" duela burmuinaren aktibiziorako; eta, beraz, horretan laguntzeko bitartekoak jarri beharko lituzketela ikasketa zentroek. Jarduera horretan, bada, 0 eta 6 urte bitarteko haurrak leudeke jopuntuan: "Izan ere, burmuinaren adin tarte horretan du malgutasun handiena".

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Urieta zubia berritzeko lanak hasiko dituzte

Aurreikuspenen arabera, bi hilabete eta erdi iraungo dute berritze lanek. Tarte horretan, ez da moldaketa nabarmenik izango zirkulazioan; alegia, salbuespen egoeretan salbu, bidea estutu bakarrik egingo dute

Iker Oñate BERGARA

Egunotan hasiko dituzte Bergara eta Arrasate artean dagoen zubia berritzeko obrak -Urieta baseritik Diputazioaren biltegi bidean-. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du lan horien ardura, garraio berezien zirkulazioa bermatu guran. Aurreikuspenen arabera, bi hilabete eta erdi iraungo dute Urieta zubiaren berritze lanek; eta, salbuespenak salbuespen, obrek iraun artean ez da aparteko aldaketarik nabariko zirkulazioan.

Gaur-gaurkoz, GI-627 errepedean dagoen Urieta zubiak ez du garraio berezi batzuen zirkulazioa bermatzen; alegia, egiturak ez ditu pisu handiko ibilgailuei eusteko behar bezalako baldintzak betetzen. Horri konpondu guran, bada, egituraren oinarria indartu beharra ikusi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gauzak horrela, aurrez fabrikaturiko hormigoizko habe prentsatuak jarri gura ditu arazoa konpontzeko.

Dena den, esan beharra dago obrak ez direla habeak jartzera mugatuko. Horrez gain, urteen eraginez higatzen joan den egituraren zenbait elementu berritu gura ditu Aldundiak. Finean, aintzat hartu beharrekoa da 1973an eraikitako zubia dela Bergara eta Arrasate artean dagoena; urte hauetan guztietan, higatuz joan dira egituraren zenbait elementu.

Gaur egun, aurrez fabrikaturiko hormigoizko hamabost habe ditu Urieta zubiak; eta 20 zentimetroko lodiera duen lauza konprimitua du horien gainean finkatuta. Horrenbestez, aipaturiko horiek dira egituraren elementu nagusiak.

Obren esleipena

Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko esleitu ditu Urieta zubiaren berritze lanak. Zehatz



Bergara eta Arrasate arteko errepedean dagoen Urieta zubia. BERGARAKO UDALA

GAUR-GAURKOZ, ZUBIAK EZ DU GARRAIO BEREZI BATZUEN ZIRKULAZIOA BERMATZEN


esanda, Orion Reparacion Estructural enpresak dauka egitura berritzearen ardura. Bada, 363.000 euroko aurrekontua du horretarako; eta, esan bezala, aurreikusita dagoenaren arabera, bi hilabete eta erdi den bitartean behar luke zeregina.

Bidea estutu beharra

Diputazioak jakinarazi duenez, salbuespen egoeretan salbu, lanek iraun bitartean zirkulazioak ez du aparteko moldaketarik nabariko; ohikotasunean, bidearen zabalera estutu egingo dute. Hori bai, jakinarazi du bide bat itxi beharra izatea eragin dezakeen salbuespen unerik izan daitekeela, besteak beste, aldamiok jartzean eta obrarako materiala deskargatu behar den momentuan. Horiek, edo zelan ere, unean unekoak izango dira, denbora mugatu baterakoak, alegia.

Bizikleta festa arrakastatsua

Inoiz baino ume gehiago bildu zituen Lokatza zirkulazio eskolak antolatutako bizikleta festa; joan den domekarako zuten finkatuta hitzordua. Besteak beste, umeendako zirkuituak eta bigarren eskuko bizikleta azokaz gozatu ahal izan zuten bertarutakoek. Bada, antolatzaileak "pozik" azaldu ziren festa izandako harrerarekin. "Errekorra hautsi dugu", zioten.



IMANOL SORIANO

'La joven guardia' liburuaren aurkezpena, gaur

Urria, gorria eta iraultzailea izango da ekimenari amaiera emanez, *La joven guardia* izenburua duen liburua aurkeztuko du Miguel Usabiagak kartzela zaharrean; gaurko finkatu dute hitzordua, 19:00etan hasita. Zehatz esanda, idazleak bere aita Marcelo Usabiagaren -militario komunista- historia bildu du lan horretan. Egitas-

moaren antolatzaileen esanetan, "II. Errepublikan konpromiso soziala eta politikoa hartu zituen belaunaldiaren historia azalarazten du liburua". Adibidez, Marcelo Usabiagaren atxiloaldia eta erbestealdia ditu irakurgai liburua.

Aipatu beharrekoa da, 1917ko Errusiako Iraultza gogoan, orain artean hainbat ekintza antolatutuz Bergaran. Besteak beste, hitzaldiak eta ikus-entzunezko emanaldia eskaini dituzte egitasmoaren bultzatzaileek.



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituenak.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituenak.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituenak.

Erabakia Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 30eko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinarazi zaio jendeari 2017ko urriaren 31n argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2017ko azaroaren 1etik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazuko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2017ko urriak 31
ALKATEA

Bergara herri miresgarri bihurtuko du 'Alizia'-k

Bergarako Musika Eskolak ekoiztutako azken musikala hurrengo zapatuan eta domekan estreinatuko dute, Udal Pilotalekuan. Ikuskizunera begira, herria girotzeko hainbat ekintza antolatu dituzte egunotan, eta mozorroa janzteko dei egin dute

A.E./M.T. BERGARA

Datorren astean estreinatuko dute Bergarako, Udal Pilotalekuan, Musika Eskolatik sortutako azken musikala: *Alizia*. Bi emanaldi izango dira, azaroaren 11n (zapatua) lehena eta hilaren 12an (domeka) hurrena. 18:30ean izango dira biak.

Hala, datorren asteburuan "Bergara herri miresgarri bihurtuko da", antolatzaileek adierazi duten moduan. Izan ere, ikuskizunaz beraz gainera, herrian *Alizia*-ren estreinaldiarekin lotutako hainbat jarduera izango dira.

Herria girotuz

Goizez, 11:30etik 13:30era bitartean, *Alizia* musikala oinarri hartuta, makillaje-gunea, eskulan-gunea eta *Alizia herrialde miresgarrian* ipuineko elementu den xake erraldoia izango dira, neska-mutikoei zuzenduta, bereziki. Esan bezala, zapatuan eta domekan izango dira ekintzok, San Martin plazan, hasiera batean, eta euria eginez gero, Seminarioko karpan.

Horrez gain, ordu berean, 11:30ean, bisita gidatua izango da Laboratorio museotik abiatuta. Bergarak zientziarekin eta historiarekin izan duen lotura nabarmendu dute antolatzaileek, eta bisitan parte hartzera animatu gura izan dituzte bai bergararrak, baita kanpokoak ere.

Edurne Korta Kultura teknikariak, Maite Agirre Kultura zinegotziak eta Marije Ugalde Bergarako musika eskolako zuzendariak herritarrek animatu dituzte ekintzetan parte hartzera. Gainera, gonbidapena egin diete gaztetxoenei mozorrotuta joateko. "Goizean egingo diren tailerretan makillatzeko aukera izango dute", azaldu du Ugaldek.

Aliziaren istorio gaurkotua

Bada, ekintzok giroa berotzeko izango dira, baina hitzordu na-



Musika Eskolako eta Udaleko ordezkariak, apaindutako udaletxeko balkoian. A. E.

gusia arratsalde izango da. Marije Ugaldek ikuskizunaren nondik norakoak azaldu ditu: "Musikala Broadway estilora egin dugu: zuzeneko musikarekin, dantzariarekin eta aktoreekin. Ia 100 lagunek parte hartuko dugu. Betiko musikal bat da baina gaurkotua: *bullying-a*, Internet... halako gaiak landuko ditugu". "Zaila" izan dela baina "merezi" izan duela gaineratu du Ugaldek.

Antolatzaile eta bultzatzaileek herritarrek animatu dituzte musikalaz gozatzen. Horrez

gain, eskerrak eman dizkiete Bedelkar elkarteari, Xake taldeari eta herriko komertzioei.

Sarrerak salgai

Estreinaldira joateko sarrerak salgai daude, eta geratzen dira oraindik. Ticket.kutxabank.es webgunean eskuratu daitezke. Horrez gain, estreinaldien egunetan leihatilan ere erosi ahal izango dira, emanaldia hasi baino ordubete lehenago irekiko baitute hura. Bi emanaldiak kontuan hartuta, 1.700 sarrera inguru jarri dituzte salgai.

Kontzertu gogoangarria pasabide seguruak eskatzeko

Orkestra Sinfonikoak emandako errefuxiatuekiko elkartasun kontzertuan 8.500 euro lortu zituzten

M. T. BERGARA

Sarrerak agortu zituzten zapatuan Bergarako Orkestra Sinfonikoak emandako elkartasun kontzerturako, eta musikariek ez zieten hutsik egin bertaratuakoei, emanaldi hunkigarria eskaini baitzuten. Orkestrak eta SOS Arrazakeriak eskerrak eman nahi izan dizkiete, "bihotz-bihotzez", hurbildutakoei eta era batera edo bestera laguntza eskaini duten guztiei.

695 sarrera jarri ziren salgai eta guztiak saldu ziren. Sarrerez gain, 0 lerrorako 116 sarrera saldu ziren, eta, horrez gainera, Gamarra Ostalaritza Eskolako ikasleek egindako gailera siriarren bitartez, 1.340 euro jaso ziren. Bildutako dirua musikaren bidez errefuxiatuen integrazioa lantzen duen El Sistema Greece gobernu kanpoko erakundearentzat izango da.

Ekimen herrikoia

Antolatzaileek "euren talentua musu-truk eskainiz parte hartu zutenei" eskerrak eman dizkiete. Horien artean: "Orkestraz gain, agertokia Maria Izaga, Ion Agiriano, Asier Elortza, Aitor Garitano eta Miren Elortza barlariek partekatu zuten. Baita Musika Eskolako abesbatzako gazteek, Manex Alberdi dantzariak eta Ugaitz Alegria eta Maitena Salinas aktoreek ere. Gainera, Javi Julioren argazkiak ikusi ahal izan ziren, eta Joxe Mari Karrereren testuak entzun".

Gainera, siriarrak jatorria duen Suad Bushnaq konpositorea ere han izan zen. Kontzertuan parte hartzeko etorri zen Kanadatik Bergararaino. Orkestra Sinfonikoak *Ghadan* (Bihar) obra nola interpretatzen zuten ikusi ahal izan zuten Bushnaqek.

Marcelo Usabiaga milizianoari buruzko liburu aurkezpena

Urria, gorria eta iraultzailea izango da ekimeneko azken hitzordua izango da gaur, Angiolillo Liburutegiaren eskutik. 19:00etan, Migel Usabiagak bere aita Marcelo miliziano komunistari buruzko liburua aurkeztuko du gaztetxean: *La joven guardia*.

"Liburua tren batean hasten da, non Marcelo Usabiaga, 17

urterekin, 1934an Asturiasko iraultzaileen mugalari lanak egiten dituen. Kartzelako lehen egonaldia ekarriko dio horrek. Gero, gerra zibilean parte hartuko du, Euskal Herrian eta Santanderko frontean, Asturiaskoan, Valentzian, Bartzelonan... Ihes egin behar du atzerrira, baina, hilabete batzuk geroago, *maki* bezala itzuliko da, eta 21 urte pasako ditu frankisten kartzelan. "Nobelako bizitza bat izan zuela esan daiteke", diote Angiolillo Liburutegiko arduradunek.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Iaz gazte txokoko lehen egunean ateratako talde argazkia. MAIDER ARREGI

Gaztetxoek izango dute ekintzak antolatzeke arduraren ere

Azaroko lehen asteburuan –azaroak 4 eta 5– irekiko ditu aurtengo ikasturteko ateak herriko gazte txokoak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere gazte txokoko dinamizatzailerik herriko gaztetxoaren esku utziko dute erabakia. Hau da, nolako ekintzak edo jarduerak antolatu gura dituzten hausnartzeko eta erabakitzeke arduraren. Izan ere, Amaia Arana hezitzaileak azpimarratu du aurrez ekintzak prestatzeak eta lotzeak ez duela logikarik: "Hezitzaileok ekintzaren bat edo beste aurreikus dezakegun arren, ez dago aurrera eramango den ekintzarik zehaztuta oraindik. Gaztetxoaren esku utziko ditugu erabakia eta ikasturte honen nondik norakoak. Zapatuan, lehen egunean, batzar irekia egingo dugu gazteekin. Zer egin nahi duten jakin gura dugu. Hala, meriendatxo batekin lagunduta hitz egingo dugu. Izan ere, beraien interesak aintzat hartu eta beraiena den gazte txoko

bat sortu nahi dugu: hurbilekoa den zerbait, aske sentitu eta gustura dauden txokoa egin gura dugu eta. Beraz, zentzu gutxi dauka ekintzak guk bakarrik antolatzeak".

Aste Santura arte zabalik

Bihar, zapatua, zabalduko ditu ateak herriko gazte txokoak. Zerbitzua Aste Santu ingurura arte egongo da zabalik. Zapatuetan 17:00etatik 21:00etara bitartean eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. DBH-1 eta DBH-3 arteko gaztetxoei zuzenduta dago gazte txokoa eta gaur egun, adin tarte horretan, 63 gaztetxo daude Antzuolan.

Hala, sei hilabetez irekita egongo da 13 urtetik 16 urte arteko gaztetxoendako txokoa.

Beraz, garrantzitsua da azaroko lehen asteburuan ahalik eta jende gehien elkartzeko, ideiak garatzen joan ahal izateko.

KPIren igoera aplikatuko zaie Udaleko zergei

Gizarte zerbitzuak igoera horretatik kanpo geratzearen aldeko apustua egin du Udala Gobernuak, eta aho batez eman zaie hasierako onespina datorren urteko ordenantza fiskalei –Alderdi Sozialista ez zen osoko bilkuran izan–

T.M. / M.A. ANTZUOLA

Eguenean –urriak 26– egin zuten Antzuolako ezohiko osoko bilkura eta bertan gai bakarra izan zuten mahai gainean: 2018ko ordenantza fiskalak. EH Bilduko lau zinegotzien eta EAJko hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez eman zitzaizkien hasierako onespina datorren urteko ordenantzei. Alderdi Sozialistak Mirren Gallastegi ez zen osoko bilkuran izan.

KPIren igoera, hau da %1,5eko igoera, aplikatuko zaie zerga gehienei, baina gizarte zerbitzuak igoera horretatik kanpo geratuko dira. "Aldaketa handirik ez dago; egin duguna da lehengo egokitu eta KPIren igoera aplikatu. Bizitzaren igoerara egokitu gura izan dugu. Eta hortik kanpo geratu dira gizarte zerbitzuak. Horiek ez dute igoerarik hori izango", gaineratu du alkateak.

Bi udal zergak izango dute igoera handiagoa. Hala, lurzoru industrialaren eta hondakinen gaineko zergak KPIren igoera baino gehiago igoko dira. "Zoru industrialaren tasa %8 igo dugu. Izan ere, iaz, balio katastrala zela eta %30 jaitsi genuen eta uste dugu oraindik ere tope batera iristeko aukera dagoela. Enpresen egoera ez da txarra, eta horregatik erabaki genuen igotzeko moduko zerga zela. Eta hondakinen bilketa eta tratamenduari dagokionez, ikusten da datorren urterako eta aurtengo bilakaerak %2ko berezko igoera izango duela, gutxienez. Eta guk egin duguna da Mankomunitateak jarriko digun tasara gerturatu, %5 igota", argitu du alkateak.

Hondakinen gaiarekin, baina, desadostasuna egon badagoela dio alkateak: "Irakurketa desberdina egiten dugun EAJk eta guk; daukagun tasarekin, uste dugu bilketaren eta tratamenduaren zerbitzua ia oso-osorik



Matz Erreka enpresaren parkinga. MAIDER ARREGI

EH BILDUREN ETA EAJ-REN ALDEKO BOTOEKIN ONARTU DIRA ORDENANTZA FISKALAK

estaltzen dugula; oso gertu gaudela, alegia. EAJk, ordea, beselako irakurketa egiten du, Mankomunitatera egindako ekarpen guztia poltsa horretatik begiratzen dela diote eta; gure ustez, ordea, ez da horrela", esan du.

Edozelan ere, aurten elkarrekin egindako lanketak eman ditu bere fruituak eta 2018ko ordenantza fiskalek bi alderdien onspena izan dute: "Mahai gainean jarri genituen ordenantza fiskalak elkarrekin hitz egiteko. Gauza gutxi aldatu genituen, antzeko ikuspegia daukagu eta. Lanketa bat egin ostean, saiatu gara kontuan hartzen gainontzeko sentsibilitateak ere. Beti esan izan dugu gehiengo dugun arren sentsibilitate ezberdinak ere jasotzen saiatu izan garela", gaineratu du Antzuolako alkateak.

EAJ ere ados

Esan bezala, planteatutako ordenantza fiskalen alde bozkatu zuten EAJko zinegotziek; jeltzaileen bozeramaile Basilio Ormazabalaren esanetan, eurek egindako proposamenak, lurzoru industrialarekin eta hondakinekin lotutakoak, aintzat hartuak izan direlako. "Oso aproposak dira onartu berri ditugun ordenantza fiskalak. Nik uste dut datorren urtean aurrekontuak egiteko dezente diru egongo dela. Foru funtsa ere igo egingo da, eta, horrenbestez, gustura gaudela. Gauzak egin ahal izateko, gainera, dirua egon egongo da; ea orain gauzatzen ditugun", azaldu du Basilio Ormazabal jeltzaleak.

Bi proposamen egin zituztela eta biak aintzat hartu zituztela gaineratu du: "Legealdi hasieratik esan dugu atez atekoa defizitarioa dela. Horregatik, orain, ados gaudela %5eko igoerarekin. Aurten, katastro industrialarekin ere asko jaitsi da eta egin den tasa igoerarekin ados gaudela".

Behin hasierako onspena emanda, hilabetez egongo da onartutako ordenantza fiskalei helegiteak aurkezteko epea.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**



*Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak*

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Bertso zaletasuna herrira ere zabalduz

Ikasgeletatik atera eta herrira zabaltzeko helburuarekin, abian da Antzuolako Bertso Eskola; asmoen artean, gaztetxo antzuolarren bertsozaleasuna bultzatzea eta errotzea du ekimen horrek. Aitzol Iturbek dihardu irakasle, 18 gaztetxorekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak Bertso Eskola izatearen aldeko apustua egin berri du. "Herri Eskolan bertsoen inguruko ikastaroa jaso dute ume dezentek. Eta gure asmoa beti izan da bertsoa eskolatik kanpo ateratzea eta herrira zabaltzea. Herrian bertso-laritzak oihartzuna izatea ere gura izan dugu eta", argitu du Beñardo Kortabarría alkateak.

Eta aurten teoria hutsa zena praktikara pasatzeko aukera izan du Udalak Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eskutik. "Modu teorikoan, Bertsozale Elkartearekin jardun genuen gaiaz bernetan. Eta handik denbora batera esku artean proiektu bat zutela etorri ziren", dio Antzuolako alkateak.

Orain aste gutxi jarri da martxan Bertso Eskola eta dagoeneko hasi da fruituak ematen. Gaztetxoek harrera ezin hobea egin diotela dio Bertso Eskolako irakasle Aitzol Iturbek. "Eguzketan egiten ditugu saioak eta 12 urteko hemezortzi gaztetxok eman dute izena". Eskolaz kanpoko kurtsoa da, baina lotura dauka, noski, gaztetxoek eskolan aurrez jaso duten bertso ikastaroarekin: "Eskolaz kanpo ere jarraipena eman gura izan zaio 5. eta 6. mailetan abian jarrita-



Trekutz Egunean, Iturbe, Bertso Eskolako irakaslea, *Kaxeta*-rekin. IMANOL SORIANO

ko *Gu ere bertsoan* proiektuari. Helburua da euskaraz eta kantuan ondo pasatzea".

Antzuola eta bertsoa

Herri txikietan bertsoarekiko zaletasuna eta ohitura egon badagoela gaineratu du alkateak. Eta, hain justu ere, horri eusteko, eskolaz kanpoko jarduera proposa dela dio alkateak: "Geure-geurea den kultura bat, euskaraz garatzen dena... iruditzen zaigu horrelako aukera izanda horri bultzada bat emateko laguntza eman behar du-

gula. Sozializatzeko, bultzatzeko eta gaztetxoei erakutsi beharrekoa dela uste dugu".

Geratzeko etorri da

Hasiberria den ekimena den arren, alkateak argi eta garbi esan du "geratzeko" etorri dela Bertso Eskola Antzuolara. "Hasierako erantzuna oso ona izan da; ikasturte bukaeran egingo da balorazioa eta gure helburuak eta erronkak bete diren ikusi beharko ditugu, eta erabakia hartu. Baina, esan bezala, geratzeko etorri da".

Beñardo Kortabarría alkatea 'Harira' saioan izango da

Goiena telebistako *Harira* saioa 21:00- azaroaren 7ko gonbidatua Antzuolako alkate Beñardo Kortabarría izango da. Herriarrek ere egin ahal izango dizkiote galderak; hona hemen bideak: berriak@goiena.eus helbidea eta 688 69 00 07 zenbakia Whatsapp edo Telegram bidez. Horretarako azken eguna azaroaren 6a izango da.

Gabonetako Loteria erosteko aukera dago Landatxopen

Aurten ere aukera izango da Landatxoep erretiratuen elkartean Gabonetako loteria eskuratzeko aukera. Interesa dutenek bi egun izango dituzte loteria erosteko: azaroaren 6an, astelehena, eta azaroaren 7an, egubakoitza. Landatxoepko egoitzako bulegoan jarriko dituzte salgai, arratsaldeko lauretatik seieta bitartean.

Baserriko bizimodua eta uzta gertutik bizitzeko aukera

Pikunieta baserriko giroa, uzta eta egiten den lana bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatua egingo da azaroaren 4an, zapatua. Parte hartuko duten familiariek eta herritarrek aukera izango dute baserriko bizimodua gertutik ezagutzeko.

Izan ere, besteak beste, Antzuolako Pikunieta baserrian ardiak eta bildotsak hazten dituen

Josebe Blanco baserriararen eskutik, artzaintza ekologikoz sakonago hausnartzeko aukera izango dute.

Bisita gidatuaren ostean, baserriko produktuak oinarri izango dituen bazkariak gozatzeko aukera izango da. Ondoren, bazkalostea girotzeko, Anari musikariak kontzertua eskainiko du bertaratzaren direnendako.

Egun osoko jardunaldia izango da eta Pikunieta baserriko bisita gidatua 10:30ean hasiko dute parte hartzaileek.

Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du azaroaren 19an

Kantaldia eskainiko du Eñaut Elorrieta musikari ezagunak azaroaren 19an, Torresoroan, 18:30ean hasita. Gernikarrak bakarkako saioa egingo du eta bere ibilbideari errebasoa egingo dio kantu ezagunenak aurkeztuz, gitarra lagun duela. Elorrietak bere mundu ikuskeragerturatuko die ikus-entzuleei, kantuak sortu zituen era berean

eskainiz: biluzik, munduratu ziren moduan. Sarrerak 10 euroren truke salgai jarriko dira, azaroaren 13an, astelehena, udaltxean eta liburutegian.

Gernikan jaio zen Eñaut Elorrieta, 1975ean. Lugarri folk taldean hasi zuen musika ibilbidea. Gayarre musika eskolan musika eta gitarra klasikoko ikasketak egin zituen. Ken Zazpi taldearen sortzaile, konpositore eta kantaria izan da urte luzez; bederatzi disko grabatu dituzte elkarrekin.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA

AZAROAK 7, MARTITZENA, 21:00

GONBIDATUA: BEÑARDO KORTABARRÍA, ANTZUOLAKO ALKATEA ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

goiena

Zu hemen zaude.





Olakua auzoko dorretxean egokitu du udalak *cowork* gunea. O.E.

'Cowork'-a: lanerako eta elkar ezagutzeko gunea

Olakua dorreko lehen solairua ekintzaileak elkartu eta euren proiektuak elkarren arteko laguntzarekin gauzatzeko gunea izango da astelehenetik aurrera. Beheko solairuan, berriz, formakuntza eskaintzeko gunea egokituko dute

Oihana Elortza OÑATI

Ekintzaileendako gunea izango da datorren astetik aurrera Olakua dorreko lehen solairua. Sei mahai daude, baina proiektura batzen diren herritarrek eurek aukeratu ahal izango dute lan egiteko ordutegia, eta, hala, hamabi lagunendako tokia ere egon daiteke hor.

Olaburu eta dorrea

Proiektua martxan jartzen laguntzeko Olaburu zentroa ere badu Udalak herriko ekintzaileendako. Azpiegitura horrek negozioa martxan jartzeko lokala eskaintzen dio interesatuari, alokairu baten truke. Olakua dorreko *cowork* guneak, baina, beste xehetasun bat du. "Elkarlana sustatzeko gune bat da eta ez da mugatzen proiektuaren hasierara. Esaterako, dagoeneko lanean ari diren autonomoendako tokia ere badago hemen. Espazio partekatuta bat da, elkar ezagutzeko eta proiektuak gauzatzeko. Gune batek ez du bestea

baliogabetzen, osagarriak dira Olaburu eta Olakua dorreko *cowork* gunea", azaldu du Unai Kortabarriak, Udaleko Enplegu teknikariak.

Bi gune

Bi erabiltzaile motari zuzendutako espazioa izango da Olakua dorrekoa, Kortabarriak esan duenez: "Enpresa bat sortu barik ideia bat buruan duen ekintzaileak, batetik, eta alta emanda dagoen autonomo profesional bat, bestetik".

Eskaerak jaso eta Enplegu batzordeak onartu ostean kontratuak sinatuko dira, eta baldintzak ezberdinak izango dira. Ordutegia, esaterako, partekatua edo osoa izan daiteke eta horrek

BI ERABILTZAILE MOTARENAKO GUNEA DA: EKINTZAILEAK ETA AUTONOMO PROFESIONALAK

ere baldintzatzen du prezioa. Orain arte bi lagunek egin dute gunea erabiltzeko eskaera, baina izena emateko eperik ez dago, edozein momentutan egin daiteke. "Oinarrietan puntuazio handiagoa dago jasota oñatiarrrendako, baina kanpokoek ere egin dezakete eskaera", zehaztu du Enplegu teknikariak.

Cowork gunean sei mahai eta Internet konexioa daude. Ekintzaileak berak eraman beharko dituzte lanerako tresnak. Beheko solairuan erabilera askotariko gela egokitu dute; helburua da formakuntza saioak egitea han.

Martitzenean

Inaugurazioarekin bat eginez, Udalak MUko Enpresagintza Fakultatearekin antolatutako ekintzak ere egingo dituzte datorren astean. Martitzenean, ekintzaileak elkartu, elkar ezagutu eta dituzten beharrei buruz elkarrekin hausnartzeko jardunaldia egingo dute fakultatean, 17:00etatik 19:30era.

Lehengo autobus zerbitzuak eskatzen jarraitzen du Udalak

Herritarren babesa ere jaso gura du auzi horretan, eta udaletxeko sarreran jarri dute sinadurak biltzeko gunea

O.E. OÑATI

Urriaren 2az geroztik lehen baino autobus zerbitzu gutxiago daude Oñatitik inguruko herrietara joateko, eta herri osora zabaldu da kexa hori. Irati Etxeberria Mugikortasun zinegotziaren esanetan, urriaren 9an izan zuten azken bilera Aldundiko ordezkariekin. "Esan ziguten oraindik goizegi zela balorazioa egiteko. Harrezkero, ez dugu beste berririk eta beste bilera baterako datarik ere ez digute jarri".

Linea gutxitzea indarrean jarri ahalaz bat, hainbat herritar udaletxera joan ziren euren desadostasuna Udalari jakinaraztera. Udalbatza osatzen duten alderdi biak ere ez daude pozik erabaki horrekin. Urriko osoko bilkuran EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuen murrizketa hori salatzen eta sinadura bilketa abiaraziko zutela esaten. EAJko udal taldea ere murrizketa horren kontra agertu zen, baina mozioaren aurkako botoa eman zuen, moduarekin ez zeudelako ados. "Gu alkatetzan egon ginen garaian ere tokatu zitzaigun autobus lineak jartzea, zerbitzu hori ematea oñatiarrei. Baina

Aldundira joanda, bilerak egin da eta konstanteak izanda lortu genuen. Mozioa ez da horretarako bidea", adierazi zuen jeltzaleen bozeramaileak, Lourdes Idoiak. Mikel Biain alkateak adierazi zuen mozioa udalbatzako alderdiak erabil dezakeen tresna bat dela eta Irati Etxeberriak, gaia jarraitzen ari direla eta Aldundiarekin egoteko prest daudela, nahiz eta oraindik datarik jarri ez duten.

Kaltetuak

Aldaketa horien ondorioz, egun ez dago zuzeneko linearik Oñati eta Bergara artean, eta Gureak-era lanera joaten diren herriko kolektiboari, esaterako, zuzenean eragiten dio horrek. "Orain mikrobus bat jarri diegu, lanera eraman eta handik etxera ekartzeko, baina beste bide batzuk ere ari gara aztertzen", adierazi du Etxeberriak. Bestalde, Larraña institutuan, esaterako, Bergarako ikasle asko dituzte eta hango ordezkariak ere jarri dira harremanetan Udalarekin euren kexa adierazteko. Astelehenean hasi ziren sinadurak batzen eta egun bakarrean 100dik gora lortu ziren.

Erreka garbitu eta landare inbaditzaileak kenduko dute etzi

Oñatiko Natur Eskolak antolatuta, erreka garbitzeko irteera egingo dute etzi, domeka. 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan, eta gero, taldeka banatuko dira erreka zati ezberdinak garbitzeko. Aldi berean, landare inbaditzaileak kenduko dituzte. Urtero egiten duten irteera da hori, eta, aurrekoetan bezala, oinetako erosoekin joatea gomendatzen dute antolatzaileek. Uraren eta Errekaren Astea egin dute aste honetan eta horren barruan sartzen da domekako ekintza hori. Astelehenean, Esako urtegia handitzearen egungo egoera azaltzera joango da Iker Aramendia kultura etxera, 19:00etan.

Aurrekontuetarako ekarpenak jasotzeko bideak jarri ditu EAJk

Datorren urteko aurrekontuak lantzen hasita dago EAJ alderdiko udal taldea, eta herritarren iritziak, ekarpenak eta proposamenak jaso gura ditu, "datorren urteari begira aurkeztuko dituzten ekimenetan oñatiarren beharrei, eskaerei eta iradokizunei erantzuteko".

Datorren azaroaren 10era, egubakoitza, bitartean, batzokiko postontzian, helbide elektronikoz (pnvonati.partaide-tza@gmail.com), udal taldearen sare sozialetan (*Facebook* eta *Twitter*) edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango dizkiete oñatiarrek udal zinegotzi jeltzaleei 2018ko aurrekontuetarako proposamenak.



Jardunaldiak promozionatzeko egindako bideoaren irudi bat. ANTIXENA GAZTETXEA

Iraganera begiratu, etorkizun eraikitzeko

100 urte igaro dira Errusiar Iraultza gertatu zenetik, eta, mendeurrena baliatuta, mota guztietako ekintzaz osatutako jardunaldiak antolatu ditu Antixena gaztetxeak, hilaren 5ean hasi eta 19ra bitartean –hitzaldiak, autoformakuntza saioak, dokumentalak...–

Eneko Azurmendi OÑATI

Aimar Uribealzo izan da jardunaldi horien sustatzaile nagusia. "Errusiar Iraultzaren 100. urteurrena izanik, momentu ezin hobea zela pentsatu nuen", azaldu du.

Sozialismoa izango da jardunaldi horien ardatza. Hala ere, gai ezberdinak jorratzeko "aitzakia" ere badira, Uribealzoaren esanetan. "Gizarte ereduaren auzia hor dago eta gaur egun, Euskal Herri mailan, beste gai batzuk ere modan daude, auzi soziala edota feminismoa, esaterako. Hau beste gatazka mota bat da, plazaratzea nahi duguna, eta horren inguruko eztabaida gizarteratzea da nahi duguna".

Sobietar Iraultzaren historia azaltzea izango da helburuetako bat. "Ez iraultza bera bakarrik, baizik eta horrek munduan eta Euskal Herrian izandako eragina ere aztertuko dugu egun hauetan", azpimarratu du.

Domekan hasiko dira jardunaldiak, lau fanzineren eta mu-

sika bilduma baten aurkezpenarekin. Antixena gaztetxean izango da hori, 18:30ean hasita. "Liburuetatik ateratako eduki teorikoz osaturiko lau fanzine aurkeztuko ditugu eta ondoren 18 abesti dituen musika bilduma aurkeztuko dugu. Formatu bitxia izango du. Izan ere, 100 urte barruko euskal estatu sozialista hipotetiko batean kokatutako irratsaio bat izango balitz bezala dago planteatuta. Iragarriak, albisteak eta elkarrizketak, guztia testuinguru horren baitan dago kokatuta", azpimarratu du Uribealzo.

Horrez gain, esan bezala, gustu guztietarako ekintzak egongo dira: "Hitzaldiak, dokumentalak, bazkari errusiarra –25 plaza

**SOBIETAR IRAULTZA
ETA HORREK
HISTORIAN IZAN DUEN
ERAGINA AZTERTZEA
IZANGO DA HELBURUA**

daude soilik eta tiketak Arrano tabernan eros daitezke–, poesia emanaldia, erakusketa eta autoformakuntza saioak. Azken hauek hitzaldiak baino parte-hartzaileagoak dira. Borobilean jarri, testuak banatu, eta gaia komentatzen joateko aukera ematen digute".

Eskaintza zabala dela eta, herritarrek jardunaldietan parte hartzea animatu gura izan ditu Uribealzo. "Herritarrek, euren interesen arabera, formatu ezberdinetako eskaintzak dituzte aukeran. Herritar guztiei zuzendutako jardunaldiak dira, oñatiarrak izan zein kanpokoak izan. Beraz, animatu daitezela parte hartzera", zehaztu du.

Egitarau guztia Goiena.eus webgunean dago ikusgai.

Gaztetxeko beste ekintzak

Jardunaldi horietaz gain, beste zenbait ekintza ere egongo dira azaroan Antixenean, eta barra irekita egongo da egubakoitzero, 18:00etatik aurrera.

Astelehenean hasiko dute Aste Kulturala Pake Lekun

Datorren egubakoitzean, urtero moduan, antzerkia eskainiko du Ikusi-Makusi taldeak Santa Anan

E.A. OÑATI

Asteari hasiera emateko, Aloña eta Goizalde abesbatzen emanaldia izango da astelehenean, 18:00etan, Santa Anan. Martitzenean, 17:30ean, Jose Antonio Azpiatzuk hitzaldia eskainiko du Pake Lekun: *Juegos y apuestas en la historia vasca*. Eguaztenean, 17:00etan, *Bienvenidos al Norte* pelikula eskainiko dute kultura etxean. Eguenean, 17:00etan, bingo berezia egingo dute Pake Lekun, opari bereziki. Egubakoitzean, azkenik, Ikusi-Makusi antzerki taldearen emanaldiarekin emango diote bukaera Aste Kulturalari. 17:30ean izango da hori, Santa Anan, eta bazkideei zuzendutako emanaldia izango da. Abenduaren 3an, berriro eskainiko dute antzerkia, oraingo honetan herritar guztiei zuzenduta –19:00etan, Santa Anan–.

Antzerkiari dagokionez, *Oportetara goaz!* izeneko emanaldia izango da. Honela laburbildu du antzerkia Asun Arzuagak, zuzendariak: "Ezkonduta dauden bi emakumek lagun ezkongabea Benidormera eraman gura dute, apur bat animatu dadin. Gizonei ezer esan gabe joan nahi dute, baina bukaeran arazo batekin egingo dute topo".

Txertoa jartzera ez dira Zubillagara eta Olabarrietara joango

Gripearen aurkako txertoaren kanpainaren barruan, Zubillaga eta Olabarrieta auzora joan izan dira azken urteetan osasun zentroko langileak, auzotarrei txertoa ematera. Aurten, baina, ez dira joango. Arrazoia da txertoa hartzera joaten zirenean auzotarrak gai direla osasun zentrorra joateko. Hala ere, joan ezin direnei etxera joanda emango diete.



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Hilotza

Hil egin zen, baina ez zuten, inola ere, hilobiratu nahi.

Ustel usaina jasanezina izan arren, gurpil aulkian ateratzen zuten kalera, koadrodun mantak belaunburuak estaltzen zizkiola.

Ingurukoak konturatuta zeuden.

-Aizu, hilda dago, e!, esaten zieten.

- Inoiz baino osasuntsuago dago hau!, erantzuten zuten, ordea, mespretxuz.

Laster hasi zitzaizkion zizareak begi zuloetan eta haragia belzten.

Deskonposizioa. Eta gogotik egin behar izan zuten lan tanatoestetizistek, hilotz hartan bizia irudikatu ahal izateko.

Usteletik bizi nahi duten putreak zebilzkion inguruan, bizkartzain lanetan, kalean gora eta behera paseatzen zuten bitartean.

Halako batean, katalanek lurtean zulo sakona zabaldu eta bertan ehortzi zuten agurea.

Baina zombien antzera, hilobitak metakarpoa, kubitu eta erradioa atera nahian dabil, eskua luzatuta. Euskal herritarrok harlauza pisutsua ezarri behar diogu, lehenbailehen, hilobi gainean, "una, grande y libre" izateari –inoiz izan bazen– aspaldi utzi zion hari.

Oñatin, iaz, 2.200 txerto inguru jarri ziren –65 urte edo gehiago dutenen %70i–.

Aurten ere, antzeko kopuruetan ibiltzea espero dute anbulatorioko arduradunek. Kanpaina aste honetan hasi da eta bi hilabete inguru iraungo du. Txertoa hartzeko, aurrez txanda eskatu behar da anbulatorioan, 943 03 54 40 telefonora deituta.

Gripearen kontrako txertoa segurua eta eraginkorra dela azpimarratu du Jon Darponek, Osasun sailburuak.



Aloña Mendin diharduten emakume pilotariak, Zubikoako frontoian. MIREIA BIKUÑA

Hamabi emakume, pilota taldearekin entrenatzen

Aloña Mendiren pilota sailak emakumeen taldea sortu du. Eguenero entrenatzen dira, Zubikoako kiroldegiko frontoian, 20:30ean, ordubetz, Josu Osaren aginduetara. Apurka-apurka hasiko dira txapelketak eta lagunartekoak jokatzeko.

Mireia Bikuña OÑATI

Aloña Mendiren pilota sailak mende erdia bete duen honetan, aspaldiko amets bat betetzeko aukera izan dute arduradunek: emakumeen taldea. "Sorpresa izan da. Sorpresa ederra. Goxoa. Pilotan hasi direnek Herriko Pilota Txapelketan parte hartu zuten eta guk gonbita egin genien entrenatzera etortzeko. Eran-tzuna oso ona izan da", esan du pilota saileko arduradun Josu Osak.

Eguenero elkartzen dira Zubikoako pilotalekuan, 20:30ean, ordubetz. Osak berak gidatzen die entrenamendu saioa. Batzuek esperientzia handiagoa dute pilotarekin. Beste batzuk hasiberriak dira. Guztiek ilusio eta gogo berbera dute: pilotarekin hasitako harremana luzea izatea. "Lehen pausoa eman ostean, gurako genuke etorkizunerako atea zabaltzeko balio izango balu. Atzetik datozen pilotariei bidea egiten lagunduko dien taldea izatea", esan dute.

Adin eta maila ezberdinak

Hamabi emakumek dihardute, oraingo. Adin eta maila ezberdinetakoak. Batzuk pilotaren oinarrizko kontzeptuak barnatzen hasi dira. Beste batzuk, aurrez ikasitakoa hobetzen. "Bi jokalarik gazteenek hiru urte daramate pilotan. Teknikoki maila ona dute eta gaztetxoak dira, gainera. Dena den, hau hasi besterik ez da egin", dio Osak.

Master Cup

Iaz egin zen lehenengoz Emakume Master Cup txapelketa, bikoteka. 80 pilotari lehiatu ziren orduan. Oraingo honetan, lau t'erdikoa hasi berri dute. 66 pilotari hasi dira lehian, eta hor

EGUENERO ENTRENATZEN DIRA ZUBIKOAKO FRONTOIAN, ORDUBETZ

daude Aloña Mendiko hiru ordezkari: Uxue Oses, Maddalen Etxegarai eta Mireia Mugartza. Azken horrek badaki zer den halako txapelketa baten parte hartzea. "Iaz bikotekakoan egon nintzen, Itziar Gartziarekin. Esperientzia ederra izan zen zenbat emakume pilotari dauden eta zaleek nola erantzuten duten ikustea. Oraingo honetan, baina eta distantzia motzean jokatuko dut", azaldu du Mugartzak.

Aurreko aste bukaeran Oñatin bertan jokatu ziren lehen kanporaketak, eta Aloñako hiru ordezkariak aurrera egin zuten.

Lagunartekoak

Oraingo, hiru horiek hasi dira lehiatzen. Asmoa da gainerako guztiak ere animatzea. "Geroz eta txapelketa gehiago dago emakumeendako. Txapelketak ez badira, erakustaldiak edo lagunartekoak ere jokatzeko dira. Ea, bada, guztiak animatzen diren halakoak jokatzea", diote.

Aukeran Dantza Konpainia eta musika klasikoa, Musikegunetan

Azaroko lau zapatuetan egongo dira 39. ekitaldiko kontzertuak, Santa Ana antzokian, 19:00etan

M.B OÑATI

Azaroaren 5a, 12a, 19a eta 26a. Horiexek dira 39. Musikegunetako kontzertuez gozatzeko egunak. Santa Ana antzokian, 19:00etan. Guztietan musika klasikoa izango da oinarria, baina modalitate ezberdinekin. Aurtengo berrikuntza Aukeran taldearen dantza emanaldia izango da. Hilaren 12an, Alos Quartet taldeak *Garden* diskoa aurkeztuko du Aukeran Dantza Konpainiarekin sortutako ikuskizunean. Biolinak, biolak eta txeloak bat egingo dute Edu Muruamendiarazaren dantza pausoekin.

Soinu mestizoa

Beste hiru emanaldietan, musika izango da protagonista nagusia. Lehen emanaldia Khami taldeak egingo du. Izen propio asko batzen dituen proiektu

berria: Iñaki Salvador, Garikoitz Mendizabal eta Kike Arza, besteak beste. Kultura nahasketen ardatz unibertsalari segika, berezko soinua eta mestizoa batu dituen taldea da. Hilaren 5ean egingo du emanaldia.

Ganbera doinuak

Azaroaren 19an Sarasate bikotearen txanda izango da. Jonathan Mesonero eta Mercedes Medinak osatzen dute taldea. Biolinaren eta pianoaren laguntzarekin, ganbera doinuz beteko dute aretoa.

Azkenik, hilaren 26an, *Soinuaren bidaia* izeneko emanaldia egingo dute Adriana Grigorasek, Amaia Zipitriak, Alberto Urretxok eta Miren Urbieta-Vegak. Azken hori gonbidatu berezia izango da. Hain zuzen ere, konpositore ezberdinen piezak jo eta interpretatuko dituzte.

Punta-puntako trikitilarien jaialdia Santa Anan, bihar

Bederatzigarrenez egingo du Lizargarate Elkarteak trikitilarien topaketa. Hamasei trikitilari elkartuko dira Santa Anan egingo den jaialdian (bihar, zapatua, 17:30). Aratz, Mattin, Andoni eta Garazi laukoteak hasiko du jaialdia. Horien ostean, bikoteka igoko dira oholtzara: Maitane Aierza eta Aiora Ur-dangarin, Miren eta Roberto

Etxebarria, Jon Ostolatza eta Rakel Pujana, Eider eta Lierni Tolosa, Aitor Uzkudun eta Naiara Urresti, eta Ander Beldarrain eta Izar Makuso.

Herritarren artean jaialdiak izan ohi duen harrera bikaina ikusita, aurrez sarrerak erosteko aukera dago: Arrano tabernan edo erreserba eginda lizargarateelkatea@gmail.com helbidean. Era berean, jaialdiaren ostean egingo den afarian parte hartzeko txartelak salgai daude leku berberetan.

Leku bakarra dago libre film laburren rallyan parte hartzeko

Azaroaren 11n egingo dute VIII. lehiaketa, baina di-da batean bete dira parte-hartzaileendako lekuak. Hogei talderendako plazak zeuden, eta, lehen eguneko inskripzio kopuruaren ostean, bakarra geratzen da. Interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena orl.antolakuntza@gmail.com helbidean, taldeari buruzko datu guztiak.

Lehiaketari berari dagokionez, taldeek hamaika orduan egin beharko dituzte film laburrak. Egunean bertan jakingo dute erabili beharreko generoa eta objektua eta derrigor agertu beharreko lekuak zeintzuk diren.

Sari banaketa ekitaldia lan guztiak ikusi ostean egingo dute. Unean bertan erabaki beharko du epaimahaiak zein den lanik onena. Bestalde, ikusleek euren lanik gustukoenari botoa emateko aukera izango dute. Ikusleen Saria izango da hori.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18, solairuartea esk.
685 70 17 96

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



lazko lasterketako helmugan, korrikalari bat irribarrearekin, probak emandakoarekin pozik, antza. I.SORIANO

Helmugan osterera ere 400 irribarre ikusteko gertu

ATLETISMOA Bihar, zapatua, egingo dute, 17:00etan hasita, Antxintxika Krosaren 13. edizioa –'handbike' eta gurpil aulkikoak lehenago irtengo dira–. Antxintxikako, Hanka Labankako eta Aspaceko 70 lagun ibiliko dira lasterketa antolatzen

Xabier Urzelai BERGARA

Zapatuan, 17:00etan, 400 korrikalari inguruk hasiko dute Antxintxika Krosaren 13. edizioa –Mikel Crespo memoria–. Eguaztenerako 330 lagunek emana zuten Internetez izena, eta oraindik 24 ordu zituzten korrikalariak: "Aspaldi konturatu ginen lasterkariak urtero gurera erakartzeko mimitu egin behar ditugula. Gaur egun proba mordoa daude, eskaintza zabala da, eta ez bakarrik errepideko lasterketetan, baita mendikoetan ere. Eta, zerbait berezia eskaini behar diezu korrikalariari: ondo antolatutako proba bat, eroso egon daitezela, anoa-postu egokiek, urtero opari ezberdin bat eman... Esaterako, jendea nekatuta dago leku guztietan opari moduan kamisetak jasotzearekin, eta gu halako detailak zaintzen ahalegintzen gara, urtero ematen diegu zerbait ezberdina", adierazi du Aitor Rementeriak.

Bada, lasterketa behar den moduan antolatzeko, Antxintxika taldea osatzen duten ordezkari ia guztiak egongo dira bihar lanean: "Eta gure taldekoekin batera Hanka Labanka patinatzaile taldekoen eta Aspaceko lagunak laguntza ere izaten dugu. Guztira, 70 lagun inguru izango gara lanean".

Aspanogirekin elkarlanean

Bestalde, lasterketako izen-emate bakoitzeko euro bat Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartearendako izango da: "Aspanogiko lagunak karpa bat jarriko dute plazan, eta jertseak, eskumuturrekoak... saltzen ibiliko dira. Horrelakoetan, giro polita jartzen dute", adierazi

"KORRIKALARIA MIMATU EGIN BEHAR DA, BESTELA EZ DA OSTERA ERE ETORTZEN"

zuen Antxintxikako beste ordezkari batek, Mikel Lasak, aurkezpen egunean.

Hala, hamahirugarren edizioak hainbat momentu berezi izango ditu, eta horietako bat izango da atletismo epaile zen Jose Ramon Petreñas eta Mikel Crespo taldekidea gogoan izango duten unea –bailarako azkarrenek Aretxabaletako gaztearen izena izango duen saria irabaziko dute–.

Maila oneko korrikalariak

Lasterketaren antolatzailleek aurreratu dute patinatzaileen artean iazko gizonetzko eta emakumezko onenak irteera puntuan izango direla. Eta korrikalarien artean bizkaitarren artean borroka polita egongo dela: David Gartzia –proba zazpi alditan irabazi du– eta Aitor Mimentzak esan dute lasterketan egongo direla. Eta, hain zuzen, borroka horretan egoten ahaleginduko dira, besteak beste, Beñat Arnaiz, Endika Donnay eta Iñigo Alzola korrikalariak.



M.BIKUÑA

Basaurik ez du berriz barkatu

ESKUBALOIA Beste urte batzuetakoa baino liga hasiera makalagoa egin du azken urteotan oñatiarren eta arrasatearren kontrario gogor izan den Basaurik, baina eguaztenean Zubikoan erakutsi du badatorrela atzetik aurrera (22-25). Bihar, Bidasoa-Irun izango da Zubikoan (18:00).



ARRASATE ATLETIKO

Harrobiarekin lanean osterera ere

ATLETISMOA Arrasateko Atletismo Eskolakoek ere hasi dute ikasturtea Mojategin. Eguaztentean eta egubakoitzetan egiten dute ordubeteko saioa (18:00-19:00). 8 urtetik aurrerakoak dabilta bertan, eta Debagoien osoko gazteak dabilta. "Zabalik ditugu ateak, etorri probatzera", diote arduradunek.

Geaxi Ezpeleta txapelkun

BOLA-JOKOA Elgetako Geaxi Ezpeletak irabazi du Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketa, emakumezkoen kategorian.

Lau tiraldi izan ditu txapelketak, Azkoitian, Markinan, Eibarren eta Bolibarren, eta Ezpeletak guztira hamaika txirlo bota ditu. Gizonetzkoetan, Elgetako taldeko Sebastian Arantzabal bosgarren sailkatu da, 17 txirlo jota.



ANTOLATZAILAK

Sailkapenaren goialdean egoteko hautagaitza

FUTBOLA Mondra zortzigarren jardunaldiko protagonistetako bat izan da, Real Unioni bost gol egin eta gero; bihar, Amaikak Bat hartuko du. Lider dagoen Bergarak bigarren dagoen Tolosaren bisita izango du eta UDAk, laugarren dagoen Oiartzunena

Xabier Urzelai ARRASATE

Sailkapenak inoiz ez du talde guztien errealitatea berdin erakusten. Zenbaki hotzak dira, puntu batuketa bat, baina ez egia osoa. Beti ez da berdeguneetan gertatu izandakoaren isla. Mondrak, orokorrean, sentazio onak transmititu izan ditu liga hasieratik –beti egoten dira salbuespenak–. Josu Zubiarekin iazko liga amaieran izandako txakalaldia gainditu dute, baina Davilaren eta Romeroren mutilek partidu batzuetan ez dute lortu berdegunean erakutsitakoari etekina ateratzerik; merezitakoa baino gutxiago jaso izan dute.

Horregatik, sailkapeneko zazpigarren postuak (13 puntu) nekez erakusten du talde horren benetako gaitasuna, eta bai joan den astean Gal-en egindako partiduak (0-5). Hasierako ordu erdian indarrak parean egon baziren ere, 30. minututik aurrera zaparrada jaso zuen Real Unionek –Imanolek, Aizpuruak, Gorkak, Mikelek eta Pavonek egin zituzten golak–. Bada, zuri-moreek zapatuan dute, sailkapenean ondoan duten Amaikak Batek kontra –puntu bat gutxiago dute debarrek–, goialdean egoteko hautagai direla erakusteko aukera.



Sanchez, Oiartzungo kontrarioa gaintzeko lanean. I.SORIANO

LEHENENGO POSTUAN DAGOEN BERGARAK KONTRARIO GOGORRA IZANGO DU, TOLOSA BIGARREN DAGO ETA

Bergarak lider jarraitzen du
Berdindu egin zuen joan den astean Bergarak (1-1), eta lehenengo postuan egoteko beharrezkoa den jarrerari esker berdindu zuen: atzetik joan arren, amore eman ez zuelako. Izan

ere, 88. minutuan egin zuten mahoneroek berdinketaren gola, eta lider jarraitzen dute. Bihar, berriz, liderraren sendotasuna kolokan jartzera etorriko da bigarren dagoen Tolosa. Oilarren arteko partidua, beraz.

Domekan Ibarren Aretxabaletak eta Oiartzunek jokatu duten partiduak ere erakargarritasun handia du, laugarren eta bosgarren postuetan daude eta. Biak datoz joan den asteko partidua berdintzetik; UDAkoek, gainera, haserre amaitu zuten epaileen lanarekin.

Leintz Arizmendik bolada ona eten du

Azken lau jardunaldiak irabazi eta gero –Mariño, Hernani, Goierri eta Pauldarrak–, Leintz Arizmendiko neskek 0-2 galdu zuten, eguaztenean, kategoriako lider Tolosaren kontra.

Etxekoek ondo eutsi zioten liderrari, baina azken minutuetan etorri ziren tolosarren bi golak. Arantza ateratzeko, bihar (17:30) jokatu dute, Leioan.



Leintz Arizmendikoak, eguaztenean, partidu aurretik. LEINTZ ARIZMENDI

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAK. EUSKAL LIGA

Leioa-Leintz Arizmendi
Zapatua. 17:30. Sarriena.

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Oiartzun
Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Bergara-Tolosa
Zapatua. 15:45. Agorros.

ERREG. PREFERENTEIA

Antzuola-Eibar
Zapatua. 16:00. Eztala.

Beasain-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Loinatz.

Zumaia-Mondra
Zapatua. 17:00. Zumaia.

Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Usabal.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Iliintxa
Zapatua. 16:30. Azkoaga.

Urki-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Anaitasu.
Domeka. 16:30. Azkoaga.

Elgoibar-Mondra
Domeka. 16:00. Mintxeta.

Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 16:30. Errotazar.

Eibar-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Unbe.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Goierri-Aretxabaleta
Domeka. 16:00. Urretxu.

EUSKAL LIGA

Mondrate-Mallabia
Zapatua. 17:30. Musakol.

Eskoriatza (atsedena).

GAZTEAK, LIGA NAZION.

Eskoriatza (atsedena).

GIP. HIRUGARREN MAIL.

Anoeta-Mondrate
Gaur. 22:00 Anoeta.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Trintxerpe-Eskoriatza
Gaur. 21:30 Pasai Donib.

SASKIBALOIA

EBA

Pas Pielagos-MU
Domeka. 18:00. Castaña.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

MU A-Getxosaski
Zapatua. 12:15. Musako.

GIPUZKOAKO SENIOR

Aloña Mendi-Erroibide
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Dolphins-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

SENIOR, BIGARREN M.

Larramendi-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

SENIOR, HIRUG. M.

MU C-Oiarso
Domeka. 16:00. Iturripe.

Aloña Mendi-Ostadar
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Take Aralar-Eskoriatza
Zapatua. 14:00. Tolosa.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ford Mugarrri-Urdaneta
Domeka. 11:00. Iturripe.

Fagor Indus.-Bidasoa
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSKAD. EMAKUMEZKO.

Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Urola-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Zumar.

GIP. BIGARREN MAILA

Arrasate-Muntzarpe
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Bergara-Hondarribia
Zapatua. 18:30. Labegar.

GAZTE MAILA, GIZO.

Mondragon L.-Bidasoa
Zapatua. 19:45. Zubikoa.

Bergara (atsedena).

GAZTE MAILA, EMAK.

Athlon Aloña-Leinzaran
Domeka. 12:00. Zubikoa.

ATLETISMOA

ANTXINTXIKI KROSA

Zapatua. 17:00.
Soraluzen. 15:00etan hasita gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte Bergaran.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Kanpanzar ART-Getxo
Domeka. 12:30. Mojategi.

18 URTEK AZPIKOAK

Kanpanz. ART-Gernika
Zapatua. 11:30. Mojategi.

PILOTA

OÑATI

Egubakoitza, 18:15ean hasita, eskuz binako sei partidu: infantil mailakoak eta gazte mailakoak.

Zapatua, 16:15ean hasita, eskuz binako lau partidu: aletin mailakoak.

ARETXABALETA

Egubakoitza, 19:00etan hasita, eskuz binako bost partidu: aletin mailakoak. Zapatua, 18:00etan hasita, aletin mailako partidu bat.

BERGARA

Egubakoitza, 19:15ean hasita, eskuz binako hiru partidu: infantilak eta nagusiak. Eta, gomazko paleta emakumezko gazteen partidu bat.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:15ean hasita: Eskuz binako bi partidu, infantilak eta gazteak, Uarkapen.

Zapatua. 17:30ean hasita aletinen partidu bat, Uarkapen.

ZIKLO-KROSA Legazpiko lasterketan Aimar Erostarbek garaipena

Arrikruz ziklo-kros taldearen aurkezpen ofiziala egin eta segituan etorri da oñatiarren lehen garaipena. Asteburuan egin dute Legazpiko ziklo-krosa, eta bertan, kadete mailan, oñatiarrak izan dira protagonistak. Aimar Erostarbek irabazi zuen lasterketa, eta bigarren Unai Cueva taldekidea izan zen. Asteburuan Karrantzan dute hitzordua.

BERBALDIA Kirol taldeen komunikazioa hobetzea helburu

Kirol elkarteei komunikazio alorrean laguntza eskaintzeko, Debagoieneko Mankomunitateak hitzaldi zikloa antolatu du AZK eta Arteman enprekin batera. Azaroaren 8an Arrasaten egingo dute (Kulturatan, 18:00), azaroaren 15ean Bergaran (udal-etxean, 18:00) eta azaroaren 22an Oñatin (Santa Anan, 18:00). Izen-ematea: debagoiena.eus.

"Oso gurea, herrikoia, da 'El Caserío' zarzuela"

TERE GONZALEZ IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ZUZENDARIA

Azaroaren 18an, 19an, 24an eta 25ean eskainiko du Arrasateko elkarteak Amaia antzokian; hamazortzigarren lana da eta sarrerak 'Arrasate.eus' atarian eros daitezke

A. Aranburuzabala ARRASATE

Urtean zehar egindako lana jendaurrean erakusteko atzera kontaketa hasi da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideentzako. Prestaketa lanak ondo doaz eta gustura ari dira, nahiz eta bi ordu eta erdiko iraupena duen lanak zailtasun ugari izan.

Aurretik egin izan duzuen zarzuela da Jesus Guridiren 'El Caserío'.

Hala da, bai; 2004an eskaini genuen, orduan euskaraz. Aurten *El Caserío* eta datorren urtean *Luisa Fernanda*; orain dela urte asko egindakoak dira, jendearen gustukoak izan ziren; hortaz, merezi dute berriz ere egitea.

2004ko bertso bera da?

Uste dut ez daudela bi bertso berdin, betik daude ñabardurak. Berrikuntzarik dagoen jakiteko... onena da ikustera etortzea da! **Maitasun istorioa oraingoan ere ardatz; zeintzuen artean?**

Osaba Santi, Joxe Miel eta Ana Mari dira obra honetako protagonista nagusiak. Joxe Miel - Ana Mari lehengusua- parrandazale amorratua da, eta Osaba Santi etsitzear dago. Ana Mariri eman gura dizkio dituen lurrak, baina ez da zilegi, Joxe Miel dagozkiolako. Irtenbide onena bi gazteak ezkontzea dela uste du Osaba Santik, baina gazteak ez dira ondo konpon-



Tere Gonzalez. A. A.

Ez dituzu aukeratu aurreko bertsioko abeslari berak. Zeintzuk dira oraingoan?

Cristina Cubillo, Ana Mari da; Tio Santi, berriz, Igor Ganboa; eta Lander Oianguren, Joxe Miel. Horiez gainera, beste hainbat pertsonaia daude: Txomin (Mikel Izurrategi); Iñoxentzi (Maria Izaga); Eustasia (Mertxe Salaberri); abadea (Luis Okina); idazkaria (Jose Luis Azkarate); Miren (Belen Agirre) eta Berta Amozarrain da Cata.

Horiez gainera, ezin ahaztu abesbatzako eta orkestrako kideak.

Abesbatzak pasarte konplikatuetan ditu, baina seguru nago ondo egingo dutela. Orkestra, urtero moduan, Arrasate Musikalekoa da, Iker Olazabalek gidatuta.

Eta, nola ez, dantzariak ere badira.

Hala da, bai; herriko Arrostitz taldekoek egingo dute dantzan Arrasate Musikaleko txistularien doinuekin.

Hamazortzigarrena, Tere.

Urte asko dira zarzuela egiten. Pentsatu izan dut uztea, baina, ikusleak ditugun bitartean, jarraitzeko gogoarekin nago orain. Dugun publiko fidelari eskerrak eman gura dizkiot, eta, bide batez, estreinatzean duguna ikustera gonbidatu. Ederra da eta asko gozatuko duzue!

tzen... hortik aurrera, ez da saltsarik faltako.

Zer diozu zarzuela horren ezaugarri buruz?

Madriren estreinatuta zuten, 1926an, eta sekulako arrakasta izan zuen. Euskal baserriaren tradizioa islatzen du, eta hainbat euskal dantzaren erritmoa erabiltzen du sarritan -ezpata dantza, arin-arina eta biribilketa, esaterako-. Partitura ikaragarria da; lirismoa, folklore tradizionala, koruen trataera itzela eta goi mailako orkestrazioa bateratzen ditu Guridik.

Zabalik dago Jokin Zaitegi sariketan parte hartzeko epea

Kazuo Ishiguro japoniar-britainiarren 'The remains of the day' eleberria itzuli beharko du aurtengo irabazleak

A. A. ARRASATE

Arrasateko AED Elkarteak eta Elkar argitaletxeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatzen dute Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa. Arrasateko idazle famatuak literatura unibertsala euskaratzen egindako ahalegina omentzen du sariketarak; aurten, 29.edizioa egingo dute.

Abenduaren 22rako lagina

Kazuo Ishiguro idazle japoniar-britainiarri eman dio Suediako Akademiak aurtengo Literaturako Nobel Saria; hori horrela, *The remains of the day* eleberria itzultzea proposatu dute antolatzaileek oraingoan. Gogoia eta gaitasuna duen edonork har dezake parte sariketan. Horretarako, aurrez aipatutako liburuaren pasarte bat euskaratu beharko dute parte hartu gura

duteneak; *Postdata.elkar.eus* helbidean dago testu hori, baita sariketari buruzko informazio zabalera ere. Ondoren, bi dokumentu bidali beharko dira -abenduaren 22a baino lehen- *aed@aedelkaratea.eus* helbidera: itzulpena bera eta beste dokumentu bat norberaren datu pertsonalekin eta harremanetarako bideekin.

Asun Garitanok, Xabier Olarrak eta Xabier Payak osatuko dute epaimahaia eta urtarrilaren 15a baino lehen aukeratuko dute irabazlea.

lazkoa, inprentarako bidean

Gartxot Unsainek euskaratu ditu Bob Dylanen 100 kantua, iazko sariketa irabazita. Elkar argitaletxeak dagoeneko zuzenketak egin dituzte, eta, dena ondo bidean, Durangoko Azokan izango da eskuragarri.

Ruper Ordorika eta haren 'mugalariak' Amaia antzokian

Irailean Oñatin egin zuen Debagoieneko azkeneko kontzertua eta bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian izango da, 20:00etan. *Arrasate.eus*-en eta antzokiko leihatilan eskura daitezke sarrerak, hamar eurotan.

Urtebete da *Guria Ostatuan* lana argitaratu zuela, eta oraindik ere gozatzen ari da zuzenean aurkezten. "Oso ondo hartua

izan da diskoa. Niretako, lan luzea izan zen guztia antolatzea. Horrenbestez, azken diskoko kantuak joko ditugu Amaia antzokian, gehienbat, baina beste sasoi batzuetakoak ere izango dira kantu-zerrendan jasota", dio Ordorikak.

Ohiko *mugalariak* izango ditu Oñatiko musikariak biharko emanaldian ere lagun: Arkaitz Miner gitarrarekin eta biolinarekin, Hasier Oleaga baterian eta Lutxo Neira baxuan izango dira Amaia antzokiko agertokian.

KATALUNIA, 'PROPERA PARADA'...

GOIENA TELEBISTA, IKUSTENDA

AZAROAK 3, 21:00 ETA 23:00

KATALUNIAKO EGOERARI ETA ETORKIZUNARI BEGIRATUA.

MARESME, VALLES ORIENTAL, OSONA, SELVA, GIRONES, BARCELONES ETA VALLES OCCIDENTAL ESKUALDEETAN GRABATUTAKO ERREPORTAJE SORTA.

Ikusten  a

goiena

Zu hemen zaude.





Aurtengo edizioako sarien irabazleak, epaimahaikideak eta aurkezlea, zapatuko sari-banaketa ekitaldian. EUSKAL ZINEBILERA

'Kameratoia'-ren platoa Lekeition izan da aurten

Ikusgarri aretoan banatu zituzten, zapatuan, Topaguneren XIII. film labur lehiaketako sariak, oraingoan Zine Bilerarekin elkarlanean. Hirugarren saria lortu zuen Oñatiko LPM taldeak, hirugarrenez izan zen irabazle Uda Films taldea eta bigarrena, Txistana

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 70 gaztek baino gehiagok jardun zuten 48 ordutan euskarazko film laburrak egiten; gehienak 20 eta 22 urte bitartekoak. Mikel Zumetak eta Yogurinha Borova artistak lana izan zuten hamahiru lanen artean hiru onenak aukeratzen. "Maila handia dago, ez da egon beste urte batzuetan besteko alderik lanen mailari begiratuta".

Ikusgarri aretoan egin zuten Ugaitz Alegriak aurkeztu zuen sari banaketa ekitaldia; Durangotik Lekeitiora egin du aurten salto *rally*-ak, Euskal Zine Bileran gazteei espazioa eskaintzeko asmoz. "Oso pozik gaude sortu zen giroarekin; aurkezlea-

ren, epaileen, parte-hartzaileen eta publikoaren jarrerarekin ekitaldi umoretsua izan zen", esan dute antolatzaileek. *Kameratoia.eus* eta *Zinebilera.com* atarietan ikus daitezke lan guztiak eta ekitaldiko argazkiak.

'Dzanga' gaiari helduta Hamazortzi talde hasi ziren lanean eta hamahiruk bete zituzten lehiaketaren irizpideak. Irabazlea unibertsitatean sortutako Uda Films taldea izan zen -Trebiniukoak, Donostiakoak eta Lizarrakoak-. Ezin sinistuta igo ziren saria jasotzera, eta hirugarrenez irabazi zuten *Kameratoia*-ko sari nagusia, *Tazan* film laburrarekin. Epaimahaia-

ren esanetan, "egitura gehien errespetatuz istorio bat kontatzen duelako" eta, era berean, "baliabide teknikoaren erabilera" ere azpimarratu zuten.

Ondarroako eta Mutrikuko Txistana taldearen *Abisal* lanak "poetikaren bidez hausnarketarako bidea eskaintzeagatik" eskuratu zuen bigarrena. Eta Oñatira eraman zuten, *Dzanga??*-rekin, hirugarren saria, "umorearen erabilera burutsua" egin eta "baliabide tekniko murrizteiz etekina modu eraginkorrean erabiltzeagatik". Bikoizketa eta bideo desberdinen txertaketa erabilita lanari "balio handiagoa" eman ziotela gaineratu zuten epaimahaikideek.

Kirmen Uribe eta Rafa Rueda hurrengo 'Kulturizketak' saioan

Ondarroako idazlea eta Mungiaiko musikaria izango dira azaroaren 9an, 21:30ean, eskainiko den solasaldian

A. A. DEBAGOIENA Aspalditik ezagutzen dute elkar Kirmen Uribe eta Rafa Ruedak. Elkarrekin proiektu asko gauzatu izan dituzte; horien artean, Mikel Urdangarinek eta Bingen Mendizabalekin egin zituz-

ten *Zaharregia txikiegia agian...* eta *Jainko txiki eta jostalari hura* ikuskizunak.

Aipatutakoez gainera, proiektu kolektibo gehiago garatu ditu bataz zein besteak, paraleloki eutsiz bakarkako ibilbideari.

Elkarrekin esnatzeko ordua eleberria da Uribe iaz kaleratu zuen lana; horren aurretik idatzi zituen *Bilbao-New York-Bilbao* eta *Mussche*. Poesia eta saiakera lanak ere argitaratu izan ditu, eta baita gazteendako eta haurrentako lanak ere.

Hiri kristalezkoa da, Ruedak kaleratzearen duen bildumaren izena. Broken Bihotz eta PiLT taldetan jardun ondoren 2003an argitaratu zuen bakarkako lehen lana, eta argitaratzearen duen hori zazpigarrena da.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira urriko sarien irabazleak!

- IRAKURGAILUA**
Karmele Korta Mendiguren (Arrasate)
"KEN ZAZPI"ren OPARIA
Maite Aperribai Uribebarria (Arrasate)
HARREMAN DENDAKO OTARREA
Maite Andres Larrea (Aretxabaleta)
ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK
Onintza Belategi Unzueta (Arrasate)
Fernando Contreras Munilla (Bergara)
Adela Guridi Grisañeña (Oñati)
DEBAGOIENAKO JATETXEETARAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Iker Altuna Arenaza (Aretxabaleta)
Juan Antonio Agirre Iribar (Oñati)
Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
LABORATORIUMEKO SARIA
Martin Zaitegi Arrondo (Bergara)
BERTSO SAIORAKO SARRERAK
Itsaso Villar Velazquez (Eskoriatza)
Larraitz Madinabetia Garaikoetxea (Bergara)
Maria Gardoki Legorburu (Oñati)
Angel Elkorro Larramendi (Bergara)
David Garcia Martin (Eskoriatza)
Iker Arostegi Gallastegi (Arrasate)
"SOKA" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
Muxika Olasagasti sendia (Arrasate)
"HANDIA" PELIKULARAKO SARRERAK GORBEIA ZINEMAN
Jokin Larral Ilarduia (Oñati)
Iñaki Idigoras Igartua (Oñati)
Leire Garmendia Zumalde (Bergara)
Nerea Perez Idigoras (Arrasate)
Roberto Egia Okariz (Aretxabaleta)
Pilar Calvo Sodupe (Arrasate)
Aurori Iriarte Zubizarreta (Aretxabaleta)
Gotzone Arrese Errasti (Aretxabaleta)
Miren Urkiola Mendibil (Bergara)
Mikel Orobengoa Kruzalaegi (Arrasate)
EIBAR PARTIDURAKO SARRERAK
Igor Azkarate-Askasua Arana (Bergara)
Naiara Arribabalaga Elorza (Aramaio)
Maider Etxeberria Pagaldai (Bergara)
Alberto Moncayola Beain (Bergara)
BASKONIA-VALENCIA BASKETA PARTIDURAKO SARRERAK
Koldo Etxebarria Arregi (Arrasate)
Estibaliz Rodriguez Blanco (Arrasate)
Larraitz Herrero Urzelai (Arrasate)
Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK
Alazne Intza Araiztegi (Oñati)
Lorea Zabala Uribeetxeberria (Aretxabaleta)
Raul Fernandez Manchado (Arrasate)

Irabazi bi lagunendako otordua

LASA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bertsozale Elkarteari esker
Durangoko final-erdietako saiorako sarrerak ditugu.

Landako gunean, Durangon | Azaroaren 12ean, 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Bertso"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LUPD 15/1999 legearen arabera, jakingarria dugun zure datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuen bitartez automatikoki baten sartuko dira. Datu biltzearen helburu bakarra da indarrez dagoen zuzeneko gestioa. Eskubide zuzenak dauzkatuz gero, hauek zuzentzeko edo ezabatzeko, helbide honetara idatzi: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaitetz: 2017 (azarotik aurrera): 20 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

Joxan Etxeberria Luarizaristi

2017ko azaroaren 1ean hil zen, 68 urte zituela.

Urte askotan Alpeetan zehar pasatu dugu ederki, gure Tourreko ibileraren berri munduak baleki! Maillot, mendate, erlojupeko...

Lagunarterako aitzaki zenbat hartuko zaitugun faltan egon ez denak, ez daki kategoria berezikoa izan zarelako beti.



Tourreko lagunak.
Bergaran, 2017ko azaroaren 3an.



OROIGARRIA

Joxan Etxeberria Luarizaristi

2017ko azaroaren 1ean hil zen, 68 urte zituela.

Inoiz ikasi ez zenuena zer zen beldurra ta lotsa, Elementalak zeu izan zaitu arima eta ahotsa. Bizi izanak zor izan arren

amaieran heriotza joan zarenean utzi duzuna hau sentimendu arrotza zure azken hatsak eraman baitu gutako askoren bihotza.

Miguel Altuna Lanbide Heziketako lagunak.
Bergaran, 2017ko azaroaren 3an.



OROIGARRIA

Hector Prieto Rosado

2017ko urriaren 26an hil zen, 34 urte zituela.



Bizitzak bere lege duenez, badator eta badoa, baina ez zaigu ahaztu behar zuk gurean igaroa. Ekintzaille fin gisa eginez herrian gauza mordoa, eredu izan nahiko genuke zenuen bizi gogoa!

UDA.
Aretxabaletan, 2017ko azaroaren 3an.



OROIGARRIA



Joseba Iñurrategi Iriarte

2017ko urriaren 26an hil zen.

*Ixil-ixilik hainbeste erein zauen...
Beti gugan hazten jarraituko dozu, tio.*

Zure lobak.
Aretxabaletan, 2017ko azaroaren 3an.



ESKER ONA

Eugenio Iturbe Bengoa

2017ko urriaren 24an hil zen, 57 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Lemari eutsi, jaso aingura ipar izarran argira Enbata eta olatu artean, emun ametsi segida Askatasuna abordatzeko, bide bakarra hori da Zure ondoan egongo gare, itsasertzetik begira.

Arrasaten, 2017ko azaroaren 3an.



ESKER ONA

Hector Prieto Rosado

2017ko urriaren 26an hil zen, 34 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, agur ekitaldira etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2017ko azaroaren 3an.



HILDAKOAK

- Hector Prieto Rosado.** Aretxabaletan, urriaren 26an. 34 urte.
- Joseba Iñurrategi Iriarte.** Aretxabaletan, urriaren 26an.
- Jose Antonio Larrañaga Antza.** Arrasaten, 26an. 83 urte.
- Miguel Barquero Martin.** Arrasaten, urriaren 27an. 88 urte.
- Urbana Moreno Macias.** Arrasaten, urriaren 27an. 85 urte.
- Maria Aranburu Urzelai.** Oñatin, urriaren 27an. 85 urte.
- Benita Iturbe Milikua.** Bergaran, urriaren 28an. 92 urte.
- Roman Herrero Francisco.** Bergaran, urriaren 29an. 88 urte.
- Tomas Valle Fuentes.** Arrasaten, urriaren 31n. 90 urte.
- Jose Ramon Beloki Osinaga.** Arrasaten, 31n. 59 urte.
- Joxan Etxeberria Luarizaristi.** Bergaran, 1ean. 68 urte.
- Luis Zubia Ojanguren.** Oñatin, azaroaren 1ean. 80 urte.

ESKER ONA




Benita Iturbe Milikua

'Ikutixo'
Juanito Garateren alarguna
2017ko urriaren 28an hil zen, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoan izenean.

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin, oroimenean izango zara zu beti gurekin.

Bergaran, 2017ko azaroaren 3an.



OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: **NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55
BERGARA

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 3	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 4	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 5	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Astelehena, 6	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 7	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguaztena, 8	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 9	RUJ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 3	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 4	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 5	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 6	ESTELLA: Mabatxegi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 7	MOZOS: Igarrajirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 8	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 9	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 3	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 4	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 5	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 6	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 7	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 8	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 9	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2017ko abenduaren 31ra arte:	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	
2017 osan:	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskkelak@goiena.eus

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

1. Bibliotekaren Eguna

Bergarako San Martin Agirre ikastetxean, liburutegian ospatu zuten Bibliotekaren Eguna. Ikasle zaharrenak ipuin kontalari bihurtu ziren, txikien gozamererako.

2. Bizikletan

Ohitura osasuntsuak sustatzeko eta Debagoienean talde egonkorra sortzeko igo ziren hogeit hamar emakume bizikletetara, eta Mojatetik Urkulura egin zuten bira.



5

3. Herrixa Kantuan

Hileko azken zapatuan egiten dute Oñatin Herrixa Kantuan ekimena, Txantxiku Ikastolak eta musika eskolak deituta. Urrikoan ere batu ziren herritarrek.

4. Ibai Arte

Ibai-Arte merkatarri elkarteak antolatuta, pintxoak, ardoa eta zuzeneko musika izan ziren aurreko asteburuan Arrasateko Herriko plazako ekitaldi irekian.



6

5. 20 urte

Mago ibiltariarekin, elektrotarangarekin, pintxoekin eta deskontuekin ospatu zuen, joan den egubakoitzean, 20. urteurrena Oñatiko Txanda dendarien elkarteak.

6. Leire eta Aritz

Leire Guridi bergarra eta Aritz Ezenarro ordizierra gaur, azaroak 3, ezkonduko dira Bergaran. "Zorionak, bikote! Besarkada bat, familiako guztien partetik".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

#DIOTENEZ

185 URTE

Miguel Gonzalez Bastida **konpositorearen** *Estampas navideñas* obra jo eta abestuko dute Bergarako musika bandako lagunek urte **bukaeran** egingo duten kontzertuan. 185 urte bete ditu aurtan **bandak** eta pieza berezi horrek jarriko dio amaiera urteurren bereziari. **Gabonetan** egingo duten emanaldian izango da hori, herriko **pilotalekuan**, urtero moduan.

IRAETA

Antzuolako Iraeta **etxea** izan zen Arregiren eta Garañoren aukeretako bat *Handia* filmeko **baserria** izateko. XVIII. mendeko eraikina gura zuten zuzendariek, eta **baldintza** hori betetzen du Antzuolakoak. Baina gune batzuk **eraberrituta** dituelako ez zuten aukeratu. Francisco Ignacio de Iraeta **jaio** zen Antzuolako etxe horretan **parrokiako** erretoaulari hark ordaindu zuen.

'ZUTUBERRAK'

Eskoriatzako Olatz **Pagaldai** eta Arrasateko Jon **Zubiaga** aktoreek badute **proiektu** berria esku artean. Galder **Perezek** zuzendutako *Zutuberrak* antzezlanarekin ari dira lanean buru-belarri. Haur eta gazteei zuzendutako **komekia** da, eta, gogoko dituzten osagaiez baliatuta –Youtube, rapa, Internet, irudiak–, **euskararen** gaineko hausnarketa egiten dute. Azaroaren 26an,

domeka, egingo dute obraren **estreinaldia**, jendaurrean.

MAUXKA

Gero eta gutxiago falta da **Agustin Otxoa-Aizpuruak Oñatiko** **Mauxka jatetxe** berria zabaltzeko. Azaroan irekiko dute, 20an, eta **inaugurazio** ekitaldia nolakoa izango den pentsatzen hasita daude. Horren **entsegua** egin zuten joan den asteburuan, **lagunartean**.

AZOKA

Bigarren eskuko azoka egingo dute aurtan ere Oñatin. Azaroaren **25ean** izango da eta era guztietako **gauzak** jarriko dituzte **saltzen** hainbat herritarrek Foruen plazan.

ARETXABALETAN

Puntaik **Punta** egitasmoa Aretxabaletan egingo da **datarren** urtean. 2018ko **ekainean** izango da ekimen horren hirugarren **edizioa**.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Chloe Otxotorena Mendiola
Azaroaren 8an, 2 urte. Zorionak, *ganberrilla!* Dagoeneko bi urtetxo. Kandelari putz egiten eta bizkotxo goxo batekin ospatuko ditugu zure urtiak. Jarraitu zaren modukoa izaten. Muxu asko, etxekuan partetik. Asko maite zaitugu!




BERGARA
Manex Goitia Pagaldai
Azaroaren 7an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Ane Leturia Delfrade
Azaroaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, Ane! Disfrutatu eguna eta patxo handi bat, familiako partetik!




OSINTXU
Maddi Arando Arbelaitz
Azaroaren 6an, 10 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat etxeko danen baina, bereziki, Xabaten partetik.



ANTZUOLA
Ekaitz Alonso
Azaroaren 6an, 2 urte. Zorionak, gure txiki polit! Jarraitu beti bezain alai eta bihurri! Muxu handi bat aitaren, amaren eta familiara osoaren partetik! Asko maitte zaitugu!



BERGARA
Naia Ibarzabal Aranzabal
Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak, printzesa, etxeko guztien izenean. Muxu handi bat eta ondo pasatu.



OÑATI
Ekain Gereñu Arregi
Azaroaren 4an, 7 urte. Zorionak, Ekain! Ondo ospatu zure eguna eta muxu eta besarkada pila bat, familia osoaren partetik.




ARRASATE
Garazi Azkarate Ojanguren
Azaroaren 4an, 9 urte. Zorionak, etxekoen partetik! Lide, amatxo, lehengusu Oihan eta Hegoi, aita-amaamak eta osaba-izebak.



ARRASATE
Oier Guzman Orobengoa
Azaroaren 4an, 10 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunean. Patxo potolo pila aitaxoren, amatxoren eta Jokinen partetik. Mua!



ARETXABALET
Oxel Artolazabal Martinez
Azaroaren 4an, 12 urte. Zorionak, Oxel! Ondo pasa ezazu zure eguna eta benetan egun berezia izan dadin, zurekin ospatzera joango gara!




ARETXABALET
Malen
Azaroaren 3an, 2 urte. Zorionak, Malenxo! Ondo-ondo pasatu eguna, saltsera! Patxo pilo bat, etxekoen partetik.



ARRASATE
Hodei Martin Fuentes
Azaroaren 3an, 11 urte. Zorionak eta muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
Oier Mateos Ramos
Azaroaren 2an, 11 urte. Zorionak, txapelduna! Muxu potolo bat familiaren partetik eta jarraitu urteak betetzen holako *guapo* eta jator!



ARRASATE
Aaron Fernandez Jimenez
Azaroaren 2an, 3 urte. Zorionak, Aaron! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!



ARRASATE
Nahia Domingos Garay
Azaroaren 2an, 5 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo ospatu zure bosgarren urtebetetze eguna. Zorionak eta muxu handi bat, familia osoaren eta, batez ere, Aimarren partetik.




ARRASATE
Ane Diaz de Tuesta Maraño
Azaroaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, Ane, eta ondo-ondo pasatu!



ANGIOZAR
Mati Pagaldai Gomez
Azaroaren 1ean, 6 urte. Zorionak gure etxeko txikiari eta patxo zaparrada zuretzat.



OÑATI
Enzo Elizburu
Urriaren 31n, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna. Horrelako alai eta pozik jarraitu dezazula. Izugarri maite zaitugu! Muxu potoloak familia osoaren partetik.



ARRASATE
Beñat eta Luken Jimenez Orobengoa
Urriaren 31n, Beñatek 15 urte eta azaroaren 3an, Lukenek 12. Zorionak eskubaloiko jokalaririk onenei. Patxo handi bat Urbarriko zuen familiaren partetik. *Guapuok!*



OÑATI
Enaitz Kortabarria Txintxurreta
Urriaren 30ean, 10 urte. Zorionak, Enaitz! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, danon partetik!



ESKORIATZA
Elder Garcia Hermosel
Urriaren 29an, 6 urte. Zorionak eta patxo potolo bat familia osoaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3

ELGETA Gaztaina erreak

Gaztainak danbolinean erretzearekin batera dantzak, kantak eta bertsoak egingo dituzte eskolako aterpean.
Herri Eskolan, 14:45ean.

ARRASATE 'Gau Eguna'

17:30ean hurrekin mozorro tailer bideratua Biteri plazan, 18:15ean Ilargixorekin batera desfilea alde zaharrean, 18:30ean sorgin edabea eta hurrekin akelarrea Biteri plazan, eta 19:00etan nerabeekin Kluedo jolasa, hilketaren baten misterioa argitzen, Monterronen.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARETXABALETA Maketen erakusketa

Jose Manuel Mateosen lanak ikusgai, hilaren 26ra arte. Gaur zabalduko dute.
Arkupen, 18:00etan.

ELGETA Gaztaina erreak

Xalbadorpe elkartekoendako ekintza.
Ozkarbi elkartean, 18:00etan.

OÑATI Liburu aurkezpena

Juan Martin Elexpururen *Euskararen aztarnak Sardinian?* liburua aurkezpena egingo dute, Jerardo Elortzak bideratuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Aldeta taldea

Bizian bizi delako emanaldia egingo dute, debalde.
Aroztegin, 20:00etan.

ZAPATUA 4

BERGARA Zetazeoak eta itsas hegaziak ikustera

12 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta Santurtziko portutik irtenda Kantauri itsasoan zortzi bat orduko ibilbidea egingo dute, bi adituk lagunduta.
Autobus geltokian, 08:00etan.

ESKORIATZA Otatzara irteera

12-14 urteko nerabeei zuzendutako bi egunetako irteera izango da. Zapatuan, *paintball*-a egingo dute

Galarretan. Domeka eguerdirako itzuliko dira etxera.
Gaztelekuan, 09:00etan.

ARAMAIO Argazkigintza irteera

Alex Mendikutek gidatuta, Azkoaga auzora joango dira argazkiak egitera.
Bizente Goikoetxea plazan, 09:30etan.

BERGARA Bideo jokoan lehiaketa

Wolfram Encounter delako lehiaketa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldietan, zapatutik domekara.
Aranzadiko gimnasioan, 10:00etan.

OÑATI 'Oñati dana-zana' bisita gidatua

Landa inguruko eraldaketak gertutik ikusiko dituzte. Aurrez eman behar da izena udaletxean edo *odanazana@gmail.com* helbidean.
Antixenan, 10:30etan.

ANTZUOLA Pikunieta baserriko uzta bertatik bertara

Bisita gidatua, baserriko lana gertutik ezagutzeko.
Aipatutako lekuan, 10:30etan.

BERGARA 'O ohe huts' jaialdia

Euskal preso bergararik ez dagoela ospatzeko. 12:30ean bertsoak, 13:30ean poteoa, 14:30ean herri bazkaria eta kantaldia, 19:00etan ekitaldia, eta, 22:00etan, Arkada Social, Ufestuek eta Tximeleta taldeen kontzertua gaztetxean.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

BERGARA Soraluze-Bergara krosa

Antxintxika taldearen eskutik, 10.000 metroko lasterketa.
Soraluzen, 17:00etan.

OÑATI 'Co-escucha' tailerra

Tristurari buruzko saioa egingo dute. Irekia eta debalde.
Eltzian, 18:00etan.

ESKORIATZA Arimaz Ganbera Orkestra

Euskal musika herrikoia hari-orkestrarako egokitua piano eta abesbatzendako bertsoietan.
San Pedron, 20:00etan.

ARRASATE Ruper Ordorika

Mugalaris taldearekin egingo du kontzertua Oñatiko bakarlariak. Arkaitz Miner, Fernando Neira eta Hasier Oleaga oholztan. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 20:00etan.

DOMEKA 5

OÑATI Erreka garbiketa

Landare inbaditzaileak kentzeko irteera Natur Eskolakoekin.
Foruen plazan, 09:00etan.

ESKORIATZA Mendi irteera Kurtzetxikira

Murruxiko mendizale elkartearekin. 10:00etan Eskoriatzako Huheziko aparkalekuan eta 10:10ean Aretxabaletako Herriko Plazan.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARAMAIO Hiruko saskibaloitxapelketa

Maidar Undaren omenezko olinpiadak. Bi talde egongo dira: 3. eta 4. mailak, eta 5. maila.
Kiroldegian, 10:30etan.

ELGETA 'Pintxo domeka'

Tabernari bakoitzak pintxo bana aurkeztuko du lehiaketara.
Lau tabernetan, 12:00etan.

BERGARA Txistulari Banda

Kontzertua egingo du.
Udaletxeko arkupeetan, 13:00etan.

OÑATI 'Klash Royal' jokoaren lehiaketa

Bikoteka. Aurrez eman behar da izena. Mugikorrik ez dutenei utzi egingo zaie.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE 'Julio Galartaren mendeurrena' erakusketa

100 bat margolanekin osatu dute bilduma. Hilaren 18ra arte.
Kulturaten, 17:30etan.

OÑATI 'Errusiako iraultzak 100 urte (1917-2017)' jardunaldiak

18:30ean *Lau fanzine eta musika* bildumaren aurkezpena, eta, 19:00etan *Diez días que conmovieron el mundo* dokumentala.
Antixena, aipatutako orduetan.



IMANOL SORIANO

OÑATI IX. trikiti jaialdia

Lizargarte Elkartearen eskutik, punta-puntako trikitalariak batuko dira Oñatin. Askotariko piezak joko dituzte, binaka eta laukoteka. Ostean, afaltzeko elkartuko dira guztiak.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:30ean.

OÑATI Khami World Sounds taldea

Musikegunetako lehen emanaldia. Kultura nahasketen ardatz unibertsalari segika, berezko soinua eta mestizoa elkartu dituen taldea. Sarrerak, sei euro.
Santa Anan, 19:00etan.

OÑATI Manual De Combate taldea

Txileko taldearen kontzertua.
Pako tabernan, 20:00etan.

ASTELEHENA 6

OÑATI Ekintzailatza sustatzeko programa

Cowork gunearen inaugurazioa eta ate irekiak.
Olakua dorrean, 10:00etan.

BERGARA Komunikazioari buruzko hitzaldia

Desarrolla tus habilidades de comunicación e influencia con técnicas de programación neurolingüística delako berbaldea egingo du Vicky Valdiviesok.
Laboratoriumen, 14:00etan.

ELGETA Herri batzarra

Elgetako Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren eskutik, batzar irekia eta parte-hartzailea.
Udaletxean, 18:00etan.

OÑATI Oñati eta Goizalde abesbatzak

Erretiratuen abesbatzak.
Santa Anan, 18:00etan.

OÑATI Esako presa handitzearen gaur egungo egoera eta dokumentala

Los malos sueños de Rene Petit dokumentala eta Zangozako Plataformako kide Iker Aramendiaren hitzaldia.
Gaztelekuan, 19:00etan.

MARTITZENA 7

ARRASATE Odol ateratzea

Irekia, herritar guztiendako.
Anbulatorioan, 16:30ean.

OÑATI 'Elkarrekin Ekin' jardunaldia

Ekintzailatza sustatzeko ekimena.
Enpresagintzan, 17:00etan.

OÑATI Apustuen gaineko hitzaldia

Juegos y apuestas en la historia vasca delako berbaldea egingo du Jose Antonio Azpiatzuk.
Pake Lekun, 17:30ean.

BERGARA Oinarritzko argazkilaritza

Gaurtik hilaren 30era arte emango dute, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan. Hamalau personarendako lekua dago. Izen-ematea: 943- 76 00 01.
Arizondo argazkilarik elkartean, 19:15ean.

BERGARA Larrialdiei buruz berbetan

Salvar una vida está en tus manos delako berbaldea egingo du

Osakidetzako Larrialdietako kide Daniel Alonsok.
Aroztegin, 19:00etan.

OÑATI 'Urriko iraultza eta aurrekariak' hitzaldia

Gorka Etxebarriak egingo du berba Errusiako Iraultzaren 100. urteurreneko ekitaldien barruan.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE VI. Iragana Astintzen Zikloa

El desconocido taller artístico de Garagartza durante el siglo XVII. Los Elejalde delako berbaldia egingo du Pedro Etxeberria Gofñi historialariak.
Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Martitzenetako zinema

Rehenes pelikula emango dute.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 8

BERGARA Kafe Konpon

Etxeko tresna txikiak konpontzeko tailerra.
San Joxepen, 16:30ean.

OÑATI 'Bienvenidos al Norte' filma

Pake Leku erretiratuen elkartearen.
Kultura etxean, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Zurrumurrurik ez!'

Herritarren artean bizikidetzaren hobetu nahi duen egitasmoa Hiru taldeetan egingo dute lan: generoa, gazteak eta guraso-hezkuntza taldeak, hain zuzen ere.
Ibarraundin, 18:00etan.

BERGARA Emakumea eta ingurune digitala aztergai

Non dago emakumea ingurune digitalean? delako mahai ingurua egingo dute Lore Martinezek, Eli Gartzia eta Edurne Larrazak, autobus ibiltarian.
San Martin plazan, 19:00etan.

ARRASATE VI. Iragana Astintzen Zikloa

Sobietar Batasuna: nazioen auzia eta errepaso historikoa delako berbaldia egingo du Gabriel Ezkurdiak.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Hizkuntza normalizazioaz berbetan

Zertaz ari gara hizkuntza normalizazioa ari garenean? delako berbaldia egingo du Urtzi Urrutikoetxeak. Irekia herritar guztiendako.
Irizarren, 19:00etan.

EGUENA 9

OÑATI 'Ekintzaile gazteak' tailerra

Ekintzailetza sustatzeko ekimena.
Enpresagintzan, 09:00etan.

ESKORIATZA Odol ateratzea

Ireki herritar guztiendako.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

OÑATI Bingo saio berezia

Opariak ere egongo dira erretiratuek egingo duten saioan.
Pake Lekun, 17:00etan.

ARRASATE 'Adin adin' bertso egitasmoa

Jexux Mari Irazu eta Maider Arregi bertsolariak egingo dute saioa zaharren egoitzako egoiliarrekin.
Iturbide egoitzan, 17:00etan.

ARETXABALETA Zahartzaro aktiboaren gaineko hitzaldia

Rosi Rosado psikologoak egingo du berba, erretiratuendako.
Basotxon, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Jon Bilbaoren *Estrobo* liburua landuko dute Ivan Repilla koordinatzailearekin. Gazteleraz.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Urak eramandako bideak' ibilaldiaren aurkezpena

Ibilaldia hilaren 11n egingo dute. Gaur, ibilaldia aurkeztuko dute, argazki zaharrak eta ortoargazkiak erabilita.
Udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE La Furia taldea

Rap feminista lantzen duen taldearen kontzertua, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, bost euro. Gaztebtxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Blade runner 2049
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Lego ninjago (euskaraz)
Domeka: 17:00

OÑATI

KULTURA ETXEA

El muñeco de nieve
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Nur eta herensugearen tenplua
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Handia
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Emoji

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

El secreto de Marrowbone
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

La historia del amor
Domeka: 20:00.

Lego ninjago
Zapatua: 17:00.

La llamada
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

ANTZOKIA

Lego ninjago
Domeka: 17:00.

El secreto de Marrowbone
Domeka: 20:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

American assassins
Egubakoitzetik eguenera: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

La batalla de los sexos
Egubakoitza eta zapatua: 23:50.
Egubakoitzetik eguenera: 16:35, 19:00, 21:25.

Deep

Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 16:00, 17:55, 19:50.
Domeka, astelehena, martitzena eta eguena: 16:00, 17:55.

Enganchados a la muerte
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Thor: Rangarok
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:30, 19:40, 21:15, 22:20.

Geostorm
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua: 20:15, 22:20.

El secreto de Marrowbone
Egubakoitza, zapatua, astelehena, martitzena eta eguena: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Domeka: 15:45, 20:15, 22:30.

Toc toc

Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:10, 20:05, 22:00.

It

Egubakoitza eta zapatua: 23:55.

Tu mejor amigo
Egubakoitzetik eguenera: 16:10.

Tadeo Jones 2
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 16:10.
Zapatua: 16:10, 18:00.

El pequeño vampiro
Domeka: 17:00.

El muñeco de nieve
Egubakoitza eta astelehenetik eguaztena: 17:00.

La llamada
Egubakoitzetik eguaztena: 22:50.

Blade runner 2049
Egubakoitzetik eguaztena: 19:45.

Operacion cacahuete 2
Zapatua eta domeka: 15:45, 17:45.

Handia (euskaraz)

Domeka, astelehena, martitzena eta eguena: 19:50.

Handia
Egubakoitzetik eguenera: 22:10.

GORBEIA

American assassins
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:30.

Operacion cacahuete 2
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Toc toc
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:00.

Thor: Rangarok
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:40, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Tadeo Jones
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Geostorm
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 19:40, 22:00.

22:00.

The crucifixion
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.

Enganchados a la muerte
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

Deep
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Cancion de New York
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

El secreto de Marrowbone
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:20, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:40, 22:00.

Blade runner 2049
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

Handia
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:50.

KRITIKA

Handia ★★★★★

Zuz.: Jon Garaño eta Aitor Arregi. **Aktoreak:** Eneko Sagardoy, Joseba Usabiaga, Ramon Agirre.

Erronka berria

ANTONIO ZABALA

Euskal zinemak, azkeneko urteetan, era desberdinetako filmak estreinatu ditu. Marrazki bizidunak, komediak eta zinemaldietan parte hartu izan duten lanak. Adibidez, Donostiako Zinemaldian, *Loreak, Amama*, eta aurrean sari garrantzitsua lortu duen *Handia*. Badakigu oso zaila dela film bat finantzatzea, eta are zailagoa kontatzen den istorioak efektu bereziak erabiltzen baditu. Erronka berri baten aurrean gaude. Alde horretatik, *Handia*-rekin zuzendariek ez dute soilik film ikusgarri bat egin nahi izan. Efektu bereziak istorio barnekoia kontatzeko balio izan dute. *Altzoko erraldoia*-ren istorioa, hain zuzen ere. Bueno, erraldoiarena eta anaiarena. Eta egia esateko, garrantzi handiagoa ematen zaio anaiari



ETB.EUS

erraldoiari baino. Agian, hori izan daiteke akats bat. Hasieran, euren arteko harremana ikusten dugu, aitarekin dutena. Baina, bietako bat gerrara doanean, baserriko istorioa desagertu egiten da. Ez dugu ikusten erraldoiak eta etxeokoe nola bizi dituzten gertatzen ari diren handiagoko ematen zaio anaiari

eta European zehar egiten duen ibilbidea kontatzeko denbora irabazte aldera, zati hori ez zaigu kontatzen. Zaila da ikusgarritasuna eta barnekotasuna bateratzea. Kasu honetan, *Handia* txukuna eta gustu onez egindako filma da, baina azken emaitza lau samarra da.



GaldeGazte saiorako ikastaroa jaso aurretik Arizmendi Ikastolako Arrasateko Gaztelupe guneko ikasleei.



Imanol Beloki Hemen Debagoiena saiorako erreportajea lantzen. Maite Zubia zinegotzi eskoriatzarrarekin.



Imanol Gallego, Hemen Debagoiena saiorako erreportajea lantzen, Anton Azpiazurekin.



Larraitz Zeberio, Arrasateko Olgetan baliabide zerbitzuko Itsaso Pagoagarekin, albistea lantzen.



Maidar Arregi eta Mikel Ezkerro, Arrasate Rugby Taldekoekin, Harmaitatik saiorako erreportajea lantzen.



Miren Arregi eta Aitor Agiriano, Jaiak saiorako lanean, eskualdeko beste kazetari batzuekin.



Hemen Debagoiena-ko aurkezle Txomin Madina, saiora gonbidatutako Jon Berasategirekin.



Amaita DJ saiorako larraitzaile gaztetxoekin.



Xabier Urzelai #HRMT saioa grabatzen Añatzen, Mirian eta Joxean aita-alaba eskalatzaileekin.

Zu hemen zaude.

GOIENA TELEBISTA UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

goiena[“]
Zu hemen zaude.